

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERA-
KUNDE-MAILA DESBERDINEN ESKUMEN
PROPIOEN ETA FINANTZAKETAREN AZTER-
KETA OROKORRA**

2018ko ekaina

AURKIBIDEA

1. HITZAURREA.....	7
2. ERAKUNDE-ARTIKULAZIOAREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK ETA ESKUMEN-EGITURA ERAKUNDE-MAILEN ARABERA	13
2.1 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE-MAILA DESBERDINEN ARTEKO ESKUMENEN ZEDARRITZAPENA.....	13
2.2 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE-MAILA EZBERDINEN ARTEKO ESKUMENEN ZEDARRITZAPENAREN INGURUKO ARAUDI SEKTORIALA.....	22
3. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE-MAILEN FINANTZAKETA SISTEMAREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK	36
4. EAE-KO SEKTORE PUBLIKOAREN DIRU-SARRERA BATERATUAK: ERAKUNDE- IKUSPEGITIK EGINDAKO DIAGNOSTIKOA	56
4.1 EAE-KO ADMINISTRAZIOEN DIRU-SARRERA BATERATUAK, SAILKAPEN EKONOMIKOAREN ARABERA.....	56
4.2 ERAKUNDEEN ARTEAN BANATU BEHARREKO DIRU-SARRERAK ETA BANAKETAREN ERAGINPEAN EZ DAUDEN DIRU-SARRERAK.....	64
5. EAE-KO GASTU PUBLIKO BATERATUA: ERAKUNDE-IKUSPEGITIK EGINDAKO DIAGNOSTIKOA.....	87
5.1 GASTU PUBLIKO BATERATUAREN AZTERKETA: SAILKAPEN EKONOMIKOAREN ARABERA	87
5.2 GASTU PUBLIKO BATERATUAREN FINANTZAKETA.....	92
5.3 GASTU PUBLIKO BATERATUAREN AZTERKETA FUNTZIONALA.....	96
6. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK	118
I.ERANSKINA: EUSKAL AUTONOMI ESTATUTUAN AURREIKUSITAKO EAEKO ESKUMENETAN ERAGINA DUTEN LEGE MAILAKO INDARREAN DAGOEN ARAUDIA	127
II.ERANSKINA. LHL-N AURREIKUSITAKO LURRALDE HISTORIKOEN ESKUMENETAN ERAGINA DUTEN LEGE MAILAKO INDARREAN DAGOEN ARAUDIA	156
III.ERANSKINA. LHL-N AURREIKUSITAKO LURRALDE HISTORIKOEN ESKUMENETAN ERAGINA DUTEN FORU-ARAU MAILAKO INDARREAN DAGOEN ARAUDIA	166
IV. ERANSKINA. ETELEN AURREIKUSITAKO UDAL ERAKUNDEEN ESKUMEN PROPIOETAN ERAGINA DUTEN INDARREAN DAGOEN ARAUDIA.....	191

Koadroen aurkibidea

4.1 koadroa. EAEko administrazioen diru-sarrera bateratuen eta EAEko Barne Produktu Gordinaren bilakaera.....	57
4.2 koadroa. EAEko administrazioen diru-sarrera bateratuak, sailkapen ekonomikoaren arabera. 2015	58
4.3 koadroa. Eusko Jaurlaritzaren diru-sarrerak eta lurralde historikoenak, batera. Bi erakunde-mailen datu bateratu gabeak. 2015.	60
4.4 koadroa. Foru-aldundien eta toki-erakundeen diru-sarrerak, batera. Bi erakunde-mailen datu bateratu gabeak. EAE, 2015.	61
4.5 koadroa. Toki-erakundeen diru-sarreraren egitura alderatua: EAEn eta lurralde komunaren arteko alderaketa	62
4.6 koadroa. Diru-sarrerak, izaeraren eta erakunde-mailaren arabera (euroak, milakotan). EAE, 2015	66
4.7 koadroa. Ekonomia Itunaren ondoriozko baliabideen bilakaera, erakunde-mailaren arabera ...	69
4.8 koadroa. Diru-sarrera propioak erakunde-mailaren arabera. Guztira EAEn, 2015.	71
4.9 koadroa. Udal-zergak: biztanle bakoitzeko diru-bilketa (eurotan), populazio-mailaren arabera. EAE, 2011-2015eko batez bestekoa.	73
4.10 koadroa. Udal-zergak: biztanle bakoitzeko diru-bilketa, populazio-mailaren arabera. Araubide erkideko toki-erakundeak, 2011-2015eko batez bestekoa.	74
4.11 koadroa. Udal-zergak: gutxieneko eta gehieneko karga/tarifa mota aplikagarriak foru-araudiaren arabera. 2015	75
4.12 koadroa. Diru-sarrera finalistak erakunde-mailaren arabera. EAE, 2015	77
4.13 koadroa. Aurrekontu-egonkortasuneko eta zor publikoko EAerako helburuak (Barne Produktu Gordinaren ehunekoak).....	82
4.14 koadroa. Zorpetzea, erakunde-mailen arabera. Guztira EAEn, 2015.	84
4.15 koadroa. Finantza-zor biziaren bilakaera, erakunde-mailaren arabera. EAE, guztira.	85
5.1 koadroa. EAEko administrazio publikoen diru-sarrera eta gastu bateratuen bilakaera.....	88
5.2 koadroa. EAEko administrazio publikoen gastu bateratuak. 2015.....	89
5.3 koadroa. Eusko Jaurlaritzaren eta lurralde historikoen gastuak. Erakunde-mailen datuak, bateratu gabeak. 2015	89

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE-MAILA DESBERDINEN ESKUMEN
PROPIOEN ETA FINANTZAKETAREN AZTERKETA OROKORRA

5.4 koadroa. Foru-aldundien eta toki-erakundeen gastuak. Erakunde-mailen datuak, bateratu gabeak. 2015	90
5.5 koadroa. EAEko administrazioen gastu bateratuak, erakunde-mailen arabera. 2015.....	91
5.6 koadroa. EAEko administrazio publiko guztien aurrekontu-defizita/-superabita, zorpetzea kontuan hartu gabe. 2015	93
5.7 koadroa. Aurrekontu-defizita/-superabita erakunde-mailaren arabera, zorpetzea kontuan hartu gabe. EAE, 2015.....	94
5.8 koadroa. Amortizazioak eta zor-jaulkipen berriak, erakunde-mailen arabera (euroak, milakotan). 2015.....	95
5.9 koadroa. Aurrekontu-defizita/-superabita erakunde-mailaren arabera (euroak, milakotan). 2015	95
5.10 koadroa. Gastu bateratua, gastu-arloen eta erakunde-mailaren arabera (%). 2015	101
5.11 koadroa. Arloen, gastu-politiken eta erakunde-mailaren araberako gastu bateratua(%). 2015	103
5.12 koadroa. EAEko administrazioen gastu bateratua: programa-talde nagusiak. 2015.....	104
5.13 koadroa. Eusko Jaurlaritzaren gastu bateratua: programa-talde nagusiak. 2015.....	105
5.14 koadroa. Foru-aldundien gastu bateratua: programa-talde nagusiak. 2015	106
5.15 koadroa. Toki-erakundeen gastu bateratua: programa-talde nagusiak. 2015	107
5.16 koadroa. EAEko administrazioen gastu bateratuen erakunde-banaketa, gastu-politiken arabera. 2015	109

Grafikoen aurkibidea

4.1 grafikoa. Urte arteko bilakaera alderatua: EAEko administrazioen diru-sarrera bateratuak eta EAEko Barne Produktu Gordina (ehunekoak).....	57
4.2 grafikoa. EAEko administrazio publikoaren diru-sarrera bateratuak, sailkapen ekonomikoaren eta zergazko diru-sarreraren banakapenaren arabera (%). 2015	59
4.3 grafikoa. Erakundearen diru-sarrerak: Tipologia.....	64
4.4 grafikoa. EAEko administrazioen artean banatu beharreko diru-sarreraren urte arteko bilakaera. Euroak, milioitan.....	65
4.5 grafikoa. Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta toki-erakundearen baliabideen banaketa, diru-sarrera motaren arabera (%).	67
4.6 grafikoa. Banatu beharreko baliabideen zatiketa, erakunde-mailaren arabera (%). Guztira EAEn, 2015	68
4.7 grafikoa. Ekonomia Itunetik etorritako baliabideen banaketa (eskumen homogeenok) erakunde-mailaren arabera (%). 2007-2015	70
4.8 grafikoa. Udal-zergengatik bildutakoaren banaketa, zerga motaren arabera (%). Guztira EAEn, 2015	73
4.9 grafikoa. Zorpetzearen diru-sarreraren banaketa, erakunde-mailaren arabera (%). Guztira EAEn, 2015	83
4.10 grafikoa. Finantza-zor biziaren osaera, erakunde-mailaren arabera. EAE, guztira (%)	85
5.1 grafikoa. EAEko administrazio publikoaren diru-sarrera eta gastu bateratuen bilakaera.....	88
5.2 grafikoa. Gastuaren egitura alderatua, erakunde-mailen eta gastu-arloen arabera. (%). 2015.	102

1. HITZAURREA

1. HITZAURREA

Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen artikulazioa hiru erakunde-mailatan oinarritzen da, funtsean, gobernu egituratzeko: erakunde komunak, lurralde historikoetako foru-organoak eta toki-erakundeak.

Barruko egitura horren erregulazioa arauen bidez diseinatzen da; batik bat, Gernikako Autonomia Estatutuaren bidez, lehenik eta behin; Lurralde Historikoen Legearen bidez, ondoren, eta, duela gutxitik, Euskadiko Toki Erakundeetarako buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen bidez (aurrerantzean ETEL).

Azken arau horrek burutu du artikulazio-prozesu hura, toki-autonomia erabat gauzatuko dela babesteko eta ziurtatzeko, eta Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko gobernu-mailari eskumen batzuk emateko, ziurtaturik izan dezan berezko botere politikoa gauzatzeko modua izango duela eta, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoaren erakunde-sistemaren barruan udalerriek zer posizio daukaten zehazteko, bai udal-finantzaketaren sistema erabakitzen bai Ekonomia Itunetik eratorritako baliabide publikoa banatzen.

ETELaren esparruan, hauxe dio lehenengo xedapen iragankorraren 3. atal-lak:

Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeek finantzaketa egokia dutela bermatze aldera, azterketa orokor bat egingo da Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-maila ezberdinen eskumen propioei eta finantzaketari buruz, lege hau indarrean sartu eta urtebeteko epean, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren bitartez, banaketa egoki bat ziurtatu dadin Euskal Administrazioan gastu publikoari dagokionez. Azterketa horren emaitzak kontuan izango dira noiz eta, baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenen zehaztapenerako metodologia definitzen duen legea berrikusten denean.

Ildo beretik, bigarren xedapen iragankorraren bigarren paragrafoak hau dio:

Behin azterketa hori bukatutakoan, abian jarriko dira baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenen zehaztapenerako metodologiari

buruzko lege berri bat idazteko mekanismoak, amorez eta arau-testu berrian sartu daitezzen aipatutako azterketaren emaitzetan oinarrituta beharrezkoak diren xedapenak, bai eta banaketa horizontaleko ereduak eta lurralde historiko bakoitzaren ekarpenaren koefiziente horizontalak ezartzeko orduan, eta orobat aipatutako baliabideen banaketa horizontalean gerta daitezkeen desorekak zuzentzeko beharrezko mekanismoetan, udalek eduki beharreko partizipazioari buruz lege honetan jasotzen diren aldaketa guztiak.

Esandako manu horiek hezur-mamitze aldera, honako akordio hau adostu zuen 2016ko urriaren 14an Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak:

Lan-talde bat osatzea, Eusko Jaurlaritzako bi ordezkari, foru-aldundi bakoitzeko bina ordezkari eta udalerrietako beste bi ordezkari bilduta, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-maila ezberdinen eskumen propioei eta finantzaketari buruzko azterketa orokorra egiteko, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen lehenengo xedapen iragankorraren 3. apartatuak xedatzen duena bete beharrez.

Dokumentu hau lan-talde horrek burututako lanaren emaitza da; hortaz, aipatutako manu hori betetzea du helburu, eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-maila ezberdinen eskumen propioei eta finantzaketari buruzko azterketa orokorra egitea, hartara, EAEko administrazioan gastu publikoa behar bezala banatuko dela ziurtatzeko, EAEko toki-erakundeek behar beste finantzaketa badutela bermatzeko. Bestalde, helburu du azterketa horren ondorioz ikusitakoak txertatzea EAEko aurrekontuen finantzaketarako foru-aldundiek egin beharreko ekarpena zehazteko eta baliabideak banatzeko metodologia definituko duen legearen arau-testu berrian.

Hurrengo kapituluetan, horrenbestez, azterketa orokorra egin da, nagusiki deskriptiboa, erakunde-maila ezberdinen artean eskumenak banatzeko sistema eta elkarren arteko harremanak aztertzeke, baita erakunde-maila horietako bakoitzaren finantzaketa-sistema bera ere aztertzeke, orokorrean. Gainera, foru-aldundietan zein erkidego mailan halako kontuetan gaur arte izan den arau-garapena ere aztertu da. Izan ere, dagoeneko ezagunak diren kontuak antolatu nahi dira, nagusiki, eta ez erakunde-maila bakoitzaren ze-

reginak ondo edo gaizki banatuta dauden eta zeregin horietako bakoitze-rako jarritako finantzaketa aztertu eta horren inguruko iritzia eman.

Azterketa orokor bat izanik -hala agintzen baitu ETELak- orotara aztertu da erakunde-maila bakoitzaren finantzaketa; horrenbestez, asmoa ez da eskumen bakoitza edo eskumen-arlo bakoitza zehazki lantzea, ez eta eskumen-arlo bakoitzari lotutako finantzaketa aztertzea ere. Horrek ez du esan nahi, halere, erakunde-maila bakoitzari lotutako diru-sarreraren nahiz gastuen deskribapenetatik ezin denik ondorioren bat atera Euskal Autonomia Erkidegoko baliabideak esleitzeko ereduaren izaera eta logikari buruz eta ETELak sistema horretan izan duen eraginari buruz.

Beste ikuspegi batetik, azterketa honen helburua ez da erakunde-maila ezberdinen eskumenei egokitu ezin dakizkiokeen gastuen bikoizketa identifikatu edo detektatzea, salbu eta, hala badagokio, toki-erakundeei bideratutako helburu jakinak dituzten diru-sarrera batzuen eskumenaren izaera edo titulartasuna aurkitu nahi denean, eta horien finantza-esleipen bat egiteko metodo bat ere ezarri da azterketa honen gomendioetan.

Azkenik, asmoa ez da, ezta ere, erakunde komunen, foru-organoen eta toki-erakundeen artean eskumenak banatzeko irizpide orokorrak aztertu, ebaluatu edo epaitzea, hori dagoeneko eginda baitago indarrean dagoen araudi orokor eta sektorialean. Aldiz, argibide batzuk eman nahi dira ikusteko ea eskura dauden baliabideak ondo banatuta dauden, une bakoitzean indarrean dagoen eskumenen banaketaren arabera.

Azterlan honek, finean, ikuspegi osoa eman nahi du Euskal Autonomia Erkidegoko hiru erakunde-mailen gastuei eta diru-sarrerei buruz, gaur egun indarrean dagoen finantza-ereduari buruzko azalpenak emanik eta, zehazki, Ekonomia Itunetik jasotako baliabideak banatzeko ereduaren gaineko azalpenak, eredu horrek, aurrenekoz, toki-erakundeak ere legez aintzat hartu baititu. Horrenbestez, azterlan honek ez du, inola ere ez, ebazpen erabakigarririk ez kategorikorik emango, ez eta banaketaren behin betiko eskemarik ere; aldiz, baliabideak banatzeko ereduaren jakintza eta arrazionaltasuna ezagutzeko hurbilketa da, banaketa-eredua hiru erakunde-mailen eskumen-multzoari ondo egokituta dagoen jakiteko.

Finantza-nahikotasunaren printzipioa, nahiz eta oso garrantzitsua izan, ez da printzipio absolutua eta ez dago txosten honen ondorioen mende; gainera, erakunde-maila guztietan aplikatu behar da. Horregatik, azterlan honen, bere ekarpenen bidez, EAEko erakunde guztiek behar besteko autonomia eta finantza-egonkortasuna izan dezaten lagundu nahi du, une bakoitzean esleituta dituzten eskumenak behar bezala garatzeko.

Metodologiaren ikuspuntutik, azterlan hau baldintza batzuk kontuan izanda landu da, eta, batzuetan, azterlanaren irismenaren eta edukiaren mugatzat ere har litezke baldintza horiek.

Alde batetik, aipatu behar da diru-sarrera eta gastu bateratuen gaineko datu eta ondorioak 2015eko ekitaldiari buruzkoak direla, hala erabaki baitzuen idazketako lan-taldeak, elkarrekin adostuta, hainbat arrazoiengatik. Lehenik eta behin, 2015. urtea ekitaldi estandartzat hartu delako hiru erakunde-mailen arteko harreman ekonomiko eta finantzarioei dagokienez. Bigarrenik, hura izan zelako azkeneko ekitaldi osoa ETELa indarrean jarri aurretik. Hirugarrenik, urte horretakoa delako EUSTATEk argitaratutako azken informazio estatistiko ofiziala. Laugarrenik, Euskal Ogasunaren Urteko Txosten Bateratua (Euskadiko Zerga-Koordinaziorako Organoak prestatzen duena) egin zaion azken ekitaldia delako. Eta, amaitzeko, urte hura izan zelako azkenekoa Herri Kontuen Euskal Epaitegiak aztertu zuena hiru erakunde-mailen kontu orokorreari dagokienez. Alabaina, urte horren diagnostik eratorritako ondorioak gaur egun ere aplikatzeko modukoak dira.

Beste alde batetik, azpimarratu behar da diru-sarreraren eta gastuen izaera ekonomikoaren azterketa EUSTATEk argitaratutako Sektore Publikoaren Aurrekontuen Estatistiketatik etorritako informazioarekin egin dela; aldiz, programa-taldeen araberako gastu publikoaren inguruko azterlana egiteko, Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundi bakoitzak bere lurraldeko foru-ogasunari eta toki-ogasunei dagokienez emandako kontabilitate-informazioa erabili da, Sektore Publikoaren Aurrekontuen Estatistiketan ez delako ematen informazio hori.

Esangura horretan, azterlan honen helburu nagusietako bat bazen hiru erakunde-mailen eskumenen eta finantzaketaren egokitzapenaren eta koherentziaren gaineko hausnarketa egitea, logikoena izango litzateke aurrekontu-

gastuaren programen araberrako sailkapenaren irakurketarekin hastea; hala ere, 5. kapituluaren jorratzen da azterlan hori. Hiru lurralde historikoetako toki-erakundeek kontabilitate-arau berberak dituzten arren, lurralde historikoen eta udalerrien esparruan, nolabaiteko homogeneizazio eza dago kontabilitate- eta egozte-irizpideei eta aurrekontuak banakatzeari dagokienez. Eta, horri dagokionez, azpimarratu behar da teknikoki oso konplexua izan dela informazioa tratatu eta aztertzea, irizpide ezberdinak erabiltzen direlako erakunde-maila bakoitzean eta lurralde historiko bakoitzean gastu publikoaren sailkapena eta kontabilizazioa egiteko. Beraz, 2015eko ekitaldiko kontabilitate-informazioa homogeneizatu behar izan da erakunde guztien gastuaren irakurketa koherentea egin ahal izateko.

ETELak agintzen duenez, honako azterlan honek emango dituen ondorioak edo, kasuan kasu, gomendioak, kontuan hartu beharko dira ekarpenen araudi berria egitean (ahalik eta azkarren onetsi beharko da hori). Edonola ere, ondorio edota gomendio horiek ekarpenen lege berrira eramateko, kontu handiz jokatu beharko da, arau hori giltzarri izango delako finantzen egonkortasuna ziurtatzeko, bakoitzak bere eskumeneren barruan, hurrengo urteetan EAEko erakunde guztiek izango dituzten gastuen iraunkortasuna eta duintasuna aintzat hartuta.

Azkenik, azterlan honen egiturari buruz, argituko dugu 6 kapitulu dituela, hitzaurreko aurreneko hau barne. 2. kapituluaren, EAEko hirurakunde-mailen arteko eskumeneren zedarrizapena aztertu da, indarrean dagoen araudi sektorialarekin ere erlazionatuz. 3. kapituluaren, EAEko erakundearen finantzaketa-sistemaren oinarritzko ezaugarriak deskribatu dira, Euskadiko Ogasun Nagusiaren, foru-ogasunen eta toki-ogasunen diru-sarreraren iturriak kontuan hartuta.

4. eta 5. kapituluaren, 2015. urtean EAEko administrazio publikoak izandako diru-sarrera bateratuen (4. kapituluaren) eta gastu bateratuen (5. kapituluaren) diagnosi kuantitatiboa egin da, indarrean dagoen finantzaketa-sistemaren ondoriozko zehaztapenen arabera eta Sektore Publikoaren Aurrekontuen Estatistiken emaitzak erreferentzia moduan hartuta. Azkenik, 6. kapituluaren islatu dira EAEko erakunde-maila ezberdinen eskumen propioei eta finantzaketaren inguruan lan-taldeak atera dituen ondorioak.

**2. ERAKUNDE-ARTIKULAZIOAREN OINARRIZKO EZAU-
GARRIAK ETA ESKUMEN-EGITURA ERAKUNDE-MAILEN
ARABERA**

2. ERAKUNDE-ARTIKULAZIOAREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK ETA ESKUMEN-EGITURA ERAKUNDE-MAILEN ARABERA

2.1 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE-MAILA DESBER- DINEN ARTEKO ESKUMENEN ZEDARRITZAPENA

Hargatik eragotzi gabe beste eremu bateko bestelako arauak (Konstituzioa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea, Ekonomia Itunaren Legea eta abar), orokorrean, hiru funtsezko arauk mugatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-mailen arteko eskumenen banaketa. Hauek dira hiru arau horiek:

- 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena.
- 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde-Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremanei buruzkoa.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutua da Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko erakunde-araua, eta bertan agertzen dira autonomia-erkidego horrek autonomiarako eskubidea egikaritzuz eta foru-lurraldeen eskubide historikoen babespean eta horiek errespetatuz bere gain hartutako eskumenak.

Esangura horretan, I. tituluan (Euskal Herriaren eskumenak) eskumen horiek jasotzen dira zenbait artikulutan: EAEk eskumen eskusiboa du gai batzuetan (10. artikulua); EAEk estatuaren oinarrizko legeria lege bidez garatu eta bere lurraldean betearazteko zeregina du beste gai batzuetan (11. artikulua); Estatuaren legeria betearazteko zeregina du EAEk beste gai batzuetan (12. artikulua); Justizia Administrazioaren eremuan ere beste eskumen batzuk ditu EAEk (13. eta 14. artikulua); baita irakaskuntzaren eremuan (16. artikulua); polizian (17. artikulua); osasunean eta gizarte segurantzian (18. artikulua), eta gizarte-hedabideen arloan (19. artikulua) ere.

Halaber, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuan, honako hau ezartzen da: Euskal Herria osatzen duten lurralde historikoetarik bakoitzak ahal izango du, Erkidegoaren baitan, bere antolakuntza eta bere autogobernu-erakunde propioak gorde edota, hala dagokionean, biziberritu eta eguneratu (3. eta 24.2 artikulua); halaber, eskumen eskusiboak ematen dizkie foru-organoei, euren lurraldeetan, honako gai hauetan (37. 3 artikulua):

- a. Beren erakunde propioen antolaketa, araubidea eta jarduera.*
- b. Beren aurrekontuak prestatu eta onartzea.*
- c. Probintzia-mugak gainditzen ez dituzten udalaz gaindiko lurralde-barrutiak.*
- d. Probintziaren eta udalen ondasunen araubidea, bai jabetza publiko-koak zein ondarekoak eta herri-lurrak.*
- e. Udal-hauteskundearen araubidea.*
- f. Estatutu honetan zehatu daitezkeen edota eskuordetu dakizkien guztiak.*

Horrela, adibidez, 10.34 artikuluan, hauxe xedatzen da bide eta errepide alo-rean: lurralde historikoetako foru-aldundiek oso-osorik gordeko dituzte orain dituzten lege-araubidea eta eskumenak ala, hala dagokionean, Estatu honen 3. artikulua araberaren berreskuratzeko dituztenak. Halaber, 41. artikuluan, Estatuaren eta Euskal Herriaren arteko tributu-alorreko erlazioei dagokienez, honako hau esleitzen die lurralde historikoetako erakunde eskudunei:

- Tributu-araubidea mantendu, ezarri eta arautu ahal izango dute beren lurraldean, Estatuko zerga-egitura orokorrari, koordinaziorako, zerga-harmonizaziorako eta Estatuarekiko lankidetzarako ekonomia-itunak berak jaso dituzan arauak eta Autonomia Erkidegoaren baitan helburu horietarako Eusko Legebiltzarrak eman ditzanei loturik.
- Foru-aldundi bakoitzak ordainaraziko, kudeatuko, kitatuko, bilduko eta ikuskatuko ditu zerga guztiak nork bere lurralde historikoaren barruan, muga-zergari dagozkionak, eta gaur egun zerga-monopolioen bidez biltzen direnak ezik, betiere Estatuarekiko lankidetzari eta bere goi-ikuskaritzari kalterik egin gabe.

Esangura berean, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren arabera, lurralde historikoetako foru-organoei, Eusko Legebiltzarrak zehazten dituen gaietan, arau bidez garatu eta beren lurraldean betearaztea ere egokituko zaie (37.4 artikulua).

Ondore horietarako, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde-Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legean (LHL), autonomia-erkidegoko erakunde komunak eta lurralde historikoetako foru-erakundeen arteko eskumenen zedarrizapena arautu zuen haien titulartasunari eta egikaritzeari dagozkienetan, Konstituzioan eta Autonomia Estatutuan ezarritakoarekin bat etorrira.

Eta, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunak eta lurralde historikoen foru-organoen arteko harremanak gidatu behar dituzten printzipioak formulatu eta gero (lankidetzaren eta elkartasunaren 2.1 artikulua, eraginkortasuna eta koordinazioa dagozkien eskumenak egikaritzearen 2.2 artikulua eta bereizketarik eza lurralde historikoen artean, ahalmen eta eskumenen aintzatespen edo atxikipenari dagokionez 4. artikulua), erakunde komunak eta lurralde historikoen eskumenak zedarrizten ditu I. tituluak.

Horrela, lehenbizi, eta printzipio orokor gisa, EAEko erakunde komunei eskumena ematen zaie legeak egin eta betearazteko, Autonomia Estatutuaren arabera autonomia-erkidegoari dagozkionak izanik, Estatutu horretan, lege horretan edo gerokoren baten lurralde historikoetako foru-organoei aitortu edo esleitu ez zaizkien gai guztietan (6.1 artikulua). Era berean, nolahi ere, lege-mailako arauak emateko eskumena Legebiltzarrari bakar-bakarrik dagokiola ere esaten du (6.2 artikulua).

Ondoren, LHLren 7. artikuluan, lurralde historikoei esleitutako eskumenak jasotzen dira, hiru ataletan banatuta:

1) Lurralde historikoetako foru-organoei eskumen eskusiboa duten gaietan, lurralde bakoitzaren araubide juridiko propioaren arabera egikarituko direlarik (artikulu horren *a* letraren 1-13 atalak).

Gai horietan, LHLren 8.1 artikulua arabera, honako ahalmen hauek dagozkie lurralde historikoei:

- a. *Arauemailea, foru-organoek emandako arauak beste edozeinekiko lehenatasunez erabiliz (Batzar Nagusien foru-arauak).*
- b. *Araudigintzako.*
- c. *Administraziokoa, ikuskaritza barne dela.*
- d. *Berrikustekoa, administrazio-bidean.*

Halaber, LHLren 7. artikulua d atalaren arabera, lurralde historikoei dagozkie euren eskumen eskusiboko gaitan estatuaren oinarritzko legegintza arauen bidez garatu eta betearaztea.

2) Lurralde historikoei erakunde komunek emandako arauak garatu eta betearazteko eskumenak dituzten gaiak (*b* letraren 1-6 atalak).

Gai horietan, LHLren 8.2 artikulua arabera, honako ahalmen hauek dagozkie lurralde historikoei:

- a. *Erakunde komunek emandako arauen arau bidezko garapena, foru-organoek emandako arau horietan esaten denaren aurka jokatzetik izango ez dutela.*
- b. *Araudigintzako.*
- c. *Administraziokoa, ikuskaritza barne dela.*
- d. *Berrikustekoa, administrazio-bidean.*

3) Lurralde historikoei erakunde komunek emandako arauak euren lurraldeetan betearazteko eskumenak dituzten gaiak (*c* letraren 1-6 atalak).

Gai horietan, LHLren 8.3 artikulua arabera, honako ahalmen hauek dagozkie lurralde historikoei:

- a. *Araudigintzako, haien zerbitzuak antolatze.*
- b. *Administraziokoa, ikuskaritza barne dela.*
- c. *Berrikustekoa, administrazio-bidean.*

Horrez gain, lurralde historikoei dagozkien betearazpen-egintzen inguruan, LHLren 11. artikuluan xedatzen denez, Eusko Legebiltzarraren legearen bidez arautuko da Eusko Jaurlaritzak egin behar duen goi-mailako ikuskaritza.

Azkenik, 9. artikuluan xedatzen denez, foru-aldundiek estatistikak egin ahal izango dituzte aitortuta dituzten helburu propioak eta eskumenak gauzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoaren estatistikari buruzko legeriarekin bat etorrita. Gainera, 10. artikulua, zenbait ahalmen esleitzen dizkie lurralde historikoei (garai hartan Arabak zituen ahalmen berberak, eta izaera berekoak, haien lurraldean eta Estatuarekin indarrean ziren hitzarmenen arabera), errepide bidezko garraioaren arloan Autonomia Erkidegoko erakunde komunei dagozkien arloko legegintza, arau bidezko garapena, goi-mailako ikuskaritza, plangintza eta koordinazioa, hain zuzen ere.

EAEko toki-erakundeen eskumenei dagokienez, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuan soilik aipatzen da Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa duela udalbarrutien mugetan, Estatutu honen 37. artikuluan xedatutakoaren arabera lurralde historikoei dagozkien ahalmenei kalterik eragin gabe (10.1 artikulua), eta toki-araubidean eta Euskal Herriko zein toki-administrazioko funtzionarioen estatutuan, Konstituzioaren 149.1.18 artikuluan finkatutakoari kalterik egin gabe (10.4 artikulua. Bestetik, Eusko Jaurlaritzari esleitzen dio Euskal Autonomia Erkidegoko poliziaren aginte gorena, foru-aldundiek eta toki-korporazioek izan ditzaketen eskumenei kalterik egin gabe (17.2 artikulua).

Lehen azaldu bezala, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 37.3 artikulua arabera, lurralde historikoetako foru-organoek eskumen eskusiboak dituzte gai hauetan: probintzia-mugak gainditzen ez dituzten udalaz gaindikoa lurralde-barrutiak (c letra), probintziaren eta udalen ondasunen araubidea, bai jabetza publikokoak zein ondarekoak eta herri-lurrak (d letra) eta udal-hauteskundearen araubidea (e letra).

Lurralde historikotako foru-organoen eskumen eskusibo horiek LHLren 7 a) artikuluan (2., 3. eta 7. atalak) daude berretsita, eta, era berean, beste hauek ere aipatzen ditu eskumen eskusibo horien artean: obra eta zerbitzuen foru-plana idatzi eta onestea, eta toki-erakundeei laguntza eta aholkularitza teknikoa ematea (5. atala).

Dena den, printzipio orokor gisa, LHLren 3. artikulua dio Autonomia Erkidegoak aitortu eta bermatu egiten duela Euskal Autonomia Erkidegoko udal-erriek beren interes pribatuak kudeatzeko eta beren baliabideak administratzeko duten autonomia. Bigarren xedapen gehigarrian, era berean, bi berririazko agindu ematen dizkie foru-aldundiei toki-erakundeen inguruan:

- Alde batetik, euren udalerrien gainean dituzten finantza-tutoretzako jardunean, foru-aldundiek baliabide-maila nahikoa bermatu behar diete haien lurraldeko udalei, eta baliabide-maila hori, inola ere, ez da izango araubide komuneko legeria aplikatzeagatik legokiekeena baino apalagoa¹, hargatik eragotzi gabe foru-aldundiek duten ahalmena zenbateko horiek egokien irizten dutenaren arabera banatzeko, Ekonomia Itunaren 46. artikulua dioenaren arabera².
- Beste alde batetik, tokiko inbertsio eta ekipamendu beharrei erantzuteko, Obra eta Zerbitzuen Foru Planetarako aurrekontu-hornidura nahikoa prestatzeko agintzen die.

Azkenik, Euskadiko Ogasun Nagusia eta foru-organismoetako ogasunak EAEko toki-erakundeetakoarekin guztiz artikulatzeko, jarduketa-printzipio hauek ezarri zituen LHLk:³

¹ Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Erakundeei buruzko Legearen 117. artikulua toki-ogasunek itundutako tributuen etekinean duten parte hartzeari buruzkoa da, eta agindu hori errepikatu egiten da bertan: Udalei ordenamendu juridikoak aurreikusten dizkieten eskumenen eta zerbitzuen arabera egokia den baliabide-maila bermatu behar zaie. Baliabide-maila hori, inola ere, ez da izango araubide komuneko legeria aplikatzeagatik legokiekeena baino apalagoa.

² 1983an LHL onartu zenean indarrean zen Ekonomia Itunaren 46. artikulua, honako hau zioen EAEko toki-korporazioek itundutako tributuetan eta itundu gabekoetan duen partaidetzari dagokionez:

Bat. Dituen eskubide historikoetatik eratorritako ahalmenen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak zuzeneko ekarpenen bat egin badu Udal Lankidetzarako Funtz Nazionalean edo beste edozein funtsetan edo antzeko mekanismoren batean, eta horrek itundutako tributuen partaidetza erabiltzen badu, orain edo etorkizunean, toki-korporazioak finantzatzeko, zuzeneko ekarpen horiek guztiz geratuko dira foru-aldundien esku, eta horiek arduratuko dira zenbatekoak haien lurralde historikoko toki-korporazioen artean banatzeaz, egokitzat jotzen dituzten irizpideei jarraituz.

Bi. Zeharkako ekarpenak egiten badira itundu gabeko tributuetan parte hartuz, Gobernuaren eta EAEko erakunde eskudunen artean itunduko diren irizpideen arabera banatuko dituzte foru-aldundiek zenbatekoak, haien lurralde historikoko toki-korporazioei banaketa-arau orokorren arabera dagokienaren arabera.

³ ETELen 115. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan berriz aipatzen dira jarduketa-printzipio horiek.

- Toki-enteek eta horien organismo eta erakundeek, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak zehaztutakoaren arabera, autonomia-erkidegoko erakunde komunek erabilitakoekin homogeneoak diren irizpideak erabiliko dituzte aurrekontu-prozedurari eta kontabilitate publikoari dagokionez.
- Toki-enteek urtebete baino gehiagoko eperako kreditu-eragiketak itundu nahi badituzte, nahitaez koordinatu eta bateratu beharko dute lurralde historikoetakoekin eta autonomia-erkidegoaren zorpetze-politikarekin, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluaren baitan.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea (ETEL) onetsi zenean, helburu nagusi bi lortu nahi ziren bereziki: batetik, batez ere, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako toki-erakundeek beren toki-autonomia osorik balia dezaten babestu eta bermatzea (1.1 artikulua); bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko gobernu-mailari eskumen multzo bat aitortzea eta ematea, berma dadin botere politiko propioa izango duela eta bideragarri gerta dakion herritarrei kalitatezko zerbitzuak ematea, tokiko gobernu ireki, garden eta parte-hartzaile baten bidez (1.2 artikulua).

Arau honen bidez, gainera, zehazten da EAEko udalerriek Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-sisteman duten lekua udalen finantzaketa-sistema zehazteari eta Ekonomia Itunaren ondorio diren baliabide publikoak banatzeari dagokionez (1.3 artikulua).

Horrez gain, ETELen 3.1 artikuluan ezarrita dagoen bezala, Lege hau onartzen da Konstituzioaren azken xedapenetan lehenengoak, Euskal Herrirako Autonomia Estatutuak eta Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Itun Ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoari ematen dizkieten eskumenak baliatuz. Bada, horrela, EAEko udalerrien eskumenak argitu nahi ditu, eta segurtasun juridikoa emateaz gain, beraien egiteko instituzionala indartzeko eta erabateko toki-autonomia bermatzeko botere-sorta zabala ematen die, eskumen propioen sistema batean islatuko dena.

Hortaz, lehenengo eta behin, toki-erakundeei toki-araubideari buruzko oinarritzko legerian aurreikusitako ahal guztiak dagozkiela berresten da (2.5 artikulua).

Euskararen erabilerari dagokionez (7. artikulua), udalei esleitzen zaizkie, eskumen propio gisa, euskararen erabilera sustatzeko, planifikatzeko eta dinamizatzeko eskumenak, bai udal-zerbitzuen alorrean, bai udalerriko bizi-tzaren eremu askotarikoetan ere.

Bestalde, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen III. tituluak udal-eskumenak arautzen ditu, hala nola, eskumen propioak dira autogobernua bermatzen dutenak, eta eskumen transferitu edo eskuordetuak, helburu hori lortzeari dagokionez, salbuespen dira.

Horrela, 17. artikuluan, 37 gairen zerrenda jasotzen da; gai horietan, Eusko Legebiltzarraren lege sektorialek edo, hala badagokio, foru-arauek eskumen propioak eman dakizkieke udalerriei, betiere gai bakoitzean aurreikusitako ahalmenak kontuan izanda, edo ahalmen horiek zabaldu, betiere finantza-nahikotasuna bermatzen bada.

Hortaz, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearekin bat etorrira (18.1 artikulua), udalerrien eskumen propioak zeintzuk diren Eusko Legebiltzarraren lege bidez edota foru-arau bidez zehaztu beharko da, nahitaez, eta eskumen horiek esleitzearen komenigarritasuna finantza-nahikotasunaren printzipioaren, herritarrekiko hurbiltasunaren printzipioaren eta subsidiaritate-printzipioaren arabera ebaluatu beharko da.

Orobat, modu berean jardun beharko da lege sektorial edo foru-arauen erregelamenduzko garapenaren kasuan, baldin eta garapen horrek berarekin badakar udalei propiotzat izendatu zaizkien eskumenetatik eratorritako zerbitzu, jarduera edo prestazioen zehaztapena (18.2 artikulua). Eta, kasu bietan, behar beste baliabide zuzkitu beharko da udalerrien finantza-nahikotasuna bermatzeko, baita udalerriek gai bakoitzean dituzten ahalmen eta eginkizunak erabili ahal izango dituztela bermatzeko ere.

ETELek, halaber, eskumenen klausula orokor bat gehitzen du (16. artikulua), testuak ezartzen baitu toki-erakundeei, betiere legearen esparruaren barruan, beren ekimena gauzatzeko erabateko askatasuna dutela, beren eskumenetik kanpo ez dagoen edo beste aginte bati esleitu ez zaizkion gai guztietan. Hortik ondorioztatzen da EAEko udalek beste lurralde-botere publikoek egiten dituzten jarduerekin osagarriak diren jarduerak egin ditzaketela, baldin eta udal-ogasun osoaren finantza-jasangarritasuna arriskuan jartzen ez

bada eta bikoiztasunik sortzen ez bada. Azkenik, ETELen arabera, erakunde komunek eta foru-organoek udalerriei edo toki-erakundeei transferitu (21. artikulua) edo eskuordetu (22, 23 eta 24. artikulua) ahal izango dizkiete eskumenak. Kasu biotan, eskumenak transferitu edo eskuordetzen direnean, eskumenok egikaritzeko beharrezko finantzaketa nahikoa ere eduki beharko dela xedatzen da.

2.2 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE-MAILA EZBERDINEN ARTEKO ESKUMENEN ZEDARRITZAPENAREN INGURUKO ARAUDI SEKTORIALA

Aurreko atalean deskribatu den eskumenen zedarritzapenaren eremuan, azken 35 urte hauetan erakunde komunek, bereziki⁴, eta lurralde historikoe-tako foru-organoek emandako araudi sektorialak, alde batetik, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak eta LHLeK erakunde horiei emandako eskumenak garatu ditu eta, bestetik, esparru material batzuetan zedarritu ditu erakunde-maila ezberdinei esleitutako eskumenak.

Erakunde komunek emandako lege-mailako arauak (gaur egun 140 lege eta legegintzako dekretu baino gehiago daude indarrean), autogobernu-erakundeen antolakuntza, erregimena eta funtzionamendua arautzeaz gain⁵, gai askoren inguruko erregulazio sektoriala ere jorratu dute Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak emandako eskumenen baitan⁶.

Lege-mailako arau horiek Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-mailen eskumenetan izan dezakeen eraginari dagokionez, hiru arau-multzo handi bereiz ditzakegu:

a) Batetik, EAeko administrazio publiko guztiei edo, antzeko moduan, EAeko botere publikoei orokorrean aplikatzekoak diren arauak. Multzo horretan, besteak beste, honako arau hauek aipa daitezke:

⁴ Gogora ekarri behar da LHLren 6.2 artikulua dioela, nolahi ere, lege-mailako arauak emateko eskumena Legebiltzarrari bakar-bakarrik dagokiola.

⁵ Adibidez: 1/1980 Legea, maiatzaren 23koa, Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko Erakundearen egoitzari buruzkoa; 5/1990 Legea, ekainaren 15koa, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzkoa; 2/1981 Legea, otsailaren 12koa, Eusko Legebiltzarkideen ukiezin eta iareitasun-eskubideen aitortpenari buruzkoa; 4/1981 Legea, martxoaren 18koa, Euskadiren izeneko senatarien izendapenari buruzkoa; 7/1981 Legea, ekainaren 30koa, Jaurlaritzari buruzkoa; 8/1983 Legea, apirilaren 14koa, Euskadiren Ereserki Ofizialari buruzkoa; 3/1985 Legea, otsailaren 27koa, Arartekoa Erakundea sortu eta arautzen duena; 1/1988 Legea, otsailaren 5koa, Herri Kontuen Euskal Epaitegiarena; 13/1994 Legea, ekainaren 30koa, Ebazpen Batzordea arautzen duena, edo 1/1990 Legea, apirilaren 6koa, Euskal Autonomi Elkarteko Epailaritzaren Barrutietako Hiriburuak Erabakitzeari buruzkoa.

⁶ Dokumentu honen I. eranskinean, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren xedapenak garatzeko Eusko Legebiltzarrak onetsi dituen lege-mailako arauak zerrendatu dira (gaur egun indarrean daudenak).

- 10/1982 LEGEA, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa.
- 3/1985 LEGEA, otsailaren 27koa, Arartekoa Erakundea sortu eta arautzen duena.
- 4/1986 LEGEA, apirilaren 23koa, Euskadiko Autonomia Elkartearen Estatistikari buruzkoa.
- 1/1988 LEGEA, otsailaren 5koa, Herri Kontuen Euskal Epaitegiarena.
- 6/1989 LEGEA, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
- 4/1990 LEGEA, maiatzaren 31koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolatzeari buruzkoa.
- 8/1994 LEGEA, maiatzaren 27koa, Euskal Autonomi Erkidegoaz kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanetarakoa.
- 2/1998 LEGEA, otsailaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa.
- 10/2000 LEGEA, abenduaren 27koa, Gizarte Eskubideen Agiriarena.
- 2/2004 LEGEA, otsailaren 25koa, datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa.
- 1/2007 LEGEA, otsailaren 22koa, Garapenerako Lankidetzari buruzkoa.
- 14/2007 LEGEA, abenduaren 28koa, Herrialde Txiroetuekiko Justizia eta Elkartasunerako Kartari buruzkoa.
- 4/2008 LEGEA, ekainaren 19koa, terrorismoaren biktimei errekonozimendua eta ordaina emateari buruzkoa.
- 6/2010 LEGEA, abenduaren 23koa, Euskadiko publizitate eta komunikazio instituzionalari buruzkoa.
- 14/2012 LEGEA, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.
- 15/2012 LEGEA, ekainaren 28koa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema antolatzekoa.
- 16/2012 LEGEA, ekainaren 28koa, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiak Laguntzekoa.
- 4/2015 LEGEA, ekainaren 25koa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa.
- 3/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzekoa.

- 6/2016 LEGEA, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzkoa.

b) Bestetik, aplikatzekoak izateaz gain, erakunde-maila ezberdinei eskumen zehatz batzuk esleitzen dizkieten arauak. Multzo horretan, besteak beste, honako arau hauek aipa daitezke:

- 7/1982 LEGEA, ekainaren 30ekoa, Eskola Osasunari buruzkoa.
- 13/1988 LEGEA, urriaren 28koa, Euskadiko Eskola-Kontseiluei buruzkoa.
- 7/1990 LEGEA, uztailaren 3koa, Euskal Kultur Ondareari Buruzkoa.
- 4/1992 LEGEA, uztailaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzkoa.
- 1/1993 LEGEA, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa.
- 6/1993 LEGEA, urriaren 29koa, animaliak babestekoa.
- 7/1994 LEGEA, maiatzaren 27koa, merkataritza-jarduerari buruzkoa.
- 8/1997 LEGEA, ekainaren 26koa, Euskadiko antolamendu sanitarioarena.
- 20/1997 LEGEA, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna Sustatzekoa.
- 17/1998 LEGEA, ekainaren 25ekoa, Boluntarioei buruzkoa.
- 6/2003 LEGEA, abenduaren 22koa, Kontsumitzaile eta Bezeroen Estatu-tuari buruzkoa.
- 5/2004 LEGEA, maiatzaren 7koa, Mahastizaintza eta Ardogintza Antolatze-koa.
- 1/2006 LEGEA, ekainaren 23koa, Urarena.
- 2/2006 LEGEA, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.
- 7/2006 LEGEA, abenduaren 1ekoa, Euskadiko Museoei buruzkoa.
- 10/2007 LEGEA, ekainaren 29koa, Ahalmen Urrituentzako Laguntza Txakur-ri buruzkoa.
- 11/2007 LEGEA, urriaren 26koa, Euskadiko Liburutegiei buruzkoa.
- 17/2008 LEGEA, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politi-
kako.
- 2/2011 LEGEA, martxoaren 17koa, Ehizarena.
- 1/2014 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen du-
ena.
- 3/2015 LEGEA, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.

- 10/2015 LEGEA, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena.
- 13/2016 LEGEA, uztailaren 28koa, Turismoarena.

c) Azkenik, aplikatzekoak izateaz gain, gai jakin baten inguruko eskumenak berariaz EAEko hiru erakunde-mailen artean zehazten dituzten arauak (erakunde komunak edo Eusko Jaurlaritzza, lurralde historikoak edo foru-aldundiak, eta udalak). Multzo horretan, besteak beste, honako arau hauek aipa daitezke:

- 3/1998 LEGEA, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra.
- 10/1998 LEGEA, apirilaren 8koa, Landa Ingurunearen Garapeneko.
- 14/1998 LEGEA, ekainaren 11koa, Euskadiko Kirolarena.
- 2/2000 LEGEA, ekainaren 29koa, Bidaiariak Herri Barruan eta Herriz Kanpo kotxez garraiatzeko Zerbitzu Publikoa Arautzen duena.
- 4/2004 LEGEA, martxoaren 18koa, Errepideko Bidaiari Garraioarena.
- 3/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko.
- 4/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasuneko.
- 1/2008 LEGEA, otsailaren 8koa, Familia Bitartekaritzakoa.
- 12/2008 LEGEA, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- 13/2008 LEGEA, abenduaren 12koa, Familiei Laguntzekoa.
- 18/2008 LEGEA, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa.
- 1/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa.
- 1/2017 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, apirilaren 27koa, Larrialdien Kudeaketari buruzko Legearen testu bategina onesten duena.

Are gehiago, dokumentu honen eranskinetan, Eusko Legebiltzarrak onetsi dituen lege-mailako arauak zerrendatu dira (gaur egun indarrean daudenak), baldin eta eragina badute LHLn aurreikusi ziren lurralde historikoen

eskumenetan (II. eranskina) eta ETELen aurreikusi ziren toki-erakundeen eskumen propioetan (IV. eranskina).

Konparatzen badugu, Lurralde historikoetako batzar nagusiek emandako arauak, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 41. artikuluan eta Ekonomia Itunaren Legean esleitutako eskumenak garatzeko eman diren tributu eta aurrekontuen alorretako xedapenak izan ezik, ez dira hainbeste.

Horrela, lurralde historikoen eskumen eskusiboen esparruan, eta foru-organoen antolakuntzari, erregimenari eta funtzionamenduari dagokienez, egun indarrean dauden honako arau hauek aipa daitezke:

ARABAKO LH	BIZKAIKO LH	GIPUZKOAKO LH
7/1983 FORU ARAUA, martxoaren 7koa, Arabako Lurralde Historikoko antolaketa instituzionalarena.	3/1987 FORU ARAUA, otsailaren 13koa, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko foru erakundeen hautapen, antolaketa, erregimen eta funtzionamenduari buruzkoa.	6/1990 FORU ARAUA, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Izatasunezko Ezaugarri buruzkoa.
15/1986 FORU ARAUA, uztailearen 4koa, Arabako Biltzar Nagusien aurreko herri-ekimen arau-gilea arautzen duena.	4/1985 FORU ARAUA, ekainaren 28koa, Herri-Ekimena arautzeari buruzkoa.	2/1994 FORU ARAUA, apirilaren 6koa, Foru Aldundian eta Gipuzkoako Batzarre Nagusietan publikitatearen hedapena erregulatzekoa.
15/1987 FORU ARAUA, urriaren 30ekoa, Ekonomia Jardueren eta Foru Zerbitzu Publiko deszentralizatuen Kudeaketari buruzkoa.	12/1986 FORU ARAUA, abenduaren 15ekoa, Bizkai-Lurralde Historikoaren nortasun-adierazgarri buruzkoa.	6/2005 FORU ARAUA, uztailearen 12koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoa.
61/1989 FORU ARAUA, azaroaren 20koa, Arabako Lurralde Historikoaren izendapen ofizialarena.	4/1989 FORU ARAUA, ekainaren 27koa, Bizkaiko Foru Aldundiko Ahaldu Nagusiaren, foru diputatuen, zuzendari nagusien eta sozietate publikoetako eta zuzenbide pribatuko beste erakunde publiko batzuetako zuzendaritzako kideen ordainsariak arautzen dituena.	5/2007 FORU ARAUA, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala arautzekoa.
52/1992 FORU ARAUA, abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege erregimenari buruzkoa.	1/2016 FORU ARAUA, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa.	7/2007 FORU ARAUA, apirilaren 10ekoa, Gipuzkoako Batzar Nagusietan herritarren arau ekimena arautzekoa.
14/1993 FORU ARAUA, maiatzaren 5ekoa, ikurrinari, Arabako lurralde historikoaren armariari eta foru aldundiaren komunikazio-logotipoari buruzkoa.	3/2017 FORU ARAUA, uztailearen 12koa, Bizkaiko udalek Bizkaiko Batzar Nagusien aurrean araugintzarako ekimenak gauzatzeko prozedura arautzen duena.	1/2010 FORU ARAUA, uztailearen 8koa, Herritarren partaidetzari buruzkoa.
17/1993 FORU ARAUA, maiatzaren 30ekoa, Arabako Foru Aldundiaren zigortze erregimena arautzen duena.		2/2011 FORU ARAUA, martxoaren 29koa, erakundeen publikitate eta komunikazio kanpainen kostuaren berri herritarrei ematea arautuko duena.
10/1995 FORU ARAUA, martxoaren		4/2011 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde

<p>ren 20koa, Arabako foru administrazioaren administrazio isiltasunaren jaurbideari buruzkoa.</p> <p>4/2000 FORU ARAUA, otsailaren 21ekoa, Arabako Foru Aldundiko, organismo autonomoetako eta foru sozietate publikoetako goi karguen eta behin-behineko langileen erregimena arautzen duena.</p> <p>13/2006 FORU ARAUA, azaroaren 20koa, Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofiziala Arautzekoari buruzkoa.</p> <p>7/2008 FORU ARAUA, otsailaren 18koa, Arabako Foru Aldundiko Jardueren erregistroa eta ondasun eta interesen erregistroa arautzen duena.</p> <p>17/2013 FORU ARAUA, apirilaren 22koa, Arabako Biltzar Nagusien Funtzionamendu Araudiari buruzkoa.</p> <p>1/2017 FORU ARAUA, otsailaren 8koa, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunarena, herritarren parte-hartzearena eta gobernu onarena.</p>		<p>Historikoaren foru sektore publikoaren eremuan jardueren erregistroa eta ondasun eta interesen erregistroa arautzekoa.</p> <p>4/2014 FORU ARAUA, otsailaren 6koa, gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzkoa.</p> <p>11/2014 FORU ARAUA, urriaren 29koa, erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak foru sektore publikoko kontratazioan txertatzekoa.</p>
---	--	--

Hala ere, udalen eta lurralde eremu txikiagoko toki-erakundeen hauteskunde-erregimenari dagokionez, lurralde-egitura berezia dutela kontuan hartuta, bakarrik aipa daiteke 1984ko uztailaren 30eko Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren Kontzejuen Errejidoreak eta Batzarkideak hautatzekoa.

Lurralde historikotik kanpo ez dauden udalerrietako eta udalerriz gaindiko mugei dagokienez, egun indarrean dauden honako arau hauek aipa daitezke:

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE-MAILA DESBERDINEN ESKUMEN
PROPIOEN ETA FINANTZAKETAREN AZTERKETA OROKORRA

ARABAKO LH	BIZKAIKO LH	GIPUZKOAKO LH
<p>62/1989 FORU ARAUA, azaroaren 20koa, Arabako Udal eta Kontzejuen Zerbitzu anaiarten eraketa-prozedura, lege erregimena eta funtzionamenduari buruzkoa.</p> <p>63/1989 FORU ARAUA, azaroaren 20koa, Kuadrillei buruzkoa.</p> <p>11/1995 FORU ARAUA, martxoaren 20koa, Arabako Lurralde Historikoko Herri Batzarrei buruzkoa.</p> <p>4/2011 FORU ARAUA, otsailaren 21koa, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen mugak, izena, hiriburua eta ezaugarriak arautzen dituena.</p>	<p>3/1995 FORU ARAUA, martxoaren 30koa, Bizkaiko udalez gaindiko eremuko erakundeak arautzen dituena.</p> <p>9/2012 FORU ARAUA, abenduaren 5koa, Bizkaiko Lurralde Mugapeei buruzkoa.</p>	<p>2/2003 FORU ARAUA, martxoaren 17koa, Gipuzkoako udal-mugapeak arautzen dituena.</p> <p>6/2007 FORU ARAUA, apirilaren 10koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko eremuko erakundeak arautzen dituena.</p>

Aurrekontu eta kontu propioak landu eta onesteari eta kreditu- eta finantza-eragiketei dagokienez, egun indarrean dauden honako arau hauek aipa daitezke:

ARABAKO LH	BIZKAIKO LH	GIPUZKOAKO LH
<p>64/1989 FORU ARAUA, azaroaren 20koa Tasa eta Prezio Publikoei buruzkoa.</p> <p>53/1992 FORU ARAUA, abenduaren 18koa, Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontu Erregimenari buruzkoa.</p> <p>11/2016 FORU ARAUA, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoko diru-laguntzena.</p>	<p>4/1990 FORU ARAUA, ekainaren 26koa, Bizkaiko Foru Administrazioaren Tasa, Prezio Publiko eta Bestelako Tributu Baliabideei buruzkoa.</p> <p>9/1990 FORU ARAUA, azaroaren 20koa, Bizkaiko Foru Aldundiko tasak ezartzekoa.</p> <p>5/2013 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duena.</p> <p>5/2005 FORU ARAUA, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena.</p>	<p>3/2007 FORU ARAUA, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikokoaren diru-laguntzei buruzkoa.</p> <p>4/2007 FORU ARAUA, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubidearena.</p>

Gorago aipatu bezala, lurralde historikoetako batzar nagusien arau ekoizpen nagusia Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 41. artikuluan eta Ekonomia Itunaren Legean esleitutako eskumen eskusiboak garatzeko eman diren tributu alorreko xedapenak izan dira. Azterlan honen ondorioetarako, hala ere, tokiko tributuen inguruan eman diren eta egun indarrean dauden araudi-xedapen hauek aipa daitezke:

ARABAKO LH	BIZKAIKO LH	GIPUZKOAKO LH
41/1989 FORU ARAUA, uztailearen 19koa, Toki Ogasunak Arautzen dituen.	9/2005 FORU ARAUA, abenduaren 16koa, Toki Ogasunei buruzkoa.	11/1989 FORU ARAUA, uztailearen 5koa, Gipuzkoako Hazienda Lokalen Erregulatzailer.
42/1989 FORU ARAUA, uztailearen 19koa, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzkoa.	7/1989 FORU ARAUA, ekainaren 30koa, Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergari buruzkoa.	12/1989 FORU ARAUA, uztailearen 5koa, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzkoa.
43/1989 FORU ARAUA, uztailearen 19koa, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzkoa.	8/1989 FORU ARAUA, ekainaren 30koa, Hiri-lurren balioaren gehikuntzaren gaineko Zergari buruzkoa.	14/1989 FORU ARAUA, uztailearen 5koa, Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzkoa.
44/1989 FORU ARAUA, uztailearen 19koa, Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzkoa.	10/1989 FORU ARAUA, ekainaren 30koa, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzkoa.	15/1989 FORU ARAUA, uztailearen 5koa, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzkoa.
45/1989 FORU ARAUA, uztailearen 19koa, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzkoa.	2/1992 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, martxoaren 17koa, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauaren testu bategina onartzen duena.	16/1989 FORU ARAUA, uztailearen 5koa, Hiri-lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergari buruzkoa.
46/1989 FORU ARAUA, uztailearen 19koa, Hiri-lurren balioaren gehikuntzaren gaineko Zergari buruzkoa.	3/2016 FORU ARAUA, maiatzaren 18koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzkoa.	1/1993 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, apirilaren 20koa, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren testu bategina onartzen duena.
	4/2016 FORU ARAUA, maiatzaren 18koa, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzkoa.	

Errepide eta bideen plangintza, proiektu, eraikuntza, kontserbazio, aldaketa, finantzaketa, erabilera eta ustiapenaren gainean, egun indarrean dauden honako arau hauek aipa daitezke:

ARABAKO LH	BIZKAIKO LH	GIPUZKOAKO LH
20/1990 FORU ARAUA, ekainaren 25ekoa, Arabako Lurralde Historikoko errepideei buruzkoa.	2/2011 FORU ARAUA, martxoaren 24koa, Bizkaiko Errepideei buruzkoa.	1/2006 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, ekainaren 6koa, Gipuzkoako Errepide eta Bideen arauaren Testu Batera-tua onartzen duena.
6/1995 FORU ARAUA, otsailaren 13koa, Araba Lurralde Historikoko Landabideen Erabilera, Artapen eta Zaintzarakoa.	6/1998 FORU ARAUA, ekainaren 30ekoa, Foru aldundiaren aginpidepeko errepideak eta beste azpiegitura batzuk foruzko herri-sozietateen bitartez egiteko edota ustiatzeko agindutakoetarako oinarritzko arauak jarten dituana.	1/2007 FORU ARAUA, urtarrilaren 24koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideei buruzkoa.
1/2012 FORU ARAUA, urtarrilaren 23koa, Arabako Lurralde Historikoko ibilbide berdeei buruzkoa.	12/1998 FORU ARAUA, abenduaren 21ekoa, baimendutako lanak ikuskatu eta kontrolatzearen tasea jarri eta arautzen dauana.	1/2011 FORU ARAUA, martxoaren 29koa, salgaiak garraiatzen dituzten ibilgailu astunei Gipuzkoako Lurralde Historikoko bide azpiegiturak erabiltzeagatik aplikatu beharreko karga zehazteko irizpideak ezartzekoa.
4/2010 FORU ARAUA, martxoaren 8koa, Arabako Lurralde Historiko bizikleta bideei buruzkoa.	8/1999 FORU ARAUA, apirilaren 15ekoa, Bizkaiko Errepideen Arlokako Lurralde-Egitamua onartzen duena.	2/2013 FORU ARAUA, ekainaren 10ekoa, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala behin betiko onartzekoa.
	3/2010 FORU ARAUA, urriaren 26koa, Bizkaiko errepideetako bidesarien araubide juridikoari eta errepideen Lurralde Plan Sektoriala aldatzeko finantziario irizpideei buruzkoa.	7/2016 FORU ARAUA, abenduaren 15ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko A-15 eta N-I gaitasun handiko errepideetan, zati jakin batzuk erabiltzeagatik ordainduko den kategoria arautzen duena.
	10/2014 FORU ARAUA, ekainaren 27koa, Bizkaiko bizikleta-bideei buruzkoa.	

Mendien, aprobetxamenduen, baso-zerbitzuen, abelbideen eta larreen; basozaintzaren eta nekazaritza- eta baso-lurrak kontserbatu eta hobetzearen inguruan, egun indarrean dauden honako arau hauek aipa daitezke:

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE-MAILA DESBERDINEN ESKUMEN
PROPIOEN ETA FINANTZAKETAREN AZTERKETA OROKORRA

ARABAKO LH	BIZKAIKO LH	GIPUZKOAKO LH
11/2007 FORU ARAUA, martxoaren 26koa, Mendiei buruzkoa.	3/1994 FORU ARAUA, ekainaren 2koa, Mendiei eta Babespeko Naturguneen Administrazioari buruzkoa. 11/1997 FORU ARAUA, urriaren 14koa, Euskal Herriko basoko espeziei buruzko araubide zehatzarena. 7/2012 FORU ARAUA, urriaren 31koa, honen bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Iraunkortasunerako Kontseilua sortzen da; haren osaera eta funtzionamendua arautzen da, eta Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutua azkentzen da.	7/2006 FORU ARAUA, urriaren 20koa, Gipuzkoako Mendi-ena.

Bestetik, betearazi behar dituzten eskumenen barruan, lurralde historikoei dagokienez euren zerbitzuak antolatzeko ahalmena, egun indarrean dauden honako arau hauek aipa daitezke:

- Gizarte-laguntzaren arloan:

ARABAKO LH	BIZKAIKO LH	GIPUZKOAKO LH
21/1988 FORU ARAUA, ekainaren 20koa, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea izeneko erakunde autonomoa eratze-koa.	3/1998 FORU ARAUA, otsailaren 9koa, Bizkaiko Gizarte Ongizateko Lurralde Kontseiluaren sortze, osakera eta jarduera- jaurpideari buruzkoa. 4/2001 FORU ARAUA, maiatzaren 30ekoa, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen estatutuak aldarazteari buruzkoa. 11/2005 FORU ARAUA, abenduaren 16koa, inoren laguntza behar duten adinekoentzako egoitzen foru zerbitzu publikoa arautzen duena.	12/2014 FORU ARAUA, azaroaren 6koa, zeinaren bidez, sortzen baita "Kabia" izeneko foru organismo autonomoa, gizarte zerbitzuak kudeatu, eman eta gauzatzeko.

- Suteen aurkako babesaren arloan:

ARABAKO LH	BIZKAIKO LH	GIPUZKOAKO LH
16/2010 FORU ARAUA, abenduaren 20koa, prebentzio, su itzaltze eta salbamendu zerbitzua ezarri, hobetu edo handitzeko Arabako Foru Aldundiaren kontribuzio berezia arautzen duena.	9/1993 FORU ARAUA, irailaren 23koa, su itzaltze eta salbamenduen zerbitzua ezarri eta zabaltzeagatiko kontribuzio berezia araupetu duena.	
8/2016 FORU ARAUA, uztailearen 13koa, Arabako Suhiltzailak Erakunde Autonomoa (Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua) eratzen duena.		

Bestalde, lurralde historikoetako foru-organismoek euren udalerrien gainean dituzten finantza-tutoretzako ahalmenen inguruan, zenbait gairen gainean eman dira arauak, adibidez:

- Toki-erakundeen finantzaketaren arloan:

ARABAKO LH	BIZKAIKO LH	GIPUZKOAKO LH
29/1996 FORU ARAUA, azaroaren 20koa, Arabako Tokiko Administrazio eta Finantzen Lurralde Kontseilua osatzen eta arautzen duena.	4/1996 FORU ARAUA, ekainaren 26koa, Bizkaiko Finantzetako Lurralde Kontseilua eratzeko dena.	15/1994 FORU ARAUA, azaroaren 23koa, Udal Finantzaketarako Foru Fondoa arautzeko dena.
19/1997 FORU ARAUA, ekainaren 30ekoa, Arabako toki-erakundeen finantzaketarako foru-funtsa arautzen duena.	9/2005 FORU ARAUA, abenduaren 16koa, Toki Ogasunei buruzkoa.	16/1994 FORU ARAUA, azaroaren 24koa, Gipuzkoako Finantzetako Lurralde Kontseilua eratzeko dena.

- Toki-erakundeen aurrekontu-erregimenaren arloan:

ARABAKO LH	BIZKAIKO LH	GIPUZKOAKO LH
3/2004 FORU ARAUA, otsailaren 9koa, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzkoa.	10/2003 FORU ARAUA, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.	21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

- Toki-erakundeen aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arloan:

ARABAKO LH	BIZKAIKO LH	GIPUZKOAKO LH
38/2013 FORU ARAUA, abenduaren 13koa, Arabako Toki Erakundeen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.	5/2013 FORU ARAUA, ekainaren 12koa, Bizkaiko Toki Erakundeen aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.	1/2013 FORU ARAUA, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren alorretan finantza-tutoretzaren esku-mena garatzen duena.
4/2015 FORU ARAUA, otsailaren 11koa, Arabako Lurralde Historikoan toki administrazioetan arrazionalizatzeko eta iraunkortasunerako neurriak aplikatzeko duen foru berezitasunari buruzkoa.		13/2014 FORU ARAUA, azaroaren 17koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa.

Hala ere, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren inguruko arauak baino ez daude indarrean Arabako Lurralde Historikoan, esaterako:

- 14/1997 FORU ARAUA, apirilaren 24koa, Obra eta zerbitzuetako foru-plana eta Arabako Foru Aldundiaren toki-erakundeen obra eta zerbitzuetan laguntzeko bestelako tresnak arautzekoa.
- 21/2013 FORU ARAUA, ekainaren 27koa, Auzo Harremanak sustatzeko ekimenetarako eta Arabako Toki Erakundeetan Obra Txikiak gauzatzeko laguntza programak arautzen dituena.
- 39/2013 FORU ARAUA, abenduaren 13koa, zeinak Arabako toki erakundeen obra eta zerbitzuen foru planean sartzen diren obrak finantzatzeko aparteko funtsa (OFAF) arautzen baitu.
- 9/2017 FORU ARAUA, apirilaren 12koa, Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duena (2018-2023).

Are gehiago, dokumentu honen eranskinetan, Batzar Nagusiek onetsi dituen arauak zerrendatu dira (gaur egun indarrean daudenak), baldin eta eragina badute LHLn aurreikusi ziren lurralde historikoen eskumenetan (III. eranskina) eta ETELen aurreikusi ziren toki-erakundeen eskumen propioetan. (IV. eranskina).

Azken finean, arau horiek guztiek, bestelako erregelamendu-xedapen batzuekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-mailen eskumen-multzoa osatzen dute.

Egia esan, azaletik baino azaldu ez dugun eskumen-multzo hori erakunde-maila bakoitzaren gastuaren izaerarekin, berorren egokitzapenarekin eta nahikotasunarekin jarri behar da harremanetan. Baina, azterlanaren hitzaurrean aipatu bezala, modu orokorrean egin behar da. Hori dela-eta, kapitulu honen edukia nahitaez lotu behar da gastuaren analisi funtzionalaren ingurukoarekin, egiaztatzeko sektore instituzional bakoitzaren gastua bat datoren eta egokia den egun indarrean dagoen eta azaldu den eskumen-banaketarekin. Horrela, ondore sistematikoetarako, nahiago izan da konparazio hori 5.3 atalean egin (gastu bateratuen analisi funtzionala), bertan kuantifikatzen baita hiru erakunde-mailen gastua eta funtzio bakoitzaren garrantzia (programa-taldean arabera), baita gastu horrekin betetzen diren eskumenak ere.

**3. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE-
MAILEN FINANTZAKETA SISTEMAREN OINARRIZKO
EZAUGARRIAK**

3. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE-MAILEN FINANTZAKETA SISTEMAREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK

Orokorrean, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-mailen arteko eskumen banaketa sistemarekin gertatzen den bezala, erakunde-maila desberdinen finantzaketa ere honako arau hauek mugatzen dute:

- 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena.
- 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremanei buruzkoa.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

Dena den, arau horiekin batera, eremu horretan duten garrantziagatik, Ekonomia Ituna eta EAEko erakundeen finantzaketa sistemaren indarraldiko hogeita hamabost urteetan onartutako foru-aldundiek EAEko aurrekontu orokorrak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak eta baliabideen banaketaren metodologia legeak aipatu behar dira

Aurreko kapituluan azaldu bezala, Euskal Autonomia Erkidegoak, EAEko Autonomia Estatutuaren bidez, eskumen batzuk hartzen ditu bere gain, eta horiek egikaritzeko, Ekonomia Itunetik datorren finantzaketa erregimen berezia dauka.

Izan ere, 41. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita, Estatuaren eta EAEren arteko tributu-erlazioak tradiziozko foruetako Ekonomia Itunaren edo hitzarmenen bidez arautzen dira; itun araubide hori Espainiako Gorte Nagusiek onartu behar dute lege bidez, honako printzipio edo oinarri hauek kontuan izanda (41.2 artikulua):

- a. Lurralde historikoetako erakunde eskumendunek tributu-araubidea mantendu, ezarri eta arautu ahal izango dute beren lurraldean, Estatuako zerga-egitura orokorrari, koordinaziorako, zerga-harmonizaziorako eta Estatuarekiko lankidetzarako ekonomia-itunak berak jaso ditzan arauari eta Autonomia Erkidegoaren

barruan helburu horiexetarako Eusko Legebiltzarrak ematen ditza-nei loturik.

- b. Foru-aldundi bakoitzak ordainaraziko, kudeatuko, kitatuko, bil-duko eta ikuskatuko ditu zerga guztiak nork bere lurralde histori-koaren barruan, muga-zergari dagozkionak, eta gaur egun zerga-monopolioen bidez biltzen direnak ezik, betiere Estatuarekiko lan-kidetzari eta bere goi-ikuskaritzari kalterik egin gabe.
- c. Lurralde historikoetako erakunde eskumendunek behar bezalako erabakiak hartuko dituzte Estatuak lurralde arruntean ezartzea erabaki dezan salbuespenezko eta unean uneko zerga-arauak zei-nek bere lurraldean ezartzeko, arauok indarraldi berbera izango dutelarik.
- d. Euskal Herriak Estuari egingo dion ekarpena guztizko kupo bat izango da, lurralde bakoitzari dagokionaz osatuta, Autonomia Erki-degoak bereganatu gabeko Estatuaren betebeharrak guztietarako ekarpen gisa.
- e. Aipatutako guztizko kupoa osatzen duten lurralde historiko bakoitzari dagokion kupoa finkatzeko, Batzorde Misto bat sortuko da, alde batetik, Foru Aldundi bakoitzaren ordezkari bana eta Eusko Jaurlaritzaren beste horrenbestez osatuta, eta, bestetik, Estatuaren Administrazioaren ordezkari-kopuru beraz. Horrela adostutako kupoa lege bidez onartuko da Itunean zehaztuko den aldizkakota-sunez, eta Itunean bertan ere finkatutako prozedura jarraituz ur-tero eguneratuko da.
- f. Konstituzioaren 138. eta 156. artikuluetan aipatzen den elkartasun-irizpidearekin bat aplikatuko da Itun-araubidea.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko erakunde-arauaren 40. artikuluan ezarri legez, eskumenak behar bezala egikaritu eta finantzatzeko, EAEk ogasun autonomo propioa izango du, eta 42. artikuluan, EAEko Ogasun Orokorraren diru-sarrerak zerrendatzen ditu larregi zehaztu gabe. Hona hemen:

- Foru-aldundiek egindako ekarpenak, lurralde historikoek Euskal Herriaren aurrekontu-gastuetarako emandako laguntza direnak.
- Eusko Legebiltzarrak ezarritako Euskal Herriko zerga propioen emaitza, Konstituzioaren 157. artikuluan eta Autonomia-Erkidegoen Finantzaketarako Lege Organikoan agindutakoarekin bat.
- Lurralde arteko Konpentsazio Funtsetik egindako transferentziak⁷ eta Estatuko Aurrekontu Orokorren kontura egindako beste asignazio batzuk.
- Bere ondareak ematen dituen etekinak eta zuzenbide pribatuko diru-sarrerak.
- Kreditu-eragiketen eta zor-jaulkipenen emaitza.
- Konstituzioan eta Estatutu honetan erabakitakoaren arabera finkatu litezken beste diru-sarrerak.

Eta foru aldundien ekarpenei dagokienez, honelaxe dio 42. artikulua: Eusko Legebiltzarraren lege batek finkatuko ditu banaketa zuzenerako irizpideak eta, irizpideon arabera, lurralde historiko bakoitzaren ekarpenak adostu eta gauzatzeko erabiliko den prozedura.

Ondore horietarako, Autonomia Erkidegoko Erakundearen eta haren Lurralde Historikoen Foru Organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legean (LHL) EAEko Ogasun Nagusia eta lurralde historikoetako foru ogasunak antolatu ziren, eta kapitulu oso batean, bion arteko baliabide banaketa arautu zen.

Horrela, Lurralde Historikoen Legearen 17. artikuluan jasotakoaren arabera, EAEko Ogasun Orokorrek EAEko erakunde komunei dagozkien eskumen guztiak behar bezala egikaritzeko eta finantzatzeko, honako baliabide hauek ditu, lege horren arabera honela sailkatuta:

⁷ 1990etik, EAEk Lurralde arteko Konpentsazio Funtzari ekarpenak egiten dizkio nahitaez.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO OGASUN NAGUSIAREN OHIKO DIRU-SARRERAK:

- a) Foru aldundiek lege honetan xedatutakoaren arabera egindako ekarpenak.
- b) Eusko Legebiltzarrak jar ditzakeen Autonomia Erkidegoaren berezko zergetatiko etekinak, baita itundutako tributuen gainean Eusko Legebiltzarrak ezar ditzakeen gainordainak ere.
- c) Erakunde komunei dagozkien jabari publikoko ondasunak erabiltzeagatiko tasak eta euren eskumeneko jarduerak egin edo partikularrei onurak dakarzkieten edo eurengan eragina duten jarduerak egiteagatiko tasak.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoak herri-lanak egin izanaren edo zerbitzu publikoak ezarri edo areagotu izanaren ondorioz ezar daitezzen kontribuzio bereziak, hala badagokio.
- e) Autonomia erkidegoko erakunde komunek euren eskumenen esparruan ezarritako isunak edo zehapenak.
- f) Lurralde arteko Konpentsazio Funtsetik⁸ egindako transferentziak eta Estatuko Aurrekontu Orokorren kontura egindako beste asignazio batzuk eta beste erakunde publikoetako transferentziak.
- g) Bere ondareak ematen dituen etekinak edo izaera zuzenbide pribatuko diru-sarrerak.
- h) Konstituzioan eta Autonomia Estatutuan erabakitakoaren arabera finkatu litezkeen beste diru-sarrerak.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO OGASUN NAGUSIAREN APARTEKO DIRU-SARRERAK:

- a) Inbertsio errealen besterentzea.
- b) Finantza-aktiboen aldaketa.
- c) Zorpetzeagatiko diru-sarrerak eta finantza-pasiboen gainerako aldaketak.

⁸ 1990etik, EAEk Lurralde arteko Konpentsazio Funtzari ekarpenak egiten dizkio nahitaez.

LHLren 18. artikulua arabera, berriz, lurralde historikoetako foru ogasunek, foru organoei dagozkien eskumen guztiak behar bezala egikaritzeko eta finantzatzeko, honako baliabide hauek dituzte, lege horren arabera honela sailkatuta:

FORU OGASUNEN OHIKO DIRU-SARRERAK:

- a) Lurralde historikoek Ekonomia Itunagatik lortzen dituzten zergen eta tasa fiskal guztien etekinak.
- b) Lurralde historikoko jabari publikoko ondasunak erabiltzeagatik ordaindu behar diren tasak eta euren eskumeneko jarduerak egin edo partikularrei onurak dakarzkieten, edo eurengan eragina duten, jarduerak egitegaitako tasak.
- c) Foru-aldundiek ordainarazten dituzten toki-ogasunen zerga propioen etekina eta, Ekonomia Itunaren 46. artikuluan xedatutakoaren arabera, beren lurraldeko toki-korporazioei dagozkien tributu-sarreretan dituzten partaidetzak. Hori guztia LHLren 22. artikulua 7. atalean ezarritakoak diru-sarreretan duen eragina kontuan izanda.
- d) Errekarguen, arielen eta lehen aipatutako a), b) eta c) letretako zergen inguruan ezarritako, edo ezar daitezkeen, bestelako probintzia baliabideen onurak.
- e) Bere ondareak ematen dituen etekinak eta zuzenbide pribatuko diru-sarrerak.
- f) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta bestelako erakunde publikoen aurrekontuen konturako transferentziak eta bestelako esleipenak.
- g) Konstituzioan eta Autonomia Estatutuan erabakitakoaren arabera finkatu litezkeen beste diru-sarrerak.

FORU OGASUNEN APARTEKO DIRU-SARRERAK:

- a) Inbertsio errealeen besterentzea
- b) Finantza-aktiboen aldaketa.
- c) Zorpetzeagatiko diru-sarrerak eta finantza-pasiboen gainerako aldaketak.

LHLk ez ditu soilik EAEko Ogasun Orokorraren eta lurralde historikoen foru ogasunen ohiko diru-sarrerak eta apartekoak zehazten. Horrez gain, EAEk eta berori osatzen duten lurralde historikoek -Autonomia Estatutuaren, lege horren xedapenen eta aplikatu beharreko gainerako legeen esparruan- beren eskumenak egikaritzeko finantza eta aurrekontu autonomia dutela, (14.1 artikulua) eta lurralde historikoen eta euren sektore publikoaren finantza jarduera EAEko Ogasun Orokorrarekiko koordinazioan egikaritzeko dela (14.2 artikulua) aintzatetsi eta gero, 16. artikuluan xedatzen du lurralde historikoek beren gain hartu ez dituzten EAEko karga orokor guztiei aurre egiteko ekarpenak egingo dituztela, eta horretarako, foru aldundiek ekarpenak egingo dizkiotela EAEko Ogasun Orokorrari, LHLn jasotakoarekin bat eginda. Ekarpene horiek formulatzeko, 20. artikulutik 29.era arautzen da EAEko Ogasun Orokorraren eta foru ogasunen arteko baliabide banaketa.

LHLren 20. artikulua araberak, Ekonomia Ituna kudeatzearen ondoriozko diru-sarrerak, estatuari ordaindu beharreko kupoa kendu ondoren, EAEko Ogasun orokorraren eta lurralde historikoetako foru ogasunen artean banatuko direla aurreikusten du, eta foru ogasunok Ogasun orokorrari egin beharreko ekarpenak zehaztuko direla.

Hortaz, Ekonomia Ituna kudeatzearen ondoriozko errendimenduak (baita, dagokion zenbatekoan, zerga diru-sarrerek sortutako interesak) baino ez dira banatzen. Izan ere, Ogasun Orokorraren eta foru ogasunen gainerako ohiko diru-sarrerak eta apartekoak libreki baliatzeko baliabideak dira, zerbitzu eta eskumen propioak finantzatzeko.

Eta 22. artikulua ezartzen ditu foru aldundiek egin beharreko ekarpenak zehazteko arauak eta printzipioak:

- Baliabideen banaketa eta lurralde bakoitzaren ekarpenen kalkulua Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluan erabakiko da.
- Baliabideak erakunde komun en eta lurralde historikoetako foru organoen eskumenen edota zerbitzuen arabera banatuko dira indarreko ordenamendu juridikoarekin bat etorrita.
- Bere eskumeneko zerbitzuak direla-eta gobernuari esleitutakoaz gain, gobernuari unean-unean egoki iritzitako esleipenak egingo zaizkio EAEn errenta eta aberastasuna norbanakoen artean eta lurraldeka birbanatzeko plangintza, sustapen eta garapen politikak egiteko eta, orokorrean, EAeko egonkortasun politiko eta ekonomikoa bermatzeko neurriak hartzeko.
- Aurrekontuen nahikotasun-printzipioa abiapuntu, biztanleko batez besteko gastu arrunt orokorrari buruzko berdintasunezko eta elkartasunezko politika bilatzen duten irizpideak eta moduluak erabiliko dira; Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak, iragankortasunez, ikus ditzakeen salbuespenak kontuan izaki.
- Zerga ahalegina pizten duten eta gastu arrunten hazkundearen moderazioa sustatzen duten irizpideak hartuko dira.
- Foru-aldundien ekarpena, funtsean, lurralde historiko bakoitzaren errentarekiko proportzio zuzenean zehaztuko da. Halaber, lurralde historiko bakoitzaren ahalegin fiskalaren eta EAE osoaren batez besteko ahalegin fiskalaren arteko alderantzizko proportzioan haztatu beharko da. Ondorio horietarako, tributu-kontzeptu guztiengatik (udal-ordainarazpen zuzenekoak barne) urte batean bildutako zenbatekoen eta urte horretako errentaren arteko erlazioa adieraziko du ahalegin fiskalak.
- Behar den moduan kontuan izango da Ogasun orokorraren eta foru ogasunen gainerako ohiko eta aparteko diru-sarreraren zenbatekoa, Ekonomia Itunaren kudeaketatik eratorritako baliabideen banaketan printzipio horiek eraginkorrako eta hobeto aplikatu daitezkeen.
- Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak onartu behar du baliabideen banaketarako eta Lurralde Historiko bakoitzak Euskal Autonomia Erki-

degoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko metodologia. Metodologia hori, gutxienez, hiru aurrekontu-ekitaldian egongo da indarrean, baldin eta, Kontseiluaren iritziz, salbuespen-egoeraren bat gertatzen ez bada, horrelakoetan, indarraldi hori urtebetera edo bi ekitaldira mugatzea erabaki daitekeelako.

- Eusko Jaurlaritzak, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak ontzat emandako metodologia hori jasota, dagokion lege-proiektua bidaliko dio Legebiltzarrari, hark onar dezan. Proiektu hori artikulua bakarreko legea izango da.

Horri dagokionez, garrantzitsua da eskumenen eta finantzaketaren arteko lotura azpimarratzea, izan ere, 24.1 artikulua arabera, EAEko erakunde komunei eta lurralde historikoetako foru organoei egotzitako gastuen zenbatekoak baliagarriak dira soilik gaitasun finantzario bateratuaren banaketaren ondorioetarako, eta erakunde bakoitzak aurrekontu politika propioa gara dezake finantza potentzial horrekin eta hari dagozkion aparteko diru-sarrerekin, eta libreki erabaki dezake inbertsioen zenbatekoa eta bere eskumeneko zerbitzu publikoen prestazio-maila, baliabideak ondo iritzitako moduan berresleituz. Horrenbestez, finantzaketa globala eta baldintzarik gabekoa da erakunde-maila bi horientzat.

Hortaz, horiek dira Ogasun Orokorraren eta foru ogasunen arteko baliabide banaketa zuzentzen duten arau eta printzipio orokorrak. Kontuan harturik eskumen edota zerbitzu berriak transferitzearen ondorioz gerta daitezkeen aldaketak (23. artikulua) edo 24. artikuluan xedatutako berezitasunak.

Hortaz, eta labur-labur, Euskadiko instituzio publikoen artean banatu beharreko baliabideak Ekonomia Itunaren kudeaketak sortutakoak dira, behin Estatuari kupo moduan ordaindu behar zaion zenbatekoa kendu eta gero. Baliabideak erakunde komunen eta lurralde historikoetako foru organoen eskumenen edo/eta zerbitzuen arabera banatuko dira, indarreko ordenamendu juridikoarekin bat etorrita. Erakunde komunen eta foru erakundeen arteko baliabide banaketa horrek banaketa bertikala du izena.

Itundutako tributuen bilketa, Ekonomia Itunaren arabera, foru-aldundiei dagokie. Horrek EAEko Ogasun Orokorrerako noranzkoa duten finantza fluxuak egotea dakar, eta fluxuok aldundiek EAEko aurrekontu gastuei egiten dizkieten ekarpenak dira. Lurrealde historikoen arteko ekarpen banaketak banaketa horizontala du izena.

Banaketa eredia partekatutako arriskuaren irizpidearen arabera da eta finantza-erlazioak, funtsean, geroago ikusiko den moduan ETEL indarrean jarri arte gutxienez, alde bikotasunez gauzatzen dira gorago aipatutako bi erakunde-mailen artean: erakunde komunak eta lurrealde historikoetako foru organoak.

Toki-erakunde finantzaketari dagokionez, ETELe hiru garren erakunde-mailaren finantzaketa sistema osatu du modu estrukturalan, eta aurreko egoerarekiko berritasun gutxi ekarri arren, eta osorik egin ez arren (foru arauetara jo behar da horretarako), erakundeon baliabideen inguruko eskumen esparruari segurtasun dosi dezente ematen dizkio. Horrez gain, EAEko toki-ogasunen jarduketa printzipio orokor batzuk gehitzen ditu; printzipio horiek, garrantzitsuak izango dira finantza-nahikotasunak erakunde horien eskumen propioetan duen eragina interpretatzeko. Alor honetan ETELen mugarri garrantzitsuenak zeintzuk diren berriz errepikatzeko lekua hau ez bada ere (azkenaldian hainbat lanek jorratu dutelako hori), aitortu beharra dago, orokorrean, tokiko mailaren protagonismoa biderkatu egin dela finantzaketa erabakitzeko esparruetan, Aurrerantzean, tokiko mailan eskumenak ematerakoan, leialtasun instituzionalaren printzipioak erabili beharko dira; eta, badira tokiko mailako udal finantzaketaren ezaugarriak betiko aldatuko dituzten berritasun ekonomikoak.

ETELen dagoen Euskadiko tokiko finantzaketa sistema deskribatu baino lehen, beharrezkoa da gogoratzea Ekonomia Itunak eta LHLk berak finantzatutoretzako elementuak biltzen dituztela toki-erakundeek izan beharreko nahikotasunari eta beren baliabideekiko nolabaiteko bermeari dagokionez. Horrela, EAEko tokiko finantzaketa sistemaren ildo batzuk LHLn daude dagoeneko.

Arauaren bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, foru-aldundiek legearen araberrako finantza-tutoretzako ahalmenak dituzte euren udalerrien gainean; esan bezala, foru-aldundiek bermatu behar dute araubide komuna erabiliz udalei legezkiekeenak baino baliabide gutxiago ez zaiela emango, eta banaketa Ekonomia Itunaren 46. artikulua xedatutako irizpideekin bat etorrira egingo da. Tokiko inbertsio eta ekipamendu beharria aurre egiteko, obra eta zerbitzuen foru planentzako zuzkidurak egingo dituzte euren aurrekontuetan foru aldundiek.

Hortaz, foru-aldundiei dagokien esleipen ekonomikoaren eta finantza-tutoretzaren eredu honekiko koherentziaz, eta Ekonomia Itunaren 48.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira⁹, eta EAEko Ogasun Orokorra foru organoekin eta toki-erakundeen ogasunekin guztiz artikulatzeko, arau-esparruak udal eremura hedatu ditu erakunde komunen eta foru erakundeen arteko finantzaketa irizpide orokorrak. Irizpide horiek, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluko akordio bidez zehaztu beharko dira.

Foru-aldundiek egikaritzen duten udalerrien finantza-tutoretzak, nolabait, euren finantzaketa sistema egituratzen du, hau da, toki-ogasunen gaineko foru arauak¹⁰ tokiko sektore publikoaren finantza jardueraren arau esparrua zehazten dute eta udalen finantza-nahikotasunaren eta finantza-autonomiaren printzipioak eraginkortasunez gauzatzea xede duen finantza-sistema antolatzen dute.

Gaur egun, toki-ogasunen foru arauak hiru baliabide motatan oinarritzen den udal diru-sarreren sistema ezartzen dute:

- *Tokiko tributuak, zergak, tasak eta kontribuzio bereziak bereizita*

Gaur egun, bost udal-zerga daude; horietatik, bi hautazkoak (Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga eta Hiri-lurren balioaren gehikuntzaren

⁹ Ekonomia Itunaren 48.5 artikuluan ezarri legez: Estatuak une oro toki-erakundeei dagokienez gauzatzen dituen finantza-tutoretzarako eskumenak EAEko Erakunde eskudunen ardura izango dira. Horrek ez du esanahi, inolaz ere, EAEko toki-erakundeek araubide erkidekoek baino autonomia gutxiago dutenik.

¹⁰ Zehazki, Toki Ogasunak arautzen dituen azaroaren 27ko Arabako 41/1989 Foru Araua, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko Bizkaiko 9/2005 Foru Araua eta Gipuzkoako Hazienda Lokalen uztailaren 5eko 17ko 11/1989 Foru Araua Erregulatzaila. Arau horiek autonomia-printzipioa eta udalen finantza-nahikotasunaren printzipioa eraginkortasunez gauzatzea xede dituen finantza-sistema antolatzen dute.

gaineko zerga) dira. Aldiz, Ondasun Higiezin gaineko Zerga, Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zerga eta Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga nahitaez kobratu behar dira¹¹.

Tasak eta kontribuzio bereziak lurralde historikoetako foru-organoek onartutako araudien bidez daude araututa.

- *Tributuetatik ez datozen baliabideak edo zuzenbide pribatukoak.*

Toki-erakundeek, muga eta baldintza zehatz batzuekin, inbertsio gastuak finantzatzeko ez diren kasuetarako kreditua eskura dezakete (defizita estaltzea beren aurrekontuak likidatzerakoan eta, muturreko egoeretan, betebehar- eta larrialdi-zioengatik, gastu arruntak finantzatzea aurrekontuak aldatzeko espedienteen bidez). Halaber, bestelako diru-sarrera batzuk lor ditzakete prezio publikoetatik, euren ondare edo zuzenbide pribatutik, edo baita euren eskumeneko isun eta zehapenetatik etor daitezkeenak ere.

- *Toki-erakundeen parte-hartzea itundutako tributuetan*

Azken diru-sarrera honek toki-erakundeen finantza-nahikotasuna osatzen du, eta foru-aldundien itundutako tributuen diru-bilketa likidoaren gaineko partaidetzaren portzentaje baten bidez gauzatzen da. Izatez, euren baliabide iturri nagusietako bat da.

Indarrean dagoen ekarpenen 2/2007 Legearen arabera, Lurralde historikoetako foru-organoak, Ekonomia Itunear eta LHLn onartuta dituzten eskumenak ere baztertu gabe, partekatutako arriskuaren irizpidez baliatuko dira lurralde historikoei dagozkien zerga itunduetan toki-erakundeen parte-hartzea urtero ezartzeko garaian (laugarren xedapen gehigarria).

Toki-erakundeek Ekonomia Itunaren kudeaketatik datozen baliabideetan duten partaidetzari dagokionez, Ekarpenen 2/2007 Legeak gomendatzen du foru-organoek euren menpeko toki-erakundeei, itundutako zergen bidez

¹¹ Eta beraz, ez da beharrezkoa ezartzeko erabakirik, salbu eta zergaren elementuetako aldatzeko asmorik dagoenean.

egindako bilketaren parte hartzeagatik, gutxienez, espresio honen % 54,70 bideratzea¹²: [RDi – Dfi]¹³.

ETELek ez du aldatu, ez eta gogora ekarri ere (are gutxiago arautu), EAEko toki-erakundeen diru-sarrerren egoeraren egitura ekonomiko hau. Eta gaur egun indarrean dagoena da, nahiz eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak printzipio eta arau batzuk ezarri dituen udalerrien eta gainerako toki-erakundeen finantzaketari dagokionez, itundutako tributuetan duten partaidetza modu esplizituan lehenengoz arautuz:

Toki-ogasunek parte hartu ahal izango dute Kontzertu Ekonomikoa dela-eta lurralde historikoek eskuratzen dituzten tributuen etekinetan, behin etekin horietatik kendu ondoren bai Estatuari ordaindu beharreko kupoa, bai Autonomia Erkidegoari egin beharreko ekarpena, nola eta, baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenen zehaztapenerako metodologia definitzen duen legean, une bakoitzean indarrean dagoen bertsioan, aipatzen den eran. (117.1. artikulua)

Lurralde historiko bakoitzean, toki-erakundeek zenbateko parte-hartzea izango duten zehaztea lurralde historikoko foru-organoen eskumena da, eta, ondorioz, organo horiek askatasun osoz baliatuko dute eskumen hori, foru-arauetan aurreikusitakoarekin eta, hala dagokionean, artikulua honetako hurrengo apartatuetan zehaztutakoarekin bat etorrira (118.1 artikulua).

Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak, aurrekontu-egonkortasunaren arloan dituen eskumenak baliatuz eta udalerrien finantza-egonkortasuna bermatzeko, politika fiskaleko gomendio gisa baino ez, banaketa egiteko irizpide batzuk zehaztu ahal izango ditu. Irizpide horiek aintzat hartuko dituzte finantza-nahikotasunaren eta partekatutako arriskuaren printzipioak, eta ahalegin

¹² Baliabideak banatzeko indarreko metodologiaren arabera, ehuneko bertikala % 70,04 da, baina 2002-2006 bosturtekoan % 70,44 zen. Murrizketa (lau hamarren) toki-erakundeen partaidetza handitzera zuzendu zen erabat, Ekonomia Itunaren kudeaketatik datozen diru-sarreretan duten partaidetza handituz; horretarako, aholkuen arabera zehaztutako partaidetza minimoa aldatu da (lehen % 53 zen; ordain, ordea, % 54,70).

¹³ Kontzeptu horiek Ekarpenen 2/2007 Legearen xedapen gehigarrietako laugarrenean zehazten dira.

fiskala sustatzen eta gastu arruntari buruz berdintasunezko eta elkartasunezko politika lortzen saiatzea izango dute helburu (118.2 artikulua).

Dena dela, aurreko apartatueta xedatutakoa gorabehera, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak, erabaki bidez, udalerriek itundutako tributuetan izango duten gutxieneko parte-hartzea zenbatekoa den finkatuko du. (118.5 artikulua)¹⁴.

Halaber, eta finantzaketa iturrien gaiarekin amaitzeko (ez eredia bera, udal diru-sarrerren iturri guztiekin), Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak hauxe ezartzen du: Udalerrien eta gainerako toki-erakundeen parte-hartzea itunpekoak ez diren tributuengatik diru-sarreretan, Ekonomia Itunean eta aplikatzekoak diren foru-arauetan xedatutakoaren arabera egingo da (121. artikulua).

Bestela esanda, ETELeK, praktikan, udalerrien eta gainerako toki-erakundeen finantzaketari buruzko kapituluan baino ez du jorratzen erakundeok itundutako tributuen etekinetan duten parte hartzea, parte-hartze horren nondik-norakoa eta zenbatekoa zehazteko arau eta irizpide oso zehatzak emanez.

Hasiera puntu gisa, udalen eskumen propioak, 17.1 artikuluan dauden gaien sektoreko araudiak aitortzen dituenak, dagokien finantzaketa dute, txosten honen helburua den ETELen Lehen Xedapen Iragankorreko hirugarren apartatuan xedatzen den analisitik eratorritako aldaketak kontuan izanda.

Hemendik aurrera, udalen finantzaketa nahikoa ziurtatzeko beharrezko baliabideen zuzkidura duen berariazko eranskin bat izan beharko dute Eusko Legebiltzarreko lege sektorialek, edota, bere kasuan, 17.1 artikuluko eremu-materialetako eskumen propioak ematen dituzten foru-arauek, zein propio gisa emandako eskumenetatik eratorritako zerbitzuen, jardueren eta pres-

¹⁴ Hortaz, ETEL onartzean, Herri-Dirubideen Euskal Kontseilua, erabaki bidez, gomendatzetik ezartzera igaro da, hau da, udalerriek itundutako tributuetan izango duten gutxieneko parte-hartzea zenbatekoa den finkatuko du.

tazioen zehaztea beraiekin dakarten foru arauen edo lege sektorialen erregelamendu bidezko garapenek (18.3 artikulua).

Euskal Autonomia Erkidegoko araudi sektorialak edo foru-arauek zehaztu gabe badaukate oraindik lege honen 17.1 artikuluan aurreikusitako esparru materialetako eskumen propioen irismena, toki-erakundeek han jasotako ahalmenak eta ahalak baliatu ahal izango dituzte, finantzaketa propioarekin edo dagokion administrazioarekin lankidetzeta-hitzarmenak sinatuta, eta, horrelakoetan, beste administrazioak bermatuko dizkie behar dituzten baliabideak (Lehenengo Xedapen Iragankorreko bigarren apartatua).

Azkenik, udal-eskumenei buruzko klausula unibertsalaren arabera (16. artikulua), Udalerriek, beren eskumen propio, transferitu edo eskuordetuetan sartu ez arren, beste edozein jarduera, zerbitzu edo prestazio garatu ahal izango dute, baldin eta herritarren bizi-kalitatearen hobekuntza dakarren edozein jarduera-eremu antolatu eta kudeatzeko bada eta komunitatearen edonolako behar edo interesei erantzuten badie. Hala ere, jarduera, zerbitzua edo prestazio horiek burutzen dituen udalerrriak finantzatuko ditu, osoz, salbu eta lege edo foru-arauren batean berariaz bestelakorik aurreikusten bada edo, salbuespen modura, erkidego- edo foru-erakundeen politika berezi baten arabera diruz laguntzekoa bada (ETEL 16.5 artikulua).

Dena den, aurrerago ikusiko den moduan, hiru erakunde-mailen finantzaketa nahikoa egokia den ala ez aztertzen duen txosten honen ondoretarako, hausnarketa egin da udalerriek bestelako diru-sarrerara tributario propioetan, zorpetze mailan eta bestelako diru-sarreraren (diru-sarrerok transferentziaz heltzen dira udal aurrekontuetara, beste erakunde-maila batzuen politika publikoen jasotzaileak diren heinean) kudeaketan egiten duten ahalegin fiskalaz. Hori guztia agiri honen beste zati batzuetan aipatu bada ere, labur bada ere, merezi du aztertzea gaur egun, hau da, indarreko Ekarpenen Legearekin, kudeatzen den udalerriei eta bestelako toki-erakundeei emandako itundutako tributuen errendimendua (Ekonomia Itunaren kudeaketa).

Toki-erakundeek Ekonomia Itunetik datozen baliabideetan duten parte-hartzea Udal Finantzaketarako Foru Funtsen bidez kudeatzen da; funts horiek baldintzarik gabekoak dira Bizkaian (Udalkutxa) eta Gipuzkoan (Udal Finantzaketarako Foru Funtsa). Araban, aldiz, bi funts daude: Arabako Toki-

Erakundeen Finantzaketarako Foru Funtza (baldintzarik gabekoa) eta Obra eta Zerbitzuen Foru Plana (baldintzapekoa).

Finantza-bide hori ETELen 111. artikuluan jasotakoarekin bat dator, zeinetan ezartzen baita EAEko udalerrien eta gainerako toki-erakundeen finantza-bidea, orokorrean, baldintzarik gabekoa izango dela. Hala ere, lurralde historiko bakoitzeko Udal Finantzaketarako Foru Funtsen ezaugarri nagusiak kontuan hartzen badira, argi geratzen da, lehenbizi, lurralde bakoitzak eskuragarri dituen baliabideen ehuneko desberdina bideratzen duela eta, bigarrenaz, udalerrien artean banatzeko irizpideak desberdinak direla lurralde historikoaren arabera.

Arabian, adibidez, toki-erakundeek lurraldean eskuragarri dauden baliabideetan duten partaidetza hiru foru arauen bidez arautzen da: Arabako toki-erakundeen finantzaketarako foru-fondoa arautzen duen 1997ko ekainaren 30eko 19/1997 Foru Araua, Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzeko azaroaren 19ko 19/2012 Foru Araua¹⁵ eta 21/2013 Foru Araua, ekainaren 27koa, Auzo Harremanak sustatzeko ekimenetarako eta Arabako Toki Erakundeetan Obra Txikiak gauzatzeko laguntza programak arautzen dituena.

Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtza Arabako Lurralde Historikoari dagozkion baliabide erabilgarrien ehuneko 52,80rekin zuzkituko da gutxienez¹⁶ aurrekontu ekitaldi bakoitzerako:

- 1.- Arabako Foru Aldundiak Arabako toki-erakundeei eskualdatu ahal dizkien zerbitzuak emateagatiko partaidetza.
- 2.- Kuadrilla bakoitzari 67.613,86 euroko partaidetza finkoa ematen zaio, bere Kuadrillaren Batzarreko kideek eragindako administrazio azpiegitura

¹⁵ 14/1997 Foru Araua, apirilaren 24koa, Arabako Foru Aldundiaren obra eta zerbitzuetako foru plana zuena, zati batez indargabetu zen; bertan, Arabako Lurralde Historikoak eskuragarri zituen baliabideen % 3,7 zuzkitu behar zela gutxienez.

¹⁶ Azaroaren 26ko 19/2017 Foru Arauak emandako idazkera.

eta funtzionamendu gastuak ordaintzeko. Halaber, kuadrillak emaile diren hornidura guztiak ere sartuko dira, (Ekonomia eta enplegu sustapena, gizarte eta kultura arloko jarduerak, hirigintzaren eta kultura ondare higieziaren alorreko aholkularitza teknikoa, ingurumenaren alorreko aholkularitza teknikoa, berdintasunaren alorreko aholkularitza teknikoa, euskararen alorreko aholkularitza teknikoa eta herritarren partaidetzaren alorreko aholkularitza teknikoa, besteak beste). Kontzeptu horiek eragindako gastuen finantzaketari loturiko funstzat joko dira zenbateko horiek.

3.- Kontzeju, udal eta kuadrillen oinarrizko partaidetza, behin 1. eta 2. atalak deskontaturik ATFFF-aren %27 dena. Herrigune bakoitzean eskaintzen diren hamar toki-zerbitzu publiko partikularren arabera; ondorengo irizpideen arabera haztaturik (parentesi artean) daudenak: 1- Etxeak urez hornitzeko, ura hartu eta bideratu (P:1) % 70 biztanleria adierazlearen arabera, % 30 sakabanatzearen arabera. 2- Etxeak edateko urez hornitzeko, etxebizitzaren artean edateko ura banatu (P:1) % 70 biztanleria adierazlearen arabera, % 30 sakabanatzearen arabera. 3- Etxeak edateko urez hornitzeko, edateko uraren klorazioa egin (P:0,5) % 70 biztanleria adierazlearen arabera, % 30 sakabanatzearen arabera. 4- Hondakin-uren saneamendua (P:2) % 70 biztanleria adierazlearen arabera, % 30 sakabanatzearen arabera. 5- Argiteria publikoa (P:1) % 70 biztanleria adierazlearen arabera, % 30 sakabanatzearen arabera. 6- Hilerria (P:1) % 70 biztanleria adierazlearen arabera, % 30 sakabanatzearen arabera. 7- Gizarte-zentroa, hiriguneko biztanleen arteko gizarte-harremanak eta kultur harremanak sustatzera zuzendua (P:1) % 70 biztanleria adierazlearen arabera, % 30 sakabanatzearen arabera. 8- Hirietako hondakin solidoak bildu (P:1) % 70 biztanleria adierazlearen arabera, % 30 sakabanatzearen arabera. 9- Eskualdeko eskolen hirigintza azpiegiturak eragindako gastuak (P:0,25) nahitaezko eskolatze adierazlearen arabera. 10- Mediku kontsultorioen hirigintza azpiegiturak eragindako gastuak (P:0,25) izan daitezkeen herritar erabiltzaileen arabera.

4. Udalen partaidetza osagarria, udalerrri bakoitzaren tamainaren arabera eskaini beharreko udal-izaera duten zerbitzuen arabera. Behin 1. eta 2. atalak kendu ostean, ATFFF-aren % 73 da eta horrela banatzen da: a) Udal bakoitzarentzako 21.035,42 euroko kuota finkoa; b) Parte hartze osagarriaren gainontzeko partaidetza honela banatzen da: %59, udalerrri bakoitzeko es-

kubidezko biztanleriaren arabera; % 5, udalerrri bakoitzak bere eskubidezko biztanleriak haztatutako per capita zerga ahaleginaren arabera¹⁷; %12,25, 1.000 biztanle baino gehiagoko udalen artean, eskubidezko biztanleriaren arabera; %9,5, 5.000 biztanle baino gehiagoko udalen artean, eskubidezko biztanleriaren arabera; %9,25, 15.000 biztanle edo gehiagoko Udalen artean, eskubidezko biztanleriaren arabera; % 5, 50.000 biztanle baino gehiagoko udalei dagokie¹⁸.

Bestalde, *Obra eta Zerbitzuen Foru Planari* aurrekontu ekitaldi bakoitzean Arabako Lurralde Historikoari dagozkion baliabide erabilgarrien % 3,70 gutxienez ematen zaio (19/2012 Foru Araua¹⁹). Plana Arabako Foru Aldundiaren lankidetzat tresna da, zeinaren bidez Arabako Lurralde Historikoko toki-erakundeei laguntzak ematen baitzaizkie, erakundeon eskumeneko obrak egin eta zerbitzuak emateko, alde aurretik eskatuta eta foru arauan ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen badira.

Auzo harremanak sustatzeko ekimenetarako eta obra txikiak gauzatzeko laguntza programei dagokienez, Arabako Lurralde Historikoari dagozkion baliabide erabilgarrien % 0,50 erabiliko da behintzat (21/2013 Foru Araua). Lehia-konkurrentziaren araubidearen arabera Inbertsio txikiak finantzatzeko toki-erakundeekiko lankidetzat programak dira.

Bizkaian, udalerriek Udalkutxa Udal Finantzaketarako Foru Funtsean duten partaidetza Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren²⁰ bidez erregulatzen da. Udalkutxa Funtsak % 56,00²¹ jasotzen du urtero Bizkaiko Lurralde Historikoko itundutako tributuena²², horrela:

¹⁷ Udal bakoitzari aplikatu beharreko per capita zerga ahalegina honako hau izango da: lurralde historikoko udalerrri guztien per capita zerga-ahaleginaren batuketari dagokion per capita zerga-ahaleginaren proportzioa. Kalkulatzeko metodologia 19/1997 Foru Arauaren 12. artikuluan ezarri da. Udalerrri bakoitzaren per capita zerga ahalegina zehazteko behar den informazioa onartutako aurreko ekitaldi azkenari dagokion aurrekontu likidatutik dator.

¹⁸ 10 urteko epean, 2012tik, 50.000 biztanletik gorako udalei dagokien partaidetza % 3 da eta gainerako % 2a Arabako Foru Aldundiari dagokio, 2011ko abenduaren 31an TEPEFen saldoagatik (17/2011 Foru Araua).

¹⁹ Arabako Foru Aldundiko Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen apirilaren 12ko 9/2017 Foru Arauak 2018, 2019, 2020, 2021, 2022 eta 2023 ekitaldietarako ezarri bezala, Obra eta Zerbitzuen Foru Planarentzako zuzkidura Arabako Lurralde Historikoari dagozkion baliabide eskuragarrien % 3,70 izan behar da gutxienez.

²⁰ 41. artikulua 5/2008 Foru Arauaren bidez aldatu zen.

- Udal Finantzaketarako Foru Funtserako ezartzen den zenbatekoaren % 0,75 aurrekontuan aurreikusteko zailak diren ezustekoetarako gorde-tzen da. Kopuru hau gehitu ahal izango da xede bera eta kopuru bereko gehienezko zuzkidura daukan foru ekarpeneko beste funts batekin.
- Udal Finantzaketarako Foru Funtseko % 0,15 EUDEL finantzatzeko erabiltzen da.
- Bilbori, hiriburutzagatik, urteko zenbatekoa ezartzen zaio Udal Finantzaketarako Foru Funtsetan urte arteko aldaketaren arabera eta 2002ko ekitaldia oinarri legez hartuta.
- Behin Udal Finantzaketarako Foru Funtsetan guztizkotik gorago aipatutako zenbatekoak kenduta, gainerakoa Bizkaiko gainerako udalerrien artean banatzen da. Udalerri bakoitzak 81.137 euro jasotzen ditu gutxienez urtean eta gerakina honako irizpide hauen arabera banatzen da: % 80 zuzenbideko biztanleen kopuruaren arabera, % 13 zuzenbideko biztanleen kopurua ahalegin fiskalaz haztatutakoaren arabera,²³ eta % 7 eskola unitateen kopuruaren eta tokiko bestelako berezitasun batzuen (hondartzak, langabezia eta sakabanaketa) arabera²⁴.

Azkenik, Gipuzkoako udalerriek Udal Finantzaketarako Foru Funtsetan duten partaidetza Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren arautzen duen azaroaren 23ko 15/1994 Foru Arauaren bidez erregulatzen da. Gaur egun, lurralde historikoaren baliabide eskuragarrien % 58 doa Udal Finantzaketarako Foru Funtsetan, eta azken hamarkadotan hazteko joera izan du. EUDEL finantzatzeko erabiltzen den Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren guztizko zenbatekotik % 0,15 kenduta, gainerako % 99,85a, Gipuzkoako udalerrien artean banatzen da, honako irizpide hauen arabera:

²¹ 9/2005 Foru Arauan hasierako ehunekoa % 54,31 zen.

²² Udalerrien Bizkaiko Lurralde Historikoko itundutako tributueta duten partaidetza: 0,56 x (Bizkaiko Lurralde Historikoaren baliabide eskuragarriak - foru kenketak), Ekarpenean 2/2007 Legearen arabera.

²³ 9/2005 Foru Arauak dio ahalegin fiskalaren definizioa Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorren Arauetan dagoela, eta azken erredakzioa Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2018. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 4/2017 Foru Arauarena da.

²⁴ % 60 Lehen Hezkuntzako, Haur Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko eskola unitateen arabera, unitate horiek zentro publikoetan badaude eta zentrook udalerrienak badira; % 4, hondartzen arabera; % 18, langabezia tasaren arabera; eta % 18, udalerrien etxeen sakabanaketaren arabera.

- % 1,2, gehienez 1.100 biztanle duten udalerrien artean banatzen da, honelaxe²⁵: 84.141,7 euro 200 biztanle gehienez badute, 72.121,5 euro 201 biztanletik 400era, 60.101,2 euro 401etik 600era, 36.060,7 euro 601etik 1.000ra eta 24.040,5 euro 1.001etik 1.100era.
- % 90 biztanleria-kuota legez banatzen da zuzenbideko biztanleekiko zuzeneko proportzioan, eta beharrezko doikuntzak egiten dira biztanleria kuotan, udalerrri batek, kontzeptu berberetatik, biztanle kopuruan bere atzean dagoenak baino zenbateko txikiagoa jaso ez dezan.
- % 2,15 Donostiari ematen zaio, hiriburutzagatik.
- % 30, udalerrri bakoitzaren errentaren alderantzizko proportzioan, zuzenbidezko biztanle-kopuruaz haztatuta.
- Gainerako % 3,5a udalerrri bakoitzaren ahalegin fiskalaren²⁶ zuzeneko proportzioan, zuzenbidezko biztanle-kopuruaz haztatuta.

²⁵ Gorago aipatutako zenbateko finkoak aplikatzearen emaitza % 1,2aren zenbatekoa baino handiagoa edo txikiagoa bada, aldeak biztanleria kuotaren zenbatekoa gutxitu edo handituko du, kasuaren arabera.

²⁶ Ahalegin fiskala 15/1994 Foru Arauaren 4. artikuluan definitzen da.

**4. EAE-KO SEKTORE PUBLIKOAREN DIRU-SARRERA
BATERATUAK: ERAKUNDE-IKUSPEGITIK EGINDAKO
DIAGNOSTIKOA**

4. EAE-KO SEKTORE PUBLIKOAREN DIRU-SARRERA BATERATUAK: ERAKUNDE-IKUSPEGITIK EGINDAKO DIAGNOSTIKOA

4.1 EAE-KO ADMINISTRAZIOEN DIRU-SARRERA BATERATUAK, SAILKAPEN EKONOMIKOAREN ARABERA

Atal honen xedea da EAEko hiru erakunde-mailetan izandako diru-sarrerak zenbatzea eta haien osaera aztertzea. Horretarako, Eustatek argitaratutako “*Sektore Publikoaren Aurrekontuen Estatistikak*”²⁷ eragiketa hartu da erreferentzia gisa.

Eustatek argitaratzen duen EAEko administrazioei buruzko laburpen bateratua eragile hauen ekonomia-jarduketari buruzkoa da: i) Eusko Jaurlaritza eta haren erakunde autonomoak; ii) Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde-administrazioak (lurralde historiko bakoitzari dagozkion foru-administrazioak, udal-administrazioak, erakunde autonomoak, udalaz gaindiko erakundeak eta udalerrria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeak).

Aurrekontu-likidazioak oinarrizko erreferentzia gisa hartuta, EAEko administrazioen diru-sarreraren zifra bateratu orokorra 16.618 milioi eurokoa da 2015eko ekitaldian. Zifra hori krisialdiaren aurreko balioena baino altuagoa da, baina erregistraturiko handiena baino % 3,5 txikiagoa (17.426 milioi euro; 2010ean erregistratua).

Barne Produktu Gordinaren gaineko partaidetza erlatiboari dagokionez, EAEko administrazioen diru-sarrera bateratuen zifra EAEko ekonomiak sortzen duen aberastasunaren laurdena da, gutxi gorabehera.


²⁷ Sektore Publikoaren Aurrekontuen Estatistikak aurrekontu-kontularitzaren alorreko datuak ematen ditu - zehazki, Euskal Autonomia Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen maila guztiei buruzkoak. EUSTATen datu-basean 1992-2015 aldiko datuak kontsultatu daitezke; argitaratutako azken urteari gagozkola (2015ari), erakunde-maila bakoitzari buruzko zifra originalak jaso dira.

4.1 koadroa. EAEko administrazioen diru-sarrera bateratuen eta EAEko Barne Produktu Gordinaren bilakaera.

	Diru-sarrera bateratuak EAEko administrazioak (1)		EAEko Barne Produktu Gordina (2)		(1/2) %
	Euroak, milioitan	Urte arteko ehunekoa (%)	Euroak, milioitan	Urte arteko ehunekoa (%)	
2007	16.506	10,4	66.882	7,5	24,7
2008	16.327	-1,1	68.575	2,5	23,8
2009	16.240	-0,5	65.143	-5,0	24,9
2010	17.426	7,3	66.569	2,2	26,2
2011	16.653	-4,4	67.022	0,7	24,8
2012	16.305	-2,1	65.763	-1,9	24,8
2013	16.316	0,1	64.923	-1,3	25,1
2014	16.561	1,5	66.378	2,2	24,9
2015	16.618	0,3	68.497	3,2	24,3

Iturria: Sektore Publikoaren Aurrekontuen Estatistikak. Eustat

4.1 grafikoa. Urte arteko bilakaera alderatua: EAEko administrazioen diru-sarrera bateratuak eta EAEko Barne Produktu Gordina (ehunekok).



Iturria: Sektore Publikoaren Aurrekontuen Estatistikak. Eustat

Diru-sarrereren sailkapen ekonomikoa kontuan izanik eta 2015eko ekitaldiko datuei bereziki erreparatuta²⁸, ikusten da EAEko sektore publikoaren diru-sarrera bateratuen zatirik handiena zergei dagokiela (guztizkoaren % 80,1); horren ondoren eta alde handiarekin, hurrengo diru-sarrera motak daude: zorpetzea (% 8,8, finantza-pasiboak), tasak eta bestelako diru-sarrerak (% 6,3), eta transferentzia arruntak (% 2,6).

4.2 koadroa. EAEko administrazioen diru-sarrera bateratuak, sailkapen ekonomikoaren arabera. 2015

	Diru-sarrera bateratuak	
	Euroak, milioitan	%
Zuzeneko zergak	6.668	40,1
Zeharkako zergak	6.643	40,0
Tasak eta bestelako diru-sarrerak	1.051	6,3
Transferentzia arruntak	435	2,6
Ondarezko diru-sarrerak	101	0,6
Besterentzea eta inbertsioak	54	0,3
Kapital-transferentziak	136	0,8
Finantza-aktiboak	69	0,4
Finantza-pasiboak	1.462	8,8
DIRU-SARRERA BATERATUAK, GUZTIRA	16.618	100,0


Iturria: Sektore Publikoaren Aurrekontuen Estatistikak. Eustat

Zuzeneko zergak EAEko administrazioen diru-sarrera bateratuen % 40,1 dira, eta ia ekarpen berdina dute zeharkako zergek (% 40,0). Tributu-figuren araberako banakapenak agerian uzten du pertsona fisikoen errentaren gaineko zergagatiko eta balio erantsiaren gaineko zergagatiko diru-bilketek garrantzi erlatibo handia dutela; izan ere, 2015ean EAEko zergazko diru-sarrereren % 34,8 eta % 37,6 suposatzen dute, hurrenez hurren.

²⁸ Jada azaldu dugunez, 2015a erreferentzia-urtetzat hartzea erabaki zuen azterlan hau idatzi duen lantaldeak, EAEko erakundearen eskumen- eta finantzaketa-maila aztertzeko; izan ere, urte horretakoa da azken estatistika-informazio ofizial argitaratua.

Grafikoan ikusten den bezala, zerga bereziek (% 10,3), sozietateen gaineko zergak (% 7,8), udal-zergak (% 5,3) eta bestelako zergak (% 4,2) partaidetza erlatibo askoz ere txikiagoa dute zergazko diru-sarreraren guztizkoan.

4.2 grafikoa. EAEko administrazio publikoaren diru-sarrera bateratuak, sailkapen ekonomikoaren eta zergazko diru-sarreraren banakapenaren arabera (%). 2015



Iturria: *Sektore Publikoaren Aurrekontuen Estatistikak. Eustat*

Hurrengo koadroan, Eusko Jaurlaritzaren eta lurralde historikoen diru-sarrerak banakatzen dira, bi erakunde-maila horiek bateratu baino lehen. Horri esker ikusten da bi erakunde-maila horien diru-sarrerak kapituluaren arabera egitura desberdina dutela; horrela, Eusko Jaurlaritzaren diru-sarrera gehienak transferentzia arruntetik datoz (% 84,4); lurralde historikoen kasuan, ordea, zati handiena zergengatik diru-sarreretatik dator (batez beste, % 87,9).

4.3 koadroa. Eusko Jaurlaritzaren eta lurralde historikoen diru-sarrerak. Bi erakunde-mailen arteko datu bateratu gabeak. 2015.

	Eusko Jaurlaritza		Lurralde historikoak, bateratuta	
	Euroak, milakotan	%	Euroak, milakotan	%
Zuzeneko zergak	-	-	6.667.547	44,0
Zeharkako zergak	3.941	0,0	6.639.153	43,9
Tasak eta bestelako diru-sarrerak	199.238	2,0	851.912	5,6
Transferentzia arruntak	8.541.089	84,4	495.070	3,3
Ondarezko diru-sarrerak	35.416	0,4	65.440	0,4
Besterentzea eta inbertsioak	1.467	0,0	52.057	0,3
Kapital-transferentziak	125.725	1,2	53.857	0,4
Finantza-aktiboak	52.664	0,5	16.188	0,1
Finantza-pasiboak	1.163.018	11,5	299.297	2,0
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA *	10.122.558	100,0	15.140.521	100,0

*Bi erakunde-mailen diru-sarrera bateratu gabeak.

Iturria: Sektore Publikoaren Aurrekontu Estatistikak (Eustat)

EAEko erakundearen artean baliabideak banatzeko ereduak baldintzatzen du egitura desberdin hori: foru-ogasunek itundutako tributuak biltzeko eskumena dute, eta erakunde komunak, aldiz, foru-aldundien ekarpenen bidez finantzatzen dira nagusiki.

Foru-aldundiak eta toki-erakundeak²⁹ alderatzen baditugu, ikusten dugu, orobat, diru-sarreraren egitura desberdinak dituztela. Toki-erakundeek udal-tributuak ordainarazteko eskumena ere badute, eta kudeaketa-marjina ematen die horrek, baita finantza-autonomia ere. Izan ere, 2015ean toki-

²⁹ Udal-erakundeak eta udalaz gaindiko erakundeak hartzen dituzte horiek barnean.

erakundeen guztizko diru-sarreraren % 40,3 udal-tributuetatik datoz. Zehazki, zuzeneko zergak (% 21,4) eta tasa eta bestelako diru-sarrerak (% 17,5) antzeko banaketa dute; zeharkako zergen diru-sarrerak, aldiz, oso txikiak dira (% 1,4).

4.4 koadroa. Foru-aldundiak eta toki-erakundeak diru-sarrerak. Bi erakunde-mailen arteko datu bateratu gabeak. EAE, 2015.

	Foru-aldundiak		Toki-erakundeak	
	Euroak, milakotan	%	Euroak, milakotan	%
Zuzeneko zergak	6.001.371	43,9	666.176	21,4
Zeharkako zergak	6.594.866	48,3	44.287	1,4
Tasak eta bestelako diru-sarrerak	306.444	2,2	545.468	17,5
Transferentzia arruntak	471.622	3,5	1.610.678	51,8
Ondarezko diru-sarrerak	2.825	0,0	62.615	2,0
Besterentzea eta inbertsioak	1.315	0,0	50.742	1,6
Kapital-transferentziak	19.511	0,1	84.177	2,7
Finantza-aktiboak	3.096	0,0	13.092	0,4
Finantza-pasiboak	265.900	1,9	33.397	1,1
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA*	13.666.950	100,0	3.110.632	100,0

*Bi erakunde-mailen diru-sarrera bateratu gabeak.

Iturria: *Sektore Publikoaren Aurrekontu Estatistikak (Eustat)*

Transferentziak toki-erakundeak diru-sarreraren erdia baino gehiago dira; argi eta garbi, transferentzia arruntak dira nagusi (% 51,8), diru-sarreraren bi iturri biltzen baitituzte:

- Batetik, toki-erakundeek itundutako tributuetan eta itundu gabekotan duten partaidetza, jada adierazi dugun bezala, udal-finantzaketarako foru-funtsen bitartez transferitzen dena (finantza-keta-iturri baldintzatu gabeko foru-funtsak), baita beste funts batzuen bidez ere (kasu baterako, Gizartekutxa Funtsa Bizkaian).

— Eta, bestetik, gastu-partida zehatzak finantzatzeko jasotzen dituzten transferentziak³⁰ (finantzaketa baldintzatua dira halako gastu-partida zehatzak, eta diru-sarrera finalistatzat hartzen dira).

EAEn erakunde-baliabideak banatzeko dagoen ereduarekin bat etorrita, EA-Eko toki-erakundeen diru-sarreraren egitura eta araubide erkideko diru-sarreraren egitura desberdinak dira. Beheko koadroak islatzen duen bezala, adibidez, udal-tributuen garrantzia txikiagoa da EAEn (% 40,2 batez beste, 2011-2015 aldian) araubide erkideko toki-erakundeetan baino (% 55,2 aldi berean).

4.5 koadroa. Toki-erakundeen diru-sarreraren egitura alderatua: EAEn eta lurralde komunaren arteko alderaketa.

	Araubide erkideko toki-erakundeak		EAeko toki-erakundeak*	
	2015	2011-2015 batezbestekoa	2015	2011-2015 batezbestekoa
Zuzeneko zergak	40,5	37,6	21,9	21,2
Zeharkako zergak	1,1	1,2	1,5	1,7
Tasak eta bestelako diru-sarrerak	15,8	16,4	17,0	17,3
Transferentzia arruntak	32,2	30,6	52,1	50,2
Ondarezko diru-sarrerak	1,8	2,2	1,9	2,2
Besterentzea eta inbertsioak	0,7	0,7	1,7	2,2
Kapital-transferentziak	3,1	3,7	2,7	3,6
Finantza-aktiboak	0,3	0,2	0,2	0,2
Finantza-pasiboak	4,5	7,4	1,1	1,4
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA (%)	100,0	100,0	100,0	100,0
DIRU-SARRERAK GUZTIRA (€/bizt.)	1.109,8	1.096,5	1.387,7	1.367,7

*Araubide komuneko toki-erakundeekiko alderaketa homogeneoa egite aldera, kanpoan utzi dira udal-partaidetzako sozietate publikoak eta toki-erakunde txikiak.

Iturria: Geuk egina, Sektore Publikoaren Aurrekontu Estatistiketan (Eustat) eta Ogasunaren eta Administrazio Publikoen Ministerioak argitaraturiko informazioan oinarrituta.

³⁰ Kasu baterako, gizarte-larrialdiko laguntzak, teknikariak kontratatze laguntzak, euskaltegien edota udal-tako musika-eskolen mantentze-lanetarako eta langileak kontratatze hitzarmenak, kultura-jarduera jakin batzuetarako diru-laguntzak etab.

Garrantzi erlatibo desberdin hori transferentzia arruntek diru-sarrerren gutzituzkoan duten partaidetza erlatiboan islatzen da; hala, EAEko ehunekoa (% 50,2) araubide erkideko toki-erakundeen batez bestekoa baino handiagoa da (% 30,6). Zorpetzea finantzaketa-baliabide gisa erabiltzeari dagokionez, EAEko toki-erakundeen multzoaren kasuan txikiagoa da (finantza-pasiboak diru-sarrerren % 1,4 dira), araubide erkideko erakundeen kasuan baino (% 7,4).

Per capita datuei dagokionez, EAEko udalerrien diru-sarrerak 1.367,7 eurokoak dira biztanle bakoitzeko 2011-2015 aldian; araubide erkideko toki-erakundeen batez bestekoa baino 271,2 euro gehiago (1.096,5 euro biztanle bakoitzeko).

Datu horien arabera, Lurralde Historikoen Legearen 2. xedapen gehigarrian xedatutakoa betetzen da. Xedapen horrek ezartzen duenez, foru-aldundiek, beren finantza-tutoretzako eskumenaz baliatuta, dagokien lurralde historikoko udalerriei gutxieneko baliabide-maila bat bermatu behar diete, eta baliabide-maila hori ezin da izan araubide komuneko legedia aplikatuz legokiekeena baino txikiagoa. Halaber, ondoriozta dezakegu indarreko Ekonomia Itunaren 48.5 artikulua eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 117.2 artikulua ere betetzen direla.

4.2 ERAKUNDEEN ARTEAN BANATU BEHARREKO DIRU-SARRERAK ETA BANAKETAREN ERAGINPEAN EZ DAUDEN DIRU-SARRERAK

Txosten honetan aipatu den moduan, baliabideak banatzeko eredu baten arabera da EAEko erakunde-mailen finantzaketa; eredu horrek foru-ogasunetatik Euskadiko Ogasun Nagusirantz eta lurralde bakoitzeko toki-ogasunetarantz bideratzen ditu baliabideak, betiere eskumen-kargaren arabera.

Erakundeek beren gastu-eskumenei aurre egiteko dituzten diru-sarreraren tipologiak hauek dira: banatu beharreko diru-sarrerak, diru-sarrera propioak, diru-sarrera finalistak (gastu edo xede espezifikoetarako diru-sarrerak), eta zorpetzearen ondoriozko diru-sarrerak.

Erakundeen diru-sarrera propioak honako hauek osatzen dituzte: banaketaren eraginpean ez dauden zergazko diru-sarrerak, tasa eta prezio publikoak, ondarezko diru-sarrerak, inbertsio errealak besterentzeagatik diru-sarrerak eta finantza-aktiboen ondoriozkoak.

Diru-sarrera finalistak, bestalde, hauei dagozkie: batetik, zerbitzuak emateko edo jarduketa jakin batzuk egiteko gastuak ordaintzeko transferentziei, eta, bestetik, hitzarmen eta/edo akordio jakin batzuen ondoriozko diru-sarrerei.


Zorpetzearen ondoriozko diru-sarrerak, azkenik, erakundeek gastuei aurre egiteko harturiko finantza-pasiboak dagozkie.

4.3 grafikoa. Erakundeen diru-sarrerak: Tipologia

DIRU-SARRERAK	Banatu beharreko diru-sarrerak
	Diru-sarrera propioak
	Diru-sarrera finalistak
	Zorpetzea

EAEko hiru erakunde-mailen artean banatu beharreko baliabideak kalkulatzeko, Estatuari ordaindu beharreko kupoaren zenbatekoa ezinbestean kendu behar da banaketaren eraginpean dauden diru-sarreraren bateratuaren zifratik. Kalkulu hori eginda, 2015ean banatu beharreko diru-sarreraren zifra orokorra 11.856,5 milioi eurokoa da, 2007ko maximoa baino txikiagoa.

4.4 grafikoa. EAEko administrazioen artean banatu beharreko diru-sarreraren urte arteko bilakaera. Euroak, milioitan



Iturria: Geuk egina

Erakundeek dagozkien gastu-eskumenei aurre egiteko dituzten diru-sarreraren zenbatekoa, diru-sarrera propioekin, diru-sarrera finalistekin eta zorpetzearen ondoriozko diru-sarrerekin osatzen da; guztira, 3.768,6,6³¹ milioi euro dira 2015ean.

EAEko erakundeek dituzten diru-sarrera guztiak aintzat hartuta, honako hau da erakunde-maila bakoitzak dagozkion eskumenen arabera dituen diru-sarreraren osaera 2015ean: Eusko Jaurlaritzaren diru-sarrerak 9.919,7 milioi eurokoak dira; hiru foru-aldundienak, berriz, 2.678,4 milioi eurokoak guztira; eta toki-erakundeak, azkenik, 3.027 milioi eurokoak.

³¹ 160,5 milioi euro kendu dira itundutako tributuen bidez kobratu gabeko eskubide aitortu gisa; izan ere, foru-aldundiei oso-osorik esleitutako eskubideak dira, behin gauzatu direla, hiru erakunde-mailen artean banatu beharreko diru-sarrerak direlako.

4.6 koadroa. Diru-sarrerak, izaeraren eta erakunde-mailaren arabera (euroak, milakotan). EAE, 2015

	GUZTIRA	Eusko Jaurlaritza	Foru- aldundiak	Toki- erakundeak
Erakundeen artean banatu beharrekoak ³²	11.856.467	8.377.345	2.095.860	1.383.263
Banatu behar ez direnak	3.768.617	1.542.376	582.506	1.643.734
Diru-sarrera propioak *	1.874.433	253.633	238.856	1.381.944
Diru-sarrera finalistak	431.869	125.725	77.750	228.394
Zorpetzea	1.462.315	1.163.018	265.900	33.397
EAEko baliabide erabilgarriak	15.625.084	9.919.721	2.678.367	3.026.997

Iturria: Geuk egina, Eustatek emandako informazioan oinarrituta


**Ikus 31. oharra, aurreko orrialdean*

Erakunde-maila bakoitzean diru-sarrerek duten osaerari erreparatzen badiogu, ikusten dugu alde esanguratsuak daudela banatu beharreko diru-sarrerak iturririk garrantzitsuena badira ere hiru kasuetan: toki-erakundeei dagokienez, guztizko diru-sarreren % 45,7 dira; foru-aldundien kasuan, berriaz, % 78,3 da ehuneko hori, batez beste; azkenik, % 84,5 dagokio Eusko Jaurlearitziari.

Ondorioz, kontuan harturiko gainerako diru-sarreren garrantzi erlatiboan ere alde nabarmenak daude erakunde-mailen artean: propioak % 45,7, % 8,9 eta % 2,6 dira, hurrenez hurren; finalistak, % 7,5, % 2,9 eta % 1,3; zorpetzearen ondoriozkoak, azkenik, % 1,1, % 9,9 eta % 11,7.

³² Arabako udalerrien kasuan, Obra eta Zerbitzuen Foru-planaren barnean dago; baldintzatua bada ere, banatu beharreko itundutako tributuen bidez finantzatzen baita.

4.5 grafikoa. Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta toki-erakundeen baliabideen banaketa, diru-sarrera motaren arabera (%).




Iturria: Geuk egina, Eustatek emandako informazioan oinarrituta

4.2.1 ERAKUNDE-MAILEN ARTEAN BANATU BEHARREKO DIRU-SARRERAK

Grafikoan ikusten denez, Eusko Jaurlaritzari dagokio 2015eko ekitaldian banatu beharreko 11.856,5 milioi euroen % 70,7,³³ eta gainerakoa foru-aldundien (% 17,7) eta toki-erakundeen (% 11,7) artean banatzen da.

Foru-aldundien eta toki-erakundeen arteko banaketaren ikuspegitik, bi erakunde-maila hauen partaidetza erlatiboak lurraldeen artean banatu beharreko diru-sarreraren % 60,2 eta % 39,8 dira, hurrenez hurren.

4.6 grafikoa. Banatu beharreko baliabideen zatiketa, erakunde-mailaren arabera (%). Guztira EAEn, 2015



Iturria: Geuk egina, Eustatek emandako informazioan oinarrituta

Nolako bilakaera izan du erakunde-partaidetzak Ekonomia Itunetik etorritako baliabide erabilgarrietan? Horri dagokionez, kontuan izan behar dugu azken urteotan Estatuaren eskumenen eskualdatzeak eragina izan duela Eusko Jaurlaritzaren baliabide erabilgarrietan. Horregatik eta erakunde-mailen araberako alderaketa homogeneoa egite aldera, ezinbestean kalku-

³³ 2015ean indarrean zegoen koefiziente bertikala (% 70,04) baino apur bat handiagoa da ehuneko hori, Eusko Jaurlaritzari eskualdatutako eta ekarpen espezifikoaren bitartez finantzatutako eskumenak direla eta.

latu behar dira haren baliabide erabilgarriak 2007ko eskumen berberekin (urte horretan onetsi zen gaur egun indarrean den Ekarpen Legea), eskumen berriak (ekarpen espezifikoen bidez finantzatzen direnak) eskualdatzeak dakarren eragina ezabatzeko eta, horrela, beste bi erakunde-mailen baliabide erabilgarriekin alderatu daitekeen zifra bat lortzeko.

Hurrengo koadroan, Ekonomia Itunetik etorritako baliabideen urte arteko bilakaera homogenea islatu da, erakunde-maila bakoitzerako, eta, ikusten denez, oso banaketa egonkorra izan dute baliabideek.

4.7 koadroa. Ekonomia Itunaren ondoriozko baliabideen bilakaera, erakunde-mailaren arabera


	Eusko Jaurlaritza	Eusko Jaurlaritza (eskumen homogeenok) ¹		Foru-aldundiak		Toki-erakundeak ²	
	Euroak, milioitan	Euroak, milioitan	%	Euroak, milioitan	%	Euroak, milioitan	%
2007	8.495,4	8.495,4		2.308,4		1.429,7	
2008	7.818,6	7.818,6	-7,97	2.089,2	-8,60	1.323,8	-8,85
2009	7.001,1	6.914,3	-11,57	1.858,6	-10,33	1.187,3	-11,46
2010	7.900,4	7.859,2	13,67	2.077,5	11,81	1.344,2	13,21
2011	7.842,3	7.315,2	-6,92	1.955,2	-5,90	1.265,3	-5,85
2012	8.237,5	7.809,4	6,76	2.070,8	6,10	1.357,0	6,99
2013	7.736,7	7.388,1	-5,39	1.966,1	-4,87	1.295,5	-4,81
2014	8.183,0	7.825,1	5,92	2.068,7	5,32	1.365,6	5,25
2015	8.377,3	7.976,1	1,93	2.095,9	1,34	1.383,3	1,25

¹ Baliabide erabilgarriak, 2007ko eskumen homogeenekin.

² Lurralde historiko bakoitzeko foru-arauen arabera kalkulaturako baliabideak.

Iturria: Geuk egina

4.7 grafikoa. Ekonomia Itunetik etorritako baliabideen banaketa (eskumen homogeneoak) erakunde-mailaren arabera (%). 2007-2015



Iturria: Geuk egina

4.2.2 HIRU ERAKUNDE-MAILEN DIRU-SARRERA PROPIOAK

Erakundeen artean banatzen ez diren diru-sarreraren barnean, aipagarriak dira diru-sarrera propioak, 2015ean 1.874,4 milioi eurokoa baita haien guztizko zenbatekoa. Honela banatu dira, erakunde-mailen arabera: 253,6 milioi euro Eusko Jaurlaritzak (diru-sarrera propioen % 13,5); 238,9 milioi euro foru-aldundiek (% 12,7); eta 1.381,9 milioi euro toki-erakundeek (% 73,7).

Beraz, lehen azaldu den bezala eta erakunde-finantzaketaren ereduarekin bat etorrira, diru-sarrera propioak Eusko Jaurlaritzaren diru-sarreraren % 2,6, foru-aldundien diru-sarreraren % 8,9 eta toki-erakundeen diru-sarreraren % 45,7 dira.

4.8 koadroa. Diru-sarrera propioak erakunde-mailaren arabera. Guztira EAEn, 2015.

	Guztira	Eusko Jaurlaritza	Foru-aldundiak	Toki-erakundeak
<i>Euroak, milakotan</i>				
Banaketaren eraginpean ez dauden zergak	718.098	3.941	3.694	710.463
- Udal-zergak	710.463			710.463
- Zeharkako zergak (Eusko Jaurlaritza)	3.941	3.941		
- Foru-aldundien zuzeneko zergak	3.694		3.694	
- Tasak, prezio publikoak eta kontribuzioak	928.310	199.238	183.604	545.468
Gainerako diru-sarrera propioak	228.025	50.454	51.558	126.013
DIRU-SARRERA PROPIOAK	1.874.433	253.633	238.856	1.381.944
<i>Erakunde-banaketa (ehunekoa)</i>				
Banaketaren eraginpean ez dauden zergak	100,0	0,5	0,5	98,9
- Udal-zergak	100,0	0,0	0,0	100,0
- Zeharkako zergak (Eusko Jaurlaritza)	100,0	100,0	0,0	0,0
- Foru-aldundien zuzeneko zergak	100,0	0,0	100,0	0,0
- Tasak, prezio publikoak eta kontribuzioak	100,0	21,5	19,8	58,8
Gainerako diru-sarrera propioak	100,0	22,1	22,6	55,3
DIRU-SARRERA PROPIOAK	100,0	13,5	12,7	73,7

Iturria: Geuk egina, Sektore Publikoaren Aurrekontu Estatistiketatik ateratako datuetan oinarrituta (Eustat)

Diru-sarrereren iturriari erreparatuta, diru-sarrera propioak honela banatu daitezke: lehenik, banaketaren eraginpean ez dauden tributuoak (udal-zergetatik bildutako 710,4 milioi euro; Eusko Jaurlaritzak joko-tasaren gaineko errekarugatik bildutako 3,9 milioi euro; eta Bizkaiko Foru Aldundiak udal-tributuen gaineko errekarugatik bildutako 3,7 milioi euro); bigarrenik, tasak, prezio publikoak eta kontribuzioak (928,3 milioi euro); eta azkenik, gainerako diru-sarrera propioen taldea (transferentzia arruntak³⁴, ondarezko diru-sarrerak, inbertsioen besterentzea eta finantza-aktiboak; guztira 228,0 milioi euro).


Banaketaren eraginpean ez dauden zergei dagokienez, Eusko Legebiltzarrak oso modu mugatuan erabili izan du tributu propioak ezartzeko gaitasuna ("1983ko Euriteak" PFEZren gaineko errekarua, bingo jokoaren gaineko zerga eta jokoaren gaineko tasaren errekarua). Lurralde historiko bakoitzeko foru-arauetan jasotako udal-tributuen gaineko errekarua, bestalde, Bizkaian baino ez da aplikatzen gaur egun.

Udal-zergei buruz, gogorarazi beharrekoa da gaur egun ezarrita dauden bost zergetatik hiru derrigorrean ordainarazi beharrekoak direla (ondasun higiezinaren gaineko zerga, ekonomia-jardueren gaineko zerga eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga); beste biak, ordea, nahi izanez gero ordainarazi daitezke (eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga eta hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko udal-zerga).

2015ean, OHZri dagokio udal-zergetatik bildutakoaren erdia baino gehiago (% 52,0; 369,3 milioi euro guztira); gainerako % 48,0 honako hauei dagokie: trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari (% 18,4; 130,6 milioi euro); ekonomia-jardueren gaineko zergari (% 14,2; 100,6 milioi euro); hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko udal-zergari (% 9,2; 65,6 milioi euro); eta eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergari (% 6,2; 44,3 milioi euro).

³⁴ Transferentzia arruntetatik helburu jakinetarako diru-sarreretat hartzen direnak kentzen dira.

4.8 grafikoa. Udal-zergengatik bildutakoaren banaketa, zerga motaren arabera (%). Guztira EAEn, 2015



Iturria: Geuk egina, Sektore Publikoaren Aurrekontuen Estatistiketan oinarrituta (Eustat)

EJZren diru-bilketarako gaitasuna asko aldatzen da udaletik udalera (gauza bera gertatzen da OHZrekin, baina hein txikiagoan), eta horrek zuzeneko eragina du udalerriek biztanle bakoitzeko lortzen duten diru-bilketan. Izan ere, udalerrien arteko aldeak esanguratsuak dira bana-banako azterketari erreparatzen badiogu; txikixeagoak dira, ordea, populazio-mailaren arabera alderaketa egiten badugu. Esate baterako, bost udal-zergak batera kon-tuan hartzen baditugu, ikusten da udalen batez besteko diru-bilketa 315,5 eurokoa dela biztanle bakoitzeko 2011-2015 aldian, eta ondasun higiezinaren gaineko zergak hartzen du kopuru horren erdia baino gehiago.

4.9 koadroa. Udal-zergak: biztanle bakoitzeko diru-bilketa (eurotan), populazio-mailaren arabera. EAE, 2011-2015eko batez bestekoa.

	OHZ	TMIZ	HLBGUZ	EJZ	EIOZ	GUZTIRA
<1.000 biztanle	174,3	67,2	6,9	42,1	36,1	326,5
1.001-5.000 biztanle	158,3	67,6	13,8	67,0	31,6	338,3
5.001-20.000 biztanle	157,8	66,7	13,6	43,7	25,9	307,6
>20.000 biztanle (<i>≠ hiriburuak</i>)	157,8	55,3	15,6	36,4	17,8	282,9
Hiriburuak	170,6	55,8	45,6	47,7	22,3	341,9
Guztira	162,7	59,7	25,3	44,9	22,9	315,5
Gehieneko balioa*	832,1	189,1	75,4	2.079,7	469,2	2.721,7
Gutxieneko balioa*	23,1	10,4	0,0	0,0	0,0	83,4

* 251 udalerrien guztizkoaren barnean.

Iturria: Geuk egina, Eustatek emandako datuetan oinarrituta

Hurrengo koadroak agerian uzten duen bezala, araubide erkideko toki-erakundeek bost udal-zerga horien bidez lortutako biztanle bakoitzeko diru-bilketa metatua 429,4 eurokoa da 2011-2015 aldian; EAeko batez bestekoa (315,5 euro) baino % 36 handiagoa.

4.10 koadroa. Udal-zergak: biztanle bakoitzeko diru-bilketa, populazio-mailaren arabera. Araubide erkideko toki-erakundeak, 2011-2015eko batez bestekoa.

	OHZ	TMIZ	HLBGUZ	EJZ	EIOZ	GUZTIRA
<= 5.000 biztanle	245,0	52,0	11,7	26,6	15,0	350,4
5.001-20.000 biztanle	280,4	53,0	28,5	25,1	11,6	398,6
20.001-50.000 biztanle	290,2	52,6	35,3	26,9	11,5	416,4
50.001-100.000 biztanle	317,8	51,8	52,1	33,9	11,1	466,7
100.001-500.000 biz.	263,8	51,9	38,1	35,4	12,7	402,0
> 500.000 biztanle	332,7	48,4	93,8	43,7	17,3	535,9
Guztira	288,0	51,6	44,3	32,3	13,2	429,4

Iturria: Geuk egina, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak eta EINek emandako datuetan oinarrituta

Horri dagokionez, lurralde historikoetan udal-zergak arautzen dituzten foru-arauek kudeaketa-marjina ematen die udalei, eta, marjina horri esker eta betiere beren zerga-autonomiaren arabera, tributu-sarrera handiagoak edo txikiagoak lor ditzakete udalek, egokitzat joz gero, hainbat motatako karga, tarifa, hobari eta/edo kenkariak aplika baititzakete. Jakina, oreka ezinbestekoa da, bai zerga-kudeaketa horretan, bai kudeaketa horrek tokian tokiko gainerako diru-sarrerekin izan beharreko loturetan.

Adibide gisa, ondorengo koadroan laburtuta dago 2015ean lurralde bakoi-tzean indarrean dagoen bost udal-zergetako arau-esparrua, zerga bakoitzeko gutxieneko eta gehieneko tasei edo tarifei dagokienez.

4.11 koadroa. Udal-zergak: gutxieneko eta gehieneko karga/tarifa mota aplikagarriak foru-araudiaren arabera. 2015

			Gutxieneko karga/tarifa mota aplikagarria			Gehieneko karga/tarifa mota aplikagarria		
			Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
OHZ³⁵								
Ondasun higiezinak (landasunak)			% 0,15	% 0,30	% 0,30	% 1,10	% 1,50	% 1,10
Ondasun higiezinak (hiri-ondasunak)			% 0,15	% 0,40	% 0,04	% 1,50	% 3,00	% 0,40
Industrialak					% 0,04			% 0,60
Etxebizitza hutsengatikotik errekargua					% 0,00			% 150,00
EBOH (ezaugarri berezietako ondasun higiezinak)								
- Izaera gehigarria (ez dago ordenantzarik)			% 0,60			% 0,60		
- Baldin eta ordenantza badago			% 0,40			% 1,30		
EJZ								
Koefiziente bakarra			0,80	0,80	0,80	2,20	2,20	2,20
Haztapen-koefizientea*			1,00	1,00	1,00	1,20-1,30	1,20-1,30	1,29-1,35
Egoera-indizea			0,50	0,50	0,50	2,00	2,00	2,00
TMIZ			1,00	1,00	1,00	3,00	3,00	3,00
HLBGUZ								
Karga mota			% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 30,00	% 30,00	% 15,00
Ehunekoak**			% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 3,0 - % 3,7	% 3,0 - % 3,7	% 2,9 - % 3,6
EIOZ			% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 5,00	% 5,00	% 5,00

*Eragiketa-bolumena **Igoera zer denbora-tartetan gertatu den (urteak)

Iturria: Geuk egina

Indarrean dagoen araudi-esparrua kontuan hartuz eta lurralde bakoitzean aplikatu daitezkeen karga-tasa edo tarifa desberdinen eta bost udal-zergengatik bildutakoaren garrantzi erlatiboaren arabera, EAEko toki-erakundeek gutxi gorabeherako zerga-ibiltarteak kalkulatu daitezke. Udaletako zerga-ordenantzetan onetsitako batez besteko karga-tasa eta tarifetan oina-

³⁵ Koadroan jaso diren Bizkaiko OHZ motak aldatu egin dira 4/2016 Foru Araua indarrean jarri zenez geroztik. Gaur egun, lurralde horretako gehieneko karga % 0,6koa da hiri-ondasunetarako eta % 0,5ekoa landasunetarako.

rrituta, lurralde bakoitzeko foru-arauetan ezarrita dauden gehieneko bali-oen barnean zenbateko estaldura izango lukeen islatuko luke zerga-ibiltarte horrek.

EAEko toki-erakundeen batez besteko zerga-ibiltartea % 48,3 da 2015ean, gehieneko teorikoa % 100 dela aintzat hartuta. Baliorik txikiena biztanle gutxieneko udalerriei dagokie (% 40,2); 1.001-5.000 populazio-mailan ehu-neko hori % 48,5 da, eta 5.000 biztanletik gorako udalerrietan, berriz, % 59,7. Hiriburuetan, batez besteko zerga-ibiltartea % 53,7 da. Horri dago-kionez, zerga-ibiltarte potentziala edo gorena dela zehaztu behar da; beste modu batean esanda, ez ditu aintzat hartzen udalek zergei aplikatzen dizkie-ten eta biztanle bakoitzeko bildutako zergetan zuzeneko eragina duten ho-bariak eta kenkariak³⁶.

Zerbitzuak emategatiko tasa eta prezio publikoen ondoriozko diru-sarrereri dagokienez, 2015eko zenbateko orokorra 928,3 milioi eurokoa da hiru era-kunde-mailetan. Kopuru hori diru-sarrera propio erantsiaren % 49,5 da.

545,5 milioi euroko guztizkoarekin, tasa eta prezio publikoen ondoriozko erakundeen diru-sarreretan toki-erakundeek duten partaidetza erlatiboa gailentzen da (% 58,8), foru-aldundiekin (183,6 milioi) eta Eusko Jaurlari-tzarekin (199,2 milioi) alderatuta.

Testuinguru horretan eta araubide erkideko toki-erakundeekiko alderake-tari dagokionez, kontuan izan behar da I., II. eta III. kapituluetakoko diru-sarreretan EAEko toki-erakundeen presio fiskala pertsona bakoitzeko 550,2 eurokoa dela batez beste, 2011-2015 aldian; hots, araubide komuneko toki-erakundeen batez besteko presio fiskala (604,7 euro biztanle bakoitzeko) baino % 9,0 txikiagoa aldi horretan.

³⁶ Tributu-figura bakoitzaren garrantzi erlatiboak, ordea, hobarien eta kenkarien eragina islatzen du, zerga bakoitzaren bilketa likidoan oinarrituta baitago.

4.2.3 DIRU-SARRERA FINALISTAK

Adierazi dugun bezala, erakundeen diru-sarrera finalistak diru-laguntzetarako programa, hitzarmen eta akordio jakin batzuetatik eta antzekoetatik datoz. 2015ean, 431,9 milioi euro izan dira guztira; hau da, erakundeek eskuragarri dituzten diru-sarreraren guztizkoaren % 2,8.

4.12 koadroa. Diru-sarrera finalistak erakunde-mailaren arabera. EAE, 2015

	Guztira	Eusko Jaurlaritza	Foru- aldundiak	Toki- erakundeak
<i>Euroak, milakotan</i>				
Euskal Y-a	115.043	115.043	0	0
Autonomia eta Mendekotasunaren Arretarako Sistema	62.366	0	58.239	4.127
Diru-laguntzak, hitzarmenak eta bestelakoak	254.460	10.682	19.511	224.267
DIRU-SARRERA FINALISTAK	431.869	125.725	77.750	228.394
<i>Erakunde-banaketa (ehunekoa)</i>				
Euskal Y-a	100,0	100,0	-	-
Autonomia eta Mendekotasunaren Arretarako Sistema	100,0	-	93,4	6,6
Diru-laguntzak, hitzarmenak eta bestelakoak	100,0	4,2	7,7	88,1
DIRU-SARRERA FINALISTAK	100,0	29,1	18	52,9

Iturria: Geuk egina, Sektore Publikoaren Aurrekontu Estatistiketatik (Eustat) ateratako datuetan oinarrituta

Eusko Jaurlaritzari dagokionez, diru-sarrera finalistaren gehiengoa (125,7 milioi euro 2015ean) Euskal Trenbide Sare Berria³⁷ eraikitzeke obra ziurtagiriarekin aitortutako eskubideei dagokie, eta horretarako Estatuko Administrazio Orokorrarekin sinaturiko hitzarmenarekin bat datoz. Eskubide horien zenbatekoa altua dela kontuan izanik (115 milioi euro), diru-sarrera finalistat hartu dira, azpiegitura hori eraikitzeke gastuak ordaintzeko erabiltzen baitira osorik.

³⁷ 2006an lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zen Estatuko Administrazio Orokorraren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Trenbide Azpiegituren Administrazioarekin (ADIF) artean, Euskal Autonomia Erkidegoan trenbide-sare berria eraikitzeke.

Komeni da gogoraraztea Eusko Jaurlaritzak egindako obren kostua Estatuaren eskumen eskusibo bati dagokiola eta, horrenbestez, kupoan minorazioen bitartez finantzatzen dela, Ekonomia Itunaren laugarren xedapen gehigarriari jarraikiz sorturiko gastuen konpentsazio gisa.

Arrazoibide berberarekin, diru-sarrera finalistat hartzen dira lurralde historikoek Autonomia eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren (AMAS) gutxieneko babes-maila finantzatzeko jasotzen dituzten diru-sarrerak (guztira, 62,4 milioi euro), baita Eusko Jaurlaritzak Estatuarekin sinaturiko beste hitzarmen eta akordio batzuen esparruko diru-sarrerak ere³⁸.

Aipatutako zifrek agerian uzten dute diru-sarrera finalistak oso iturri garrantzitsua direla toki-erakundeentzat gehien-gehienak diru-laguntzetarako programen, hitzarmenen, akordioen eta antzekoen epigrafean daude zenbaita (224,3 milioi euro).

Horri dagokionez, kontuan izan behar dugu EAEko udalerriek eta toki-erakundeek beste bi erakunde-mailetatik datozen diru-sarrerak jasotzen dituztela transferentzia arrunten eta kapital-transferentzien bitartez (2015ean, 200 milioi eurotik gorakoak izan dira transferentzia horiek), Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek garaturiko politika publikoak beteazteko.

Jada adierazi den bezala, 2016an Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen indarraldia hasi zenetik hona, udalen eta bestelako toki-erakundeen finantzaketak baldintzatu gabea izan behar du, oro har (111.1 artikulua). Halaber, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak xedatzen duenez, baldintzatutako finantzaketarako mekanismoak salbuespenez baino ezingo dira ezarri, eta arauzko xedapen autonomiko edo arauzko foru-xedapen bidez edo erakundeen edo foru-erakundeen diru-laguntza politika jakin baten bitartez. Honako printzipio hauek bete beharko dira (111.2 artikulua): toki-

³⁸ Halakotzat hartzen da, esate baterako, Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioarekin izenpetutako lankidetzeta-hitzarmena, Espainiako Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoak txertaturiko oinarriko lanbide-heziketa berria ezartzeko, Europako Gizarte Funtsak lagundutako finantzaketarako prozedura artikulatzeko.

erakundeen parte-hartzea; aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna, eta zerbitzu publikoen efizientzia, efikazia eta kalitatea.

Testuinguru horretan, halere, EAek eta foru-aldundiek toki-erakundeei emandako transferentzia eta diru-laguntza guztiak aztertu ondoren (dago-kigun kasuan, 2017ko ekitaldikoak), esan dezakegu transferentzia horietako gehienak Eusko Jaurlaritzaren edo foru-aldundien eskumen propioei dagozkiela eta toki-erakundeak direla onuradunak (halako kasuetan, politika publiko orokorren onuradun gisa edo gertutasuneko instantzia gisa jarduten dute toki-erakundeek), nagusiki beren eskumeneko esparru material zehatzak sustatzeko duten gaitasuna betetzeko. Horrenbestez, ulertu behar dugu haiek bizirik irauteak ez duela aldatzen udal-finantzaketaren araubidea.

Aitzitik, udal-eskumenak finantzatzera bideratutako transferentzia baldintzatuak egongo balira, haiek bereizi beharko genituzke:

- 1) ETELen aurreko edo ondorengo araudi sektorialak aitortutako eskumen propioek dagokien finantzaketa dute, eta ez litzaieke Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien finantzaketa osagarririk eman beharko.
- 2) 17.1 artikuluko esparru materialetan gauzaturiko eskumen propioen kasuan, haien irismena zehazten duen sektore-araudirik ez badago, toki-erakundearen kontura edota dagokien administrazioarekiko lan-kidetza-hitzarmenen bitartez finantzatu ahalko dira.
- 3) Eskumenen klausula orokorraren ondorio diren udal-jarduera, presazio eta zerbitzuen kasuan, toki-erakundeak berak finantzatu ahalko ditu, baldin eta legeak ez badu esanbidez hori ekiditen; edo diru-laguntza politika espezifiko baten eraginpean egon ahal izango dira (nahiz eta salbuespenezko finantzaketa modu bat izan).

Horretarako, alabaina, komenigarria da bereiztea dagozkion foroetan (erakunde arteko organoetan, finantza-arloko lurralde-kontseiluetan eta abarretan) transferentzia horietako zein diren toki-erakundeen eskumen propioak gauzatzearen esparrukoak, hala badagokie, finantzaketa-mekanismo egoikiak ezartzea egokitzat jo behar ote den ala ez erabakitzeke, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 111. artikuluan xedaturikoari jarraikiz.

Hala eta guztiz ere, transferentzia horien artean honako hauek salbuetsi behar dira: batetik, gizarte-larrialdiko laguntzak finantzatzeko transferentziak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean araubide iragankor baten eraginpekoak baitira (zortzigarren xedapen iragankorra); bestetik, udal-titulartasuneko musika-eskolak eta udal-euskaltegiak finantzatzeko transferentziak, horiek ere Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean araubide espezifiko baten eraginpekoak (zazpigarren xedapen iragankorra).

Bestalde, egia da Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen indarraldia hasi zenetik hona, ez dela onetsi udalei eta toki-erakundeei eskumen propioak ematen dizkien sektore-araudirik, baina Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 7. artikulua propio gisa esleitzen die udalei euskararen erabilera sustatzeko eta haren normalizazioa planifikatzeko eskumena (betiere haien esleipen-esparruari dagozkion zerbitzu eta jardueretan), baita dagokien lurraldean euskararen jakintza bultzatzeko eta euskaren erabilera dinamizatzeko eskumena ere. Ondorioz, lehen adierazitako irizpideei jarraikiz, birplanteatu egin beharko litzateke eskumen horien finantzaketa gehigarria, Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien transferentzia baldintzatuen bitartez.

Azkenik, Gizarte Zerbitzuen Ezohiko Funtsaren ondorio diren transferentziak aipatu behar dira; 2016rako, 2017rako eta 2018rako ezarri zen funts hori, Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoaren hornidurarako finantza-nahikotasuna bermatzeari begira Herri-Dirubideen Euskal Finantza Kontseiluan harturiko erabakiei jarraikiz. Txosten honen ondorioetarako, honen bestez, kontuan hartu beharko litzateke Eusko Jaurlaritzak Ezohiko Funts horri ekarritako kopurua baliabide-banaketarako eremuan baldintzatu gabeko finantzaketa gisa txertatzeko eta, horrenbestez, etorkizuneko ekarpen-metodologian horixe islatzeko aukera.

4.2.4 ERAKUNDEEN ZORPETZEA ETA AURREKONTU-EGONKORTASUNeko ETA ZOR PUBLIKOKO HELBURUAK

Dakigun bezala, gastu publikoa finantzatzeko zorpetzera jo ahal izatea baldintzatzen du aurrekontu-egonkortasuneko politikaren inguruan indarrean den esparru juridikoak. 2001eko bukaeran, Espainiako estatuak aurrekontu-egonkortasuneko politika finkatu zuen abenduaren 12ko 18/2001 Legearen eta abenduaren 13ko 5/2001 Legearen bitartez; 1997an EDBko estatu ki-deek sinaturiko Egonkortasun eta Hazkunde Itunean zehaztu zen politika hori.

Geroago, egonkortasun-politikaren bi erreforma egin ziren: bat, 2007an; bestea, gaur egun indarrean dagoena, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren bidez gauzatu; 2/2012 Legeak, testu bakar baten bidez, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako administrazio publiko guztien, toki-korporazio guztien eta Gizarte Segurantzaren aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna arautzen ditu.

Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoaren III. kapituluak nobedade garrantzitsuak txertatzen ditu erakunde publikoetarako; izan ere, administrazio publiko bakoitzerako eta autonomia-erkidego bakoitzerako aurrekontu-egonkortasuneko eta zor publikoko helburuak finkatzeko irizpideak arautzen ditu.

Kasu baterako, administrazio publiko guztiek oreka edo superabita eduki behar dute, eta ezin dira egiturazko defizitean erori³⁹. Halaber, Europako araudian ezarritako gastu-araua ere txertatzen da; horren arabera, administrazio publikoen gastua ezin izango da igo Barne Produktu Gordinaren erreferentziatzko hazkunde-tasatik gora.

³⁹ Legean tasaturiko salbuespenezko egoeretan eduki ahalko dute egiturazko defizita Estatuak eta autonomia-erkidegoek (hondamendi naturalak, atzeraldi ekonomikoa edo ezohiko estutasun-egoera), eta Estatuko Diputatuen Kongresuaren gehiengo absolutuak balioetsi beharko ditu halako egoerak.

Arau horren osagarri gisa, agindu hau ere jaso da: aurreikusitakoak baino diru-sarrera gehiago daudenean, horiek ez erabiltzea gastu berriak finantzatzeko, gutxiago zorduntzeko baizik.

Era berean, administrazio publikoen zor-muga ere finkatzen da; ez da Europako araudian ezarritako erreferentzia-balioa (Barne Produktu Gordinaren % 60) baino handiagoa izango, egiturazko defizita edukitzea posible den salbuespen-egoera berberetan izan ezik. Horretaz gain, ezartzen da zor publikoaren interesak eta kapitala ordaintzeak erabateko lehentasuna izango duela beste edozein gasturen aurrean.

2/2012 Lege Organikoaren azken xedapenetako hirugarrenaren arabera, lege horretan xedaturikoa EAEn aplikatzerakoan eta haren bere foru-araubidea dela-eta, Ekonomia Itunari buruzko Legean xedatutakoa beteko da; zehazki, hauek: i) Aurrekontu-egonkortasunaren arloan Espainiako estatuarekin koordinatuta eta lankidetzan aritzea (48. artikulua) eta ii) Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoari aurrekontu-egonkortasunaren arloko lankidetzeta eta koordinazioari buruzko konpromisoak erabakitzeke eginkizuna esleitzea (62. artikulua). Aurreikuspen horiek Ekarpenei buruzko Legearen bigarren xedapen gehigarrian ere bildu dira (1. atala).

4.13 koadroa. Aurrekontu-egonkortasuneko eta zor publikoko EAerako helburuak (Barne Produktu Gordinaren ehunekoa).

	Aurrekontu-egonkortasuna	Zor publikoa
2013	% -1,2	% 12,9
2014	% -1,0	% 14,1
2015	% -0,7	% 14,2
2016	% -0,7	% 14,6
2017	% -0,6	% 14,7
2018	% -0,4	% 14,2
2019	% -0,1	% 13,8
2020	% 0,0	% 13,2


Aurrekontu-egonkortasuneko helburua 2018-2020 aldirako, Finantzaketa Gaitasuna (+) Premia (-), SEC-2010.

Iturria: Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioa.

EAeri dagokionez, aurrekontu-egonkortasuneko eta zor publikoko helburuak % 0,7 eta % 14,2 izan dira 2015ean, hurrenez hurren, eta beheranzko joera du 2020ra arte⁴⁰ (% 0,0 eta % 13,2, hurrenez hurren).

Aurrekontu-egonkortasuneko eta zor publikoko helburuak betetzeko konpromisoen egoera horretan, Eustaten aurrekontu-estatistikek islatzen dute 2015ean EAeko erakundeek harturiko zorpetzea 1.462,3 milioi eurokoa izan dela guztira; zenbateko horren % 79,5 Eusko Jaurlaritzari dagokio; foru-aldundiei, berriz, % 18,2, eta toki-erakundeei, azkenik, % 2,3.

4.9 grafikoa. Zorpetzearen diru-sarreraren banaketa, erakunde-mailaren arabera (%). Guztira EAEn, 2015



Iturria: Geuk egina, Sektore Publikoaren Aurrekontu Estatistiketatik ateratako datuetan oinarrituta (Eustat)

Kontuan izan behar da 2015ean zorraren epemugak ordaintzeko eta gastu aurrekontuak finantzatzeko baliatu dela zorpetze publikoa, aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuei jarraikiz. Baina, aintzakotzat harturik 2020rako finkaturiko helburua aurrekontu-oreka lor-tzea dela (hots, % 0ko defizita, foru-aldundiak eta toki-erakundeak eragin-

⁴⁰ Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 2017ko uztailearen 19ko bederatzigarren erabakiaren bitartez, aurrekontu-egonkortasuneko eta zor publikoko helburuak onetsi ziren 2018-2020 aldirako

pean hartzen dituen jada, 2/2012 Lege Organikoa indarrean hasi zenez geroztik), hemendik 2 urtera desagertu egingo da gastuak finantzatu ahal izateko zorpetzera jo ahal izateko aukera, eta zorraren epemugak ordaintzeko baino ezin izango da erabili.

Horrek esan nahi du foru-aldundien ekarpenak izango direla Eusko Jaurlaritzaren diru-sarreretakoa ia iturri bakarra; horregatik, haien zenbatekoaren eta bilakaeraren arabera izango dira EAEko erakunde komuneko gastu-aukerak.

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, zorpetze garbia⁴¹ (hau da, zorraren epemuga ordaintzeko erabiltzen ez dena) 476,7 milioi eurokoa izan da 2015ean; Eusko Jaurlaritzaren guztizko diru-sarreraren % 4,8. Ehuneko horrek 4,3 puntutan gainditzen du foru-aldundiei dagokien ehuneko (% 0,5). Toki-erakundeek, bestalde, zorpetzearen ondoriozkoak ez diren diru-sarreraren zati bat zorra amortizatzeko erabili behar izan dute, eta horien bidez ia 55 milioi eurotan murriztu da zorraren amortizazioa.

4.14 koadroa. Zorpetzea, erakunde-mailen arabera. Guztira EAEn, 2015.

	Guztira	Eusko Jaurlaritza	Foru-aldundiak	Toki-erakundeak
<i>Euroak, milakotan</i>				
Zorpetzea, guztira	1.462.315	1.163.018	265.900	33.397
Zorpetze garbia	437.216	476.692	15.497	-54.973
<i>Erakunde-banaketa (ehunekoa)</i>				
Zorpetzea, guztira	100,0	79,5	18,2	2,3
Zorpetze garbia	100,0	99,5	9,5	-9,0

Iturria: Geuk egina, Sektore Publikoaren Aurrekontuen Estatistiketan oinarrituta (Eustat)

Testuinguru horretan, zor biziak⁴² (abendua 31n ordaintzeke zegoen zorrak) honako bilakaera hau izan zuen hiru erakunde-mailetan 2007-2015 aldian:


⁴¹ Zorpetze garbia EUSTATEk argitaraturiko aurrekontu-likidazioari buruzko datuekin kalkulatu dago.

⁴² Eusko Jaurlaritzak 2007an zuen zorrari dagokion datua ez dator bat EUSTATEk argitaratutakoarekin, eta, horrenbestez, aldatu egin da, Herri-kontuen Euskal Epaitegiak argitaratutakoarekin bat etorrira.

4.15 koadroa. Finantza-zor biziaren bilakaera, erakunde-mailaren arabera. EAE, guztira.

	Guztira		Eusko Jaurlaritza		Foru-aldundiak		Toki-erakundeak	
	Euroak, milakotan	Euroak, milakotan	%	Euroak, milakotan	%	Euroak, milakotan	%	
2007	2.705.494	1.243.769	52,8	952.699	30,8	509.026	16,4	
2008	2.889.738	1.266.900	43,8	1.073.484	37,1	549.354	19,0	
2009	4.594.505	2.616.750	57,0	1.352.337	29,4	625.418	13,6	
2010	6.801.320	4.382.100	64,4	1.736.834	25,5	682.386	10,0	
2011	7.616.015	4.900.287	64,3	2.033.984	26,7	681.744	9,0	
2012	8.804.976	6.088.504	69,1	2.062.695	23,4	653.777	7,4	
2013	9.889.658	7.087.726	71,7	2.192.029	22,2	609.903	6,2	
2014	10.469.369	7.748.243	74,0	2.171.029	20,7	550.097	5,3	
2015	10.948.962	8.227.242	75,1	2.216.776	20,2	504.944	4,6	

4.10 grafikoa. Finantza-zor biziaren osaera, erakunde-mailaren arabera. EAE, guztira (%)



Iturria: Geuk egina, Sektore Publikoaren Aurrekontuen Estatistiketan oinarrituta (Eustat)

5. EAE-KO GASTU PUBLIKO BATERATUA: ERAKUNDE- IKUSPEGITIK EGINDAKO DIAGNOSTIKOA

5. EAE-KO GASTU PUBLIKO BATERATUA: ERAKUNDE- IKUSPEGITIK EGINDAKO DIAGNOSTIKOA

5.1 GASTU PUBLIKO BATERATUAREN AZTERKETA: SAILKAPEN EKONOMIKOAREN ARABERA

Gastu-aurrekontuaren sailkapen ekonomikoak agerian uzten du gastua nola gauzatzen den. Horretarako, gastu-aurrekontuaren kredituak izaera ekonomikoaren arabera ordenatzen dira, honela sailkatuta:

- Eragiketa arruntetarako kredituak eta zerbitzu publikoek behar bezala funtziona dezaten egiten diren gastuak (langileria-gastuak eta ondasun- eta zerbitzu-gastuak).
- Kapital-eragiketetarako kredituak (inbertsio errealetako gastuak).
- Finantza-eragiketetarako kredituak (adibidez, maileguen amortizazioak).

Sailkapen ekonomikoak hiru maila ditu: kapitulua, artikulua eta kontzeptua⁴³. Sailkapen ekonomikoan, halaber, eragiketa ez-finantzarioak (1. gastu-kapitulutik 7.era) eta finantzarioak (8. eta 9. gastu-kapituluak) bereizten dira, eta ez-finantzarioen artean ere bi motatako eragiketak daude: eragiketa arruntak (1. gastu-kapitulutik 4.era) eta kapital-eragiketak (6. eta 7. gastu-kapituluak).


Diru-sarrerekin egin bezala, Eustatek argitaratutako aurrekontu-likidazioak hartu dira erreferentziazat, eta zera ikusi da: EAEko administrazio publikoen gastu orokor bateratua 16.438 milioi eurokoa izen zela 2015ean. Zifra hori, hain zuzen, krisialdia hasi aurreko balioak baino altuagoa da, baina erregistraturiko handiena baino % 6,8 txikiagoa (handiena 2009an erregistratu zen: 17.636 euro).

⁴³ Kontzeptu bakoitzak ere azpikontzeptuak izan ditzake. Informazioaren zehaztapena aldatu egiten da toki-erakunde batetik bestera, baina guztiek eman behar dute, gutxienez, kontzeptu-mailarainoko informazioa.

5.1 koadroa. EAEko administrazio publikoen diru-sarrera eta gastu bateratuen bilakaera.

	Diru-sarrera bateratuak EAEko administrazioak (1)		Gastu bateratuak EAEko administrazioak (2)		(1-2)
	Euroak, milakotan	Urte arteko ehunekoa (%)	Euroak, milakotan	Urte arteko ehunekoa (%)	
2007	16.505.851	10,4	15.413.990	9,9	1.091.861
2008	16.326.787	-1,1	16.739.868	8,6	-413.081
2009	16.240.100	-0,5	17.635.819	5,4	-1.395.719
2010	17.426.081	7,3	17.178.072	-2,6	248.009
2011	16.652.543	-4,4	16.746.373	-2,5	-93.830
2012	16.304.707	-2,1	15.771.212	-5,8	533.495
2013	16.316.236	0,1	15.682.799	-0,6	633.437
2014	16.560.960	1,5	16.182.451	3,2	378.509
2015	16.618.041	0,3	16.438.340	1,6	179.701

5.1 grafikoa. EAEko administrazio publikoen diru-sarrera eta gastu bateratuen bilakaera.



Iturria: *Sektore Publikoaren Aurrekontuen Estatistikak. Eustat*

Hiru erakunde-mailak batera aztertuta, eta gastuen sailkapen ekonomikoari erreparatuz gero, zera ikusi da: nabarmena dela eragiketa arruntek daukaten garrantzia (guztizkoaren % 83,9). Eragiketa arruntak, hain zuzen, hiru kapitulu hauetan kontzentratzen dira batez ere: langileria gastuetan

(% 21,3), ondasun arruntengatiko gastuetan eta zerbitzu-gastuetan (% 31,7) eta transferentzia arruntetan (% 29,1). Finantza-gastuak (interesak), ordea, gastu bateratuaren % 1,8 dira. Kapital-eragiketek balio berdintsuak dituzte: % 4,4 inbertsio errealek eta % 4,2 kapital-transferentziek, 2015ean. Finantza-eragiketei dagokienez (guztizkoaren % 7,6), bolumenik handiena finantza-pasiboengatiko gastuena da (guztizko gastuaren % 6,2).

5.2 koadroa. EAEko administrazio publikoen gastu bateratuak. 2015

	EAEko gastu bateratua, guztira	
	Euroak, milakotan	%
Langileria-gastuak	3.500.838	% 21,3
Ondasun arruntengatiko gastuak eta zerbitzu-gastuak	5.203.441	% 31,7
Finantza-gastuak	297.041	% 1,8
Transferentzia arruntak	4.776.155	% 29,1
Inbertsio errealak	725.172	% 4,4
Kapital-transferentziak	686.329	% 4,2
Finantza-aktiboak	224.265	% 1,4
Finantza-pasiboak	1.025.099	% 6,2
GASTU BATERATUAK, GUZTIRA	16.438.340	% 100,0

Iturria: Sektore Publikoaren Aurrekontuen Estatistikak. Eustat

5.3 koadroa. Eusko Jaurlaritzaren eta lurralde historikoen gastuak. Erakunde-mailen datuak, bateratu gabeak. 2015

	EUSKO JAURLARITZA		Lurralde historikoak	
	Euroak, milakotan	%	Euroak, milakotan	%
Langileria-gastuak	2.009.579	% 19,7	1.491.259	% 10,0
Ondasun arruntengatiko gastuak eta zerbitzu-gastuak	3.349.420	% 32,9	1.854.021	% 12,4
Finantza-gastuak	231.060	% 2,3	65.981	% 0,4
Transferentzia arruntak	3.072.218	% 30,2	10.305.234	% 69,1
Inbertsio errealak	211.912	% 2,1	513.260	% 3,4
Kapital-transferentziak	542.090	% 5,3	187.980	% 1,3
Finantza-aktiboak	73.030	% 0,7	151.235	% 1,0
Finantza-pasiboak	686.326	% 6,7	338.773	% 2,3
GASTU BATERATU GABEAK, GUZTIRA	10.175.635	% 100,0	14.907.743	% 100,0

Iturria: Geuk egina, Sektore Publikoaren Aurrekontuen Estatistiketan oinarrituta. Eustat

Eusko Jaurlaritzaren eta lurralde historikoen gastuen banakapenari erreparatuz (bi erakunde-maila horien bateratzea gauzatu aurretik, betiere), zera ikus dezakegu: bi erakunde-mailen gastu-egiturak desberdinak direla. Desberdintasun hori bat dator, hain zuzen, EAEn finantzaketarako eta gastu publikorako dugun ereduarekin.

Foru-aldundien eta toki-erakundeen gastu-egituretan ere ikusten da alde handia dagoela kapitulu bakoitzaren pisan. Arrazoia da erakundeen arteko bateratzerik ez dela egon oraindik eta, ondorioz, Eusko Jaurlaritzari eta lurraldeko toki-erakundeei egin beharreko transferentziak jasotzen dituztela foru-aldundien gastuek.

5.4 koadroa. Foru-aldundien eta toki-erakundeen gastuak. Erakunde-mailen datuak, bateratu gabeak. 2015

	Foru-aldundiak		Toki-erakundeak	
	Euroak, milakotan	%	Euroak, milakotan	%
Langileria-gastuak	489.859	% 3,6	1.001.400	% 33,6
Ondasun arruntengatiko gastuak eta zerbitzu-gastuak	649.014	% 4,8	1.205.007	% 40,4
Finantza-gastuak	53.265	% 0,4	12.716	% 0,4
Transferentzia arruntak	11.600.279	% 85,5	292.185	% 9,8
Inbertsio errealak	174.759	% 1,3	338.501	% 11,4
Kapital-transferentziak	207.263	% 1,5	30.548	% 1,0
Finantza-aktiboak	140.088	% 1,0	11.147	% 0,4
Finantza-pasiboak	250.403	% 1,8	88.370	% 3,0
GASTU BATERATU GABEAK, GUZTIRA	13.564.930	% 100,0	2.979.874	% 100,0

Iturria: Geuk egina, Sektore Publikoaren Aurrekontuen Estatistiketako informazioan oinarrituta. Eustat

Behin erakundeen arteko bateratzeak egin eta gero, hiru erakunde-mailetak bakoitzaren gastuaren egitura du hurrengo koadroak. Gastu arrunta guztizkoaren zatirik garrantzitsuena da hiru erakunde-mailetan; zehazki, % 85,3 Eusko Jaurlaritzan, % 73,4 foru-aldundietan eta % 83,9, batez beste, toki-erakundeetan.

Toki-erakundeen langileria-gastuak Eusko Jaurlaritzarenak baino handiagoak direla dirudien arren, kontuan izan behar da Osakidetzako langileria-gastuak 2. kapitulu daudela sartuta, kontratu-programaren bitartez. Ho-

rrren ildotik, kontuan hartu behar da itundutako ikastetxeetako langileak transferentzia arrunten kapituluan daudela zenbatuta.

5.5 koadroa. EAEko administrazioen gastu bateratuak, erakunde-mailen arabera. 2015

	Eusko Jaurlaritza		Foru-aldundiak		Toki-erakundeak	
	Euroak, milakotan	%	Euroak, milakotan	%	Euroak, milakotan	%
Langileria-gastuak	2.009.579	20,2	489.859	17,9	1.001.400	34,6
Ondasun arruntengatiko gastuak eta zerbitzu-gastuak	3.349.420	33,6	649.014	23,7	1.205.007	41,6
Finantza-gastuak	231.060	2,3	53.265	1,9	12.716	% 0,4
Transferentzia arruntak	2.912.499	29,2	819.157	29,9	212.029	7,3
Inbertsio errealak	211.912	2,1	174.759	6,4	338.501	11,7
Kapital-transferentziak	498.972	5,0	160.293	5,9	27.069	0,9
Finantza-aktiboak	73.030	0,7	140.088	5,1	11.147	0,4
Finantza-pasiboak	686.326	6,9	250.403	9,1	88.370	3,1
GASTU BATERATUAK, GUZTIRA	9.972.798	100,0	2.736.838	100,0	2.896.239	100,0

Iturria: Geuk egina, Sektore Publikoaren Aurrekontuen Estatistiketako informazioan oinarrituta. Eustat

Bestalde, nahiz eta kapital-eragiketen garrantzi erlatiboa % 12tik gorakoa izan bai foru-aldundietan bai toki-erakundeetan, barne-egitura nabarmen desberdina da bi erakunde-maila horietan: % 6,4 inbertsio errealetan eta % 5,9 kapital-transferentzietan foru-aldundietan, eta % 11,7 eta % 0,9, hurrenez hurren, toki-erakundeetan.

Azkenik, nabarmentzekoa da finantza-eragiketek duten bolumena foru-aldundietan (% 14,2), non pisu erlatibo handiena finantza-pasiboek duten (% 9,1). Eusko Jaurlaritzan, ordea, finantza-eragiketak % 7,6 dira, hein handi batean zorraren amortizazioa dela-eta (% 6,9). Hain zuzen, toki-erakundeetan izan dute garrantzi txikiena finantza-eragiketek (% 3,5), eta erakunde-maila horretan ere zorra amortizatzeko erabili dira ia erabat.

5.2 GASTU PUBLIKO BATERATUAREN FINANTZAKETA

EAEko administrazio publikoen diru-sarrereren iturriak zein diren eta gastu publikoak erakunde-mailen arabera eta izaera ekonomikoa kontuan hartuz nola banatu diren aztertu ondoren, egokia da gastuak eta diru-sarrerak alderatzea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen lehenengo xedapen iragankorrean xedatutakoan sakontzeko datuak edukitze aldera, kontuan izanik hori dela, hain zuzen ere, azterlan honen funtsa eta gaia.

Finantzaketaren egokitasunari buruzko azterketari heltzeko, funtsezkoa da jakitea finantza-nahikotasunaren printzipioa zer neurritan betetzen den, bai EAEko administrazio osoaren ikuspegitik, oro har, bai hura osatzen duten erakunde-mailetako bakoitzean printzipio horrek duen eraginari dagokionez.

Erakunde-maila bakoitzak esleituta duen gastu-bolumenari batera eta banaka erantzuteko daukan ahalmena kalkulatzeko, azterlan honen aurreko epigrafeetan ageri den informazio ekonomikoa hartu da oinarri gisa. Hala, bada, kontuan hartu behar da jarraian azaltzen den informazioa azterlan honetan baliaturiko metodologiaren ondoriozkoa dela soilik. Horrenbestez, azterlan honetako emaitzek ez dute ezinbestean bat etorri behar EAEko administrazio publikoen sektorea osatzen duten erakundeek egindako aurrekontu-likidazioekin, kontularitza nazionalean agertzen den bezala.

Hurrengo koadroan ikus daiteke, beraz, EAEko administrazio publikoen multzoak 2015ean izandako diru-sarrerak, zorpetzearen ondoriozkoak alde batera utzita, gastuen % 99,2 izan zirela, zorraren amortizazioa eta haren interesak gastuetatik kanpo utzita. Hala, % 0,8ko defizita izan zuten, haren zenbatekoa 121 milioi eurokoa izanik. Zorraren interesen zenbatekoa erantsen bazaio, defizita 418 milioi eurokoa da guztira edo, beste modu batera esanda, guztizko gastuen % 2,9.

5.6 koadroa. EAEko administrazio publiko guztien aurrekontu-defizita/-superabita, zorpetzea kontuan hartu gabe. 2015

	Euroak, milioitan	Gastuen ehunekoa (%)
DIRU-SARRERAK	14.162,8	99,2
Banatu beharreko diru-sarrerak	11.856,5	83,0
Diru-sarrera propioak	1.874,4	13,2
Diru-sarrera finalistak	431,9	3,0
GASTUAK	14.283,7	100,0
Langileria-gastuak	3.500,8	24,5
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	5.203,4	36,4
Transferentzia arruntak	3.943,7	27,6
Inbertsio errealak	725,2	5,1
Kapital-transferentziak	686,3	4,8
Finantza-aktiboak	224,3	1,6
DEFIZITA (-) / SUPERABITA (+) (finantza-gasturik gabe)	-121,0	-0,8
Finantza-gastuak	-297,0	
Defizita (-) / Superabita (+) Guztira	-418,0	-2,9

Iturria: Geuk egina

Diru-sarreraren ia % 84 Ekonomia Itunaren ondoriozko baliabideei dagokie (beraz, hiru erakunde-mailen artean partekatu behar dira), eta kontuan harturiko gastuen % 83 estaltzen dute. Aurreko epigrafeetan ikusi den bezala, gastu arruntek dute garrantzirik handiena kontuan harturiko gastuetan.

Magnitude horiek erakunde-mailen arabera aztertzen baditugu, ikusten da Eusko Jaurlaritzaren diru-sarrerak guztizkoaren % 61,8 direla eta haren gastuak, berriz, guztizkoaren % 63,4. Ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren defizita % 3,3koa da (finantza-gastuak alde batera utzita), eta estaldura-maila % 96,7koa.

Foru-aldundietan, bai diru-sarreraren bai gastu arrunten partaidetza erlatiboa % 17ra iristen da. Defizita % 0,9koa da (finantza-gastuak alde batera utzita) eta estaldura-maila, berriz, % 99,1koa. Bestalde, toki-erakundeek zifra positiboak dituzte: guztizko diru-sarreraren % 21,1 eta guztizko gastuen % 19,6. Haien estaldura-maila % 107,1koa da, eta superabita, berriz (finantza-gastuak kanpoan utzita), ia 200 milioi eurokoa.

5.7 koadroa. Aurrekontu-defizita/-superabita erakunde-mailen arabera, zorpetzea kontuan hartu gabe. EAE, 2015

	Euroak, milioitan			Gastuen ehunekoa (%)		
	Eusko Jaurlaritzatza	Foru-aldundiak	Toki-erakundeak	Eusko Jaurlaritzatza	Foru-aldundiak	Toki-erakundeak
DIRU-SARRERAK	8.756,7	2.412,5	2.993,6	96,7	99,1	107,1
Banatu beharreko diru-sarrerak	8.377,3	2.095,9	1.383,3	92,5	86,1	49,5
Diru-sarrera propioak	253,6	238,9	1.381,9	2,8	9,8	49,4
Diru-sarrera finalistak	125,7	77,8	228,4	1,4	3,2	8,2
GASTUAK	9.055,4	2.433,2	2.795,2	100,0	100,0	100,0
Langileria-gastuak	2.009,6	489,9	1.001,4	22,2	20,1	35,8
Erosketa arruntak	3.349,4	649,0	1.205,0	37,0	26,7	43,1
Transferentzia arruntak	2.912,5	819,2	212,0	32,2	33,7	7,6
Inbertsio errealak	211,9	174,8	338,5	2,3	7,2	12,1
Kapital-transferentziak	499,0	160,3	27,1	5,5	6,6	1,0
Finantza-aktiboak	73,0	140,1	11,1	0,8	5,8	0,4
Defizita (-)/Superabita(+) (finantza-gastuak kanpoan utzita)	-298,7	-20,7	198,4	-3,3	-0,9	7,1
Finantza-gastuak	-231,1	-53,3	-12,7	-2,6	-2,2	-0,5
Defizita (-)/Superabita (+) Guztira	-529,8	-74,0	185,7	-5,9	-3,0	6,6

Iturria: Geuk egina

Finantza-autonomiaren mailari dagokionez, erakunde-maila bakoitzak egoera desberdina duela ikusten da. Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien kasuan, banatu beharreko diru-sarrerak bakoitzari dagozkion gastuen % 92,5 eta % 86,1 finantzatu dituzte, hurrenez hurren. Toki-erakundeen kasuan, ostera, ehuneko hori % 50etik behera dago. Alde horiek, hain zuzen, diru-sarrera propioek erakunde-mailen artean duten pisu desberdinagatik gertatu dira: % 49,4koa toki-erakundeetan, % 9,6 foru-aldundietan eta % 3tik beherakoa Eusko Jaurlaritzan.

Finantza-gastuak erantsita, Eusko Jaurlaritzaren guztizko defizita ia 530 milioi eurokoa da 2015eko ekitaldian, eta foru-aldundiena, berriz, 74 milioi eurokoa. Toki-erakundeek, aldiz, 185,7 milioi euroko superabita dute.

Deskribatutako egoera finantzatzeko, bada, beharrezkoa izan da 437,2 milioi euroko zorpetze garbi globala. Zorpetze horretatik 476,7 milioi euro Eusko Jaurlaritzari dagozkio eta beste 15,5 milioi euro foru-aldundiei. Toki-erakundeek, berriz, ia 55 milioi eurotan murriztu dute zorpetze garbi globala.

5.8 koadroa. Amortizazioak eta zor-jaulkipen berriak, erakunde-mailen arabera (euroak, milakotan). 2015

	Guztira	Eusko Jaurlaritza	Foru-aldundiak	Toki-erakundeak
Zor-jaulkipen berriak	1.462.315	1.163.018	265.900	33.397
Amortizazioak	1.025.099	686.326	250.403	88.370
Finantza-pasiboen aldakuntza garbia	437.216	476.692	15.497	-54.973

Iturria: Geuk egina

Aipatutako azken zifra horiek ikusirik, ondorioztatzen da diruzaintza-geldikina 53,1 milioi eurotan murriztu dela Eusko Jaurlaritzaren kasuan eta 58,5 milioi eurotan foru-aldundien kasuan. Toki-erakundeen kasuan, berriz, finantza-aktiboak eta diruzaintza-geldikina 130,8 milioi eurotan handitu dira (kasu askotan, gastu konprometituen finantzaketarekin lotuta dago hori).

5.9 koadroa. Aurrekontu-defizita/-superabita erakunde-mailen arabera (euroak, milakotan). 2015

	Guztira	Eusko Jaurlaritza	Foru-aldundiak	Toki-erakundeak
Defizita (-) / Superabita (+) Guztira	-418.007	-529.769	-73.969	185.731
Zorpetze berria	437.216	476.692	15.497	-54.973
Finantza-aktiboen eta diruzaintza-geldikinaren aldakuntza	19.209	-53.077	-58.472	130.758

Iturria: Geuk egina


5.3 GASTU PUBLIKO BATERATUAREN AZTERKETA FUNTZIONALA

5.3.1 PROGRAMEN ARABERAKO SAILKAPENA: ALDEZ AURREKO ZENBAIT GOGOETA

Gastuen sailkapen funtzionalaren xedea da argitzea aurrekontuan sartutako gastuekin zer helburu nahi diren lortu; hots, galdera honi erantzutea: zertan gastatzen da dirua?

Horrenbestez, erakunde-sarea osatzen duten entitateetako bakoitzak ematen dituen zerbitzuen artean gastua nola banatuta dagoen zehaztea da jomuga. Gastuen sailkapen honetan hainbat banaketa maila daude: i) Funtzio-taldea; ii) Funtzioa; iii) Azpifuntzioa; eta iv) Programa.

Sailkapen horren barruan, programa da informazio-maila bereziena, eta baliabide publikoen esleipena xehetasun handiagoz ezagutzeko balio du. Sailkapen funtzionalaren kasuan bezala, gastu-aurrekontua programen arabera sailkatzeak informazioa ematen digu kredituen xedeei buruz eta haiekin lortu nahi diren helburuei buruz.



Programen araberako sailkapenaren egiturari erreparatzen badiogu, ikusten dugu informazio-mailarik osatuena gastu-arloak direla. Horietako bakoitza gastu-politiketan dago banatuta, eta gastu-politiketako bakoitza, azkenik, programa-taldetan⁴⁴. Programen araberako sailkapenaren gastu-arloak honako hauek dira:

- 0. gastu-arloa: “Zor publikoa”. Zor publikoaren amortizazioagatiko eta interesengatiko gastuak eta bestelako finantza-eragiketengatiko antzeko gastuak barnean hartzen ditu, horiek formalizatzeak eragindako gastuak alde batera utzita.
- 1. gastu-arloa: “Oinarrizko zerbitzu publikoak”. Indarreko araudiari jarraituz, derrigorrean eman behar dituzten oinarrizko zerbitzu publikoengatiko gastu guztiak barnean hartzen ditu. Arlo honetan, oinarrizko lau gastu-politika sartzen dira: herritarren segurtasuna eta mugikortasuna, etxebizitza eta hirigintza, ongizate komunitarioa eta ingurumena. Arlo honen barnean ez dira hartzen sektore-izaerako gastu-politikak, horiek beste gastu arlo batzuen barne daudelako.
- 2. gastu-arloa: “Gizarte-babeseko eta -sustapeneko jarduketak”. Gizarte-aurreikuspeneko araubideaosatzen duten gastu eta transferentziak sartzen dira arlo horretan; funtzionarioen pentsioak, ongintza eta asistentzia-arloko arretak; beharrian bereziak dituen taldeen arreta (hala nola gazteak, adintsuak, eta desgaitu fisikoak) eta enplegua sustatzeko neurriak.
- 3. gastu-arloa: “Lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena”: Osasunaren, hezkuntzaren, kulturaren, aisialdia eta denbora librearen eta kirolaren arloekin, eta, oro har, bizi-kalitatea hobetzeko arlo guztiekin lotuta egindako gastuak hartzen ditu barnean.
- 4. gastu-arloa: “Jarduketa ekonomikoak”: Jarduera ekonomikoko sektoreen ahalmena garatzera bideratuta dauden jarduera, zerbitzu eta transferentzietarako gastuak dira. Oinarrizko azpiegitura eta garraio-

⁴⁴ Eta programa-talde bakoitza programetan banatuta dago.

etarako, nekazaritza-azpiegituretarako, komunikabideetarako eta ikerketa, garapen eta berrikuntzarako gastuak ere barne hartzen ditu.

- 9. gastu-arloa: “Jarduketa orokorrak”: Oro har erakundeei eragiten dituen jarduera hauei buruzko gastuak dira: gobernu-eginkizunak edo laguntza administratiboa eta laguntza logistiko eta teknikoa ematea⁴⁵.

Koadro honetan laburtuta daude gastu-arlo bakoitzean txertatuta dauden gastu-politikak:

0	ZOR PUBLIKOA
01	Zor publikoa
1	OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK
11	Justizia
13	Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna
14	Kanpo-harremanak
15	Etxebizitza eta hirigintza
16	Ongizate komunitarioa
17	Ingurumena
2	GIZARTE-BABESEKO ETA -SUSTAPENEKO JARDUKETAK
21	Pentsioak
22	Enplegatuen aldeko bestelako prestazio ekonomikoak
23	Gizarte-zerbitzuak eta gizarte-sustapena
24	Enpleguaren sustapena
3	LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA
31	Osasuna
32	Hezkuntza
33	Kultura
34	Kirola
4	JARDUKETA EKONOMIKOAK
41	Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza
42	Industria eta energia
43	Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak
44	Garraio publikoa
45	Azpiegitureak
46	Ikerketa, garapena eta berrikuntza

⁴⁵ Erakundearen gastu orokorrak jasoko ditu, baldin eta ezin bazaizkio zuzenean aplikatu programa-sailkapen honetan aurreikusitako beste ezein arlori. Arlo honetan sartuko dira, halaber, programa-sailkapen honen ezein epigraferi aplikatu ezin zaizkion transferentzia orokor guztiak, zeren, bestela, berez dagokien gastu-politika zehatzari egotziko baitzaizkio.

48	Lan-harremanak
49	Bestelako jarduketa ekonomikoak
9	JARDUKETA OROKORRAK
91	Gobernu-organoak
92	Zerbitzu orokorrak
93	Finantza- eta tributu-administrazioa
94	Transferentziak beste administrazio publiko batzuetara

Erakundeen gastu publikoak programen arabera duten banaketa aztertzeke oinarrizko informazioa honela eskuratu da: batetik, foru-aldundiek *ad hoc* igorritako informaziotik foru-aldundien eta toki-erakundeen gastuari buruzkoa eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzaren datuei eman zaien berariazko tratamendutik. Horri dagokionez, alderdi hauek kontuan hartu behar dira:

- Eusko Jaurlaritzaren kasuan, aurrekontuetan eskumena duen sailari dagokio gastuen sailkapen bat ezartzea,⁴⁶ eta Ogasun eta Finantzen departamentuei, berriz, foru-aldundien⁴⁷ eta toki-erakundeen kasuan⁴⁸.
- 2014an, hiru foru-aldundiek programen arabera sailkapen berri bat ezarri zuten,⁴⁹ eta sailkapen berri horrek toki-erakundeen gastuen sailkapen funtzionala ordezkatu zuen. Eta foru-dekretuetan ezarritakoaren arabera, aurrekontu-egitura toki-erakundeen eskumen- eta kudeaketa-errealitate berrira egokitzea zen aldaketa horren xedea, oinarrizko toki-

⁴⁶ 1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testuategina onartzen duena (35. artikulua)

⁴⁷ 53/1992 FORU ARAUA, abenduaren 18koa, Arabako Lurralde Historikoko ekonomia eta aurrekontu-araubidearena (111. artikulua). 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testuategina onartzen duena (43. artikulua). 4/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako lurralde historikoko finantza- eta aurrekontu-araubideari buruzkoa (42. artikulua). 4/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako lurralde historikoko finantza- eta aurrekontu-araubideari buruzkoa (42. artikulua).

⁴⁸ 3/2004 FORU ARAUA, otsailaren 9koa, Arabako Lurralde Historikoko toki-erakundeen aurrekontuei buruzkoa (hirugarren xedapen gehigarria). Bizkaiko Foru Aldundiaren 139/2015 Foru Dekretua, uztailaren 28koa, Bizkaiko toki-entitateen kontabilitatearen arau-esparrua ezartzen duena (amaierako lehen xedapena). 86/2015 Foru Dekretua, abenduaren 15koa, Gipuzkoako toki-entitateen kontabilitatearen arau-esparrua ezartzen duena (amaierako lehen xedapena).

⁴⁹ Diputatuen Kontseiluaren 54/2014 Foru Dekretua, urriaren 21ekoa, zati batean aldatzen duena Arabako toki-erakundeen aurrekontu-egitura. Bizkaiko Foru-aldundiaren 96/2014 Foru Dekretua, uztailaren 29koa, zeinaren bidez partzialki aldatzen baita Bizkaiko erakunde lokalen aurrekontu-egitura. 44/2014 Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Gipuzkoako toki-entitateen aurrekontu-egitura partzialki aldatzen duena.

araudian gertaturiko aldaketak zirela eta; halaber, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen onespeneren ondoriozko eskumen-esparru berrira hobeki egokitzea ere ahalbidetzen du.

- 2017rako gastu-kontuetan programen araberako egitura homogeen bat aplikatzea adostu zuten hiru lurralde historikoetako foru-aldundiek. Europar Batasunera aurrekontu-informazioa igortzeko egiturara egokitzeko aplikatu zen programen araberako sailkapen berri hori⁵⁰.
- 2015eko ekitaldiko gastuaren banakapena hiru foru-aldundiek emandakoa 2017rako onetsitako programen araberako sailkapen berriari jarraikiz egina da; horregatik, erakunde horietan 2015ean indarrean ziren programak eta funtzio-taldeak berriz sailkatu behar izan dira.
- Eusko Jaurlaritzak sailkapen funtzionalari jarraikiz aurkezten dituen bere aurrekontuak, Eusko Jaurlaritzaren sailkapen funtzionala programen araberako sailkapenera egokitu da, informazioa homogeneotasunez tratatze aldera.
- Azkenik, ikusirik Administrazio Orokorreko 12 programa-talderi dirukopuru handia esleitu zaiela⁵¹ zenbait gastu-politikaren barnean, politika bakoitza osatzen duten gainerako programen artean berresleitu dira programa-talde horiek, bakoitzaren garrantzi erlatiboaren arabera.

⁵⁰ Bizkaiko lurralde historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesteko abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretua aldatzen duen Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bateratua garatzen duen ekainaren 14ko Bizkaiko Foru-aldundiaren 108/2016 Foru Dekretuaren zioen azalpena.

⁵¹ 130. Segurtasunaren eta babes zibilaren administrazio orokorra; 150. Etxebizitzaren eta hirigintzaren administrazio orokorra; 170. Ingurumenaren administrazio orokorra; 230. Gizarte-zerbitzuen administrazio orokorra; 320. Hezkuntzaren arloko administrazio orokorra; 330. Kulturaren arloko administrazio orokorra; 340. Kirolaren arloko administrazio orokorra; 410. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako administrazio orokorra; 420. Industriaren eta energiaren administrazio orokorra; 430. Merkataritza eta turismoko administrazio orokorra; 440. Garraioaren arloko administrazio orokorra; 450. Azpiegituren arloko administrazio orokorra.

5.3.2 ERAKUNDE-GASTUAREN AZTERKETA PROGRAMEN ARABERA 2015EKO EKITALDIAN

EAEko administrazio publikoen gastu bateratua gastu-arloen arabera banatzeak agerian uzten du existitzen den eskumen-esparruarekin bat etorri banatzen dela gastua (txosten honen 2. kapituluaz aztertu da indarrean da goen eskumen-esparru hori).

Izan ere, gastuaren zati handiena biltzen duen arloa desberdina da hiru erakunde-mailatan: Eusko Jaurlaritzaren kasuan, Lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena da gastu handieneko arloa (gastuaren % 63,3, batez beste, 2015ean); foru-aldundien kasuan, berriz, Gizarte-babeseko eta -sustapeneko jarduketaren arloa (% 38,0) eta toki-erakundearen kasuan, azkenik, Oinarrizko zerbitzu publikoen arloa (% 38,3).

5.10 koadroa. Gastu bateratua, gastu-arloen eta erakunde-mailaren arabera (%). 2015

	Eusko Jaurlari- tza	Foru- aldun- diak	Toki- erakun- deak	Guztira
Zor publikoa	9,1	11,7	3,2	8,4
Oinarrizko zerbitzu publikoak	8,9	3,2	38,3	13,6
Gizarte-babeseko eta -sustapeneko jarduketak	8,3	38,0	13,9	14,3
Lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena	63,3	4,0	20,1	45,1
Jarduketa ekonomikoak	8,1	27,4	6,3	11,0
Jarduketa orokorrak	2,3	15,7	18,2	7,6
GASTU BATERATUAK, GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: Geuk egina

Jada azaldu den bezala, Eusko Jaurlaritzaren gastuaren ia bi heren (% 63,3) Lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpenaren arlokoak dira. Gastuaren beste herena lau gastu-arlotan banatzen da modu orekatu samarrean: Zor publikoa (gastuaren % 9,1); Oinarrizko zerbitzu publikoak (% 8,9); Gizarte-babeseko eta -sustapeneko jarduketak (% 8,3) eta Jarduketa ekonomikoak (% 8,1). Gainerako % 2,3 Jarduketa orokorren arlokoa da.

Foru-aldundien kasuan, gastuaren ia % 40 Gizarte-babeseko eta sustapeneko jarduketan arlokoa da (zehazki, gastuaren % 38). Arlo horren ondoren, Jarduketa ekonomikoek biltzen dute ehuneko handiena (zehazki, gastuaren % 27,4); hirugarrenik, Jarduketa orokorren arloa eta Zor publikoaren arloa daude (% 15,7 eta % 11,7, hurrenez hurren). Bestalde, bi hauek dira garrantzirik txikieneko gastu-arloak: Lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena eta Oinarrizko zerbitzu publikoak (% 4,2 eta % 3,2, hurrenez hurren).

Toki-erakundeei dagokienez, gastuaren ia % 60 honako bi arlo hauei dago: Oinarrizko zerbitzu publikoak (% 38,3) eta Lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena (% 20,1). Bi arlo horien ondoren, honako hau da arloen hurrenkera, garrantzi handienetik txikienera: Jarduketa orokorrak (% 18,2), Gizarte-babeseko eta -sustapeneko jarduketak (% 13,9), Jarduketa ekonomikoak (% 6,3) eta Zor publikoa (% 3,2).

5.2 grafikoa. Gastuaren egitura alderatua, erakunde-mailen eta gastu-arloen arabera. (%). 2015



Iturria: Geuk egina

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE-MAILA DESBERDINEN ESKUMEN
PROPIOEN ETA FINANTZAKETAREN AZTERKETA OROKORRA

Halaber, hiru erakunde-mailen eskumen-esleipena gastu-politiken araberrako gastuen banakapenean zehaztuta dago. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, Osasun-politiken eta Hezkuntza-politiken arloa gastuaren erdia baino gehiago da (% 34,3 eta % 26,4, hurrenez hurren), eta horietatik oso urrun, honako gastu-politika hauek daude: Zor publikoa (% 9,1); Gizarte-zerbitzuak eta gizarte-sustapena (% 6,4); Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna (% 5,7); Azpiegiturak (% 3,8); eta Kultura (% 2,4).

5.11 koadroa. Arloen, gastu-politiken eta erakunde-mailaren araberrako gastu bateratua(%). 2015

	Eusko Jaurlaritza	Foru-aldundiak	Toki-erakundeak	Guztira
Zor publikoa	9,1	11,7	3,2	8,4
Justizia	1,5	0,0	0,0	1,0
Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna	5,7	1,7	8,9	5,6
Kanpo-harremanak	0,5	0,0	0,0	0,3
Etxebizitza eta hirigintza	1,0	0,4	10,7	2,8
Ongizate komunitarioa	0,0	0,0	15,8	3,1
Ingurumena	0,2	1,2	3,0	0,9
Pentsioak	0,0	3,1	0,0	0,5
Enplegatuen aldeko bestelako prestazio ekonomikoak	0,0	0,0	0,2	0,0
Gizarte-zerbitzuak eta gizarte-sustapena	6,4	34,3	12,0	12,1
Enpleguaren sustapena	1,9	0,7	1,7	1,7
Osasuna	34,3	0,0	0,6	22,1
Hezkuntza	26,4	0,1	4,4	17,8
Kultura	2,4	3,1	9,7	3,9
Kirola	0,1	0,8	5,4	1,2
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	1,0	2,9	0,3	1,2
Industria eta energia	0,7	2,5	0,2	0,9
Merkataritza, turismoa eta ETEak	0,6	0,9	1,9	0,9
Garraio publikoa	0,0	4,9	2,5	1,3
Azpiegiturak	3,8	15,0	1,4	5,2
Ikerketa, garapena eta berrikuntza	1,8	0,2	0,0	1,2
Lan-harremanak	0,0	0,0	0,0	0,0
Bestelako jarduketak ekonomikoak	0,3	0,9	0,1	0,4
Gobernu-organoak	0,5	1,3	1,7	0,9

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE-MAILA DESBERDINEN ESKUMEN
PROPIOEN ETA FINANTZAKETAREN AZTERKETA OROKORRA

Zerbitzu orokorrak	1,5	9,0	13,8	5,1
Finantza- eta tributu-administrazioa	0,4	5,2	2,6	1,6
Transferentziak beste administrazio publiko batzuetara	0,0	0,1	0,1	0,0
Gastu bateratua, guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Geuk egina

Hiru foru-aldundiak kontuan hartuta, gastuaren ia herena Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-sustapenaren alorreko politikei dagokie (% 34,3); horren erdia baino gutxiago bideratu da, aldiz, Azpiegituren alorreko politikei (% 15,0), eta herena, azkenik, Zorpetzera (% 11,7). Nabarmentzekoak dira, halaber, hauen garrantzi erlatiboak: Zerbitzu orokorrak (% 9,0); Finantza- eta tributu-administrazioa (% 5,2); Garraio publikoa (% 4,9); eta Kultura (% 3,1), adibidez.

Azkenik, EAEko toki-erakundeek gastuaren % 75etik gora bideratzen dute, batez beste, honako zazpi politika hauetara: Ongizate komunitarioa (% 15,8); Zerbitzu orokorrak (% 13,8); Gizarte-zerbitzuak eta gizarte-sustapena (% 12,0); Etxebizitza eta hirigintza (% 10,7); Kultura (% 9,7); Herriarren segurtasuna eta mugikortasuna (% 8,9); eta Kirola (% 5,4).

5.12 koadroa. EAEko administrazioen gastu bateratua: programa-talde nagusiak. 2015

		% /guztizko gastua
312	Ospitaleak, laguntza-zerbitzuak eta osasun-zentroak	18,4
231	Gizarte-ekintza	11,7
011	Zor publikoa	8,4
324	Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa	6,8
323	Haur eta Lehen Hezkuntza	6,4
132	Segurtasuna eta ordena publikoa	4,8
920	Administrazio orokorra	4,3
314	Farmazia	3,2
455	Trena eta metroa	2,4
328	Unibertsitateko irakaskuntza	2,1
	Guztizko partziala	68,3

Iturria: Geuk egina

Gastu-programen taldekako banakapenari erreparatuta, hamar talde nagusiek EAEko gastu bateratuaren % 68,3 biltzen dutela ikus dezakegu; halaber, lehenengo bi taldeek guztizko gastuaren ia herena metatzen dute: Ospitaleak, laguntza-zerbitzuak eta osasun-zentroak (% 18,4) eta Gizarte-ekintza (% 11,7). Bi talde horien ondoren, honako hauek daude, garrantzi handienekotik txikienera: Zor publikoa (% 8,4); Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa (% 6,8); Haur eta Lehen Hezkuntza (% 6,4); Segurtasuna eta ordena publikoa (% 4,8); Administrazio orokorra (% 4,3); Farmazia (% 3,2); Trena eta metroa (% 2,4); Unibertsitateko irakaskuntza (% 2,1).

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, hamar programa-taldek % 2tik gorako garrantzi erlatiboa dute, eta gastuaren % 82,7 metatzen dute. Erdia baino gehiago (% 54,0) osasunera eta hezkuntzara bideratzen da: Ospitaleak, laguntza-zerbitzuak eta osasun-zentroak (% 28,7); Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa (% 10,5); Haur eta Lehen Hezkuntza (% 9,4); Unibertsitateko irakaskuntza (% 3,2); eta Hezkuntza-sustapena (% 2,2); emaitza horiek guztiak bat datoz eskumen-esleipenarekin. Zorpetzera bideratutako % 9,1 alde batera utzita, hauek dira programa-talde garrantzitsuenak: Gizarte-ekintza (% 5,9); Segurtasuna eta ordena publikoa (% 5,5); Farmazia (% 5,0); eta Trena eta metroa (% 3,2).

5.13 koadroa. Eusko Jaurlaritzaren gastu bateratua: programa-talde nagusiak. 2015

		% /gutzizko gastua
312	Ospitaleak, laguntza-zerbitzuak eta osasun-zentroak	28,7
324	Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa	10,5
323	Haur eta Lehen Hezkuntza	9,4
011	Zor publikoa	9,1
231	Gizarte-ekintza	5,9
132	Segurtasuna eta ordena publikoa	5,5
314	Farmazia	5,0
455	Trena eta metroa	3,2
328	Unibertsitateko irakaskuntza	3,2
326	Hezkuntza-sustapena	2,2
	Gutzizko partziala	82,7

Iturria: Geuk egina

Foru-aldundien kasuan ere hamar dira % 2tik gorako garrantzi erlatiboa duten gastu-programak. Foru-aldundien gastu bateratuaren % 80,4 metatzen dute hamar gastu-programa horiek. Gastuaren herena Gizarte-ekintzari dagokio (% 33,5); horren ondoren, eta alde handiarekin, bi hauek daude: bigarren gastu-bolumen handienarekin, zor publikoa (% 11,7); eta hirugarren gastu-bolumen handienarekin, Errepideak (% 9,8). Rankinaren gaineko programek gastuaren % 2,0 eta % 6,3 arteko garrantzi erlatiboa metatzen dute: Administrazio orokorra (% 6,3); Bidaiarien garraioa (% 4,9); Tributu-sistemaren kudeaketa (% 4,0); Pentsio ez kontributiboak (% 3,1); Ingurumen-jarduketak (% 2,6); Teknologia berriak eta bestelakoak (% 2,5); eta Trena eta metroa (% 2,0).

5.14 koadroa. Foru-aldundien gastu bateratua: programa-talde nagusiak. 2015

		% /guztizko gastua
231	Gizarte-ekintza	33,5
011	Zor publikoa	11,7
453	Errepideak	9,8
920	Administrazio orokorra	6,3
441	Bidaiarien garraioa	4,9
932	Tributu-sistemaren kudeaketa	4,0
212	Pentsio ez kontributiboak	3,1
456	Ingurumen-jarduketak	2,6
426	Teknologia berriak eta bestelakoak	2,5
455	Trena eta metroa	2,0
	Guztizko partziala	80,4

Iturria: Geuk egina

Azkenik, nabarmentzekoa da toki-erakundeen gastuaren banaketa beste bi erakunde-mailetan baino askoz ere homogeneoagoa dela; izan ere, hamabost dira % 2tik gorako garrantzi erlatiboa duten gastu-programen taldeak, eta gastu bateratuaren % 71,9 metatzen dute hamabost talde horiek erakunde-maila horretan. Horren inguruan, kontuan hartu behar dugu Administrazio orokorreko programak duela garrantzirik handiena (% 12,8). Agian, epigrafe horretan beste programa batzuetan sartzeko modukoak diren gastu-partidak sartu dira, baina ezinezkoa da horiek identifikatzea, kontabilitate ezarpenak egiterakoan irizpide homogeneorik ez egotearen ondo-

riozko mugak direla-eta (aurrekontu-berezitasunaren printzipioa burutzea ahalbidetuko luketen irizpide homogeenak, alegia).

Administrazio orokorrari esleitutako gastua alde batera utzita, programataldetik garrantzitsuen Gizarte-Ekintza dela ikus dezakegu, eta toki-erakundeetako gastu bateratuaren % 12,0 dela; horren ondoren, hauek daude, garrantzi handienekotik txikienera: Bide publikoak (% 7,0); Hondakinen bilketa, kudeaketa eta tratamendua (% 6,4); Segurtasuna eta ordena publikoa (% 6,2); Bideen garbiketa (% 4,1); Kirol-instalazioak (% 4,0); Zor publikoa (% 3,2); Kultura-sustapena (% 2,8); Hirigintza (% 2,7); Bidaia-rien garraioa (% 2,3); Edateko uraren etxez etxeko hornikuntza (% 2,2); Parkeak eta lorategiak (% 2,1); Haur eta Lehen Hezkuntza (% 2,1); eta Euskara (% 2,0).

5.15 koadroa. Toki-erakundearen gastu bateratua: programa-talde nagusiak. 2015

		% /guztizko gastua
920	Administrazio orokorra	12,8
231	Gizarte-ekintza	12,0
153	Bide publikoak	7,0
162	Hondakinen bilketa, kudeaketa eta tratamendua	6,4
132	Segurtasuna eta ordena publikoa	6,2
163	Bideen garbiketa	4,1
342	Kirol-instalazioak	4,0
011	Zor publikoa	3,2
334	Kultura-sustapena	2,8
151	Hirigintza	2,7
441	Bidaia-rien garraioa	2,3
161	Edateko uraren etxez etxeko hornikuntza	2,2
171	Parkeak eta lorategiak	2,1
323	Haur eta Lehen Hezkuntza	2,1
335	Euskara	2,0
	Guztizko partziala	71,9

Iturria: Geuk egina

5.3.3 GASTU BATERATUAREN ERAKUNDE-BANAKETA

EAEko hiru erakunde-mailen arteko eskumen-banaketa nolakoa den jakinda, egindako gastua a priori bat al dator banaketa horrekin? Ez da batere erraza galdera horri erantzutea, eta EAEko erakunde-mailen eskumen propioei eta finantzaketa-eskumenei buruzko azterlan orokor honetan planteaturiko helburuetatik harago doa; hala eta guztiz ere, eskuragarri dagoen informazioaz baliatuta, zenbait ondorio orokor atera daitezke.

Beheko koadroan EAEko gastu publiko bateratuaren erakunde-banaketa dago, gastu-politiken arabera banakatuta; ikus daiteke, a priori, banaketa hori koherentea dela existitzen den eskumen-banaketarekin.

Izan ere, Eusko Jaurlaritzak guztizko gastu bateratuaren % 64,0 metatzen du; foru-aldundiek, berriz, % 16,7; eta toki-erakundeek, azkenik, gainerako % 19,3. Logikoa denez, eta banaketa hori behar bezala interpretatzeko, garrantzitsua da azpimarratzea gastu bateratua aztertu ahala erakundeen arteko barne-transferentziak ezabatu egin direla eta, horrenbestez, erakunde-maila batek jasotako gastu-transferentziak (bai baldintzatuak bai baldintzatu gabeak) jatorrizko erakunde-mailatik kendu direla.

Zazpi gastu-politika erabat edo nagusiki gauzatu ditu⁵² Eusko Jaurlaritzak: Justizia (% 100); Kanpo-harremanak (% 100); Lan-harremanak (% 100,0); Osasuna (% 99,5); Ikerketa, garapena eta berrikuntza (% 97,2); Hezkuntza (% 95,1) eta Enpleguaren sustapena (% 72,8). Toki-erakundeei dagokie lau gastu-politika erabat edo nagusiki gauzatea: Ongizate komunitarioa⁵³ (% 100,0); Enplegatuen aldeko bestelako prestazio ekonomikoak (% 100,0); Kirola (% 84,8); eta Etxebizitza eta hirigintza (% 74,5).

⁵² Irizpide gisa, kontuan hartu da guztizko gastu bateratuaren % 70 biltzea gutxienez.

⁵³ "Ongizate komunitarioa" gastu-politikak honako programa-talde hauek biltzen ditu: estolderia; edateko uraren etxez etxeko hornikuntza; hondakinen bilketa, kudeaketa eta tratamendua; bideen garbiketa; hilerriak eta hileta-zerbitzuak; kale-argiteria eta hondakin-uren ebakuazioa eta tratamendua.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE-MAILA DESBERDINEN ESKUMEN
PROPIOEN ETA FINANTZAKETAREN AZTERKETA OROKORRA

5.16 koadroa. EAEko administrazioen gastu bateratuen erakunde-banaketa, gastu-politiken arabera. 2015

	Eusko Jaurlaritza	Foru- aldundiak	Toki- erakundeak
Zor publikoa	69,6	23,2	7,3
Justizia	100,0	0,0	0,0
Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna	64,6	5,0	30,4
Kanpo-harremanak	100,0	0,0	0,0
Etxebizitza eta hirigintza	23,2	2,3	74,5
Ongizate komunitarioa	0,0	0,0	100,0
Ingurumena	16,8	21,4	61,8
Pentsioak	0,0	98,8	1,2
Enplegatuen aldeko bestelako prestazio ekonomi- koak	0,0	0,0	100,0
Gizarte-zerbitzuak eta gizarte-sustapena	33,7	47,2	19,1
Enpleguaren sustapena	72,8	6,9	20,3
Osasuna	99,5	0,0	0,5
Hezkuntza	95,1	0,1	4,8
Kultura	39,6	13,0	47,4
Kirola	4,1	11,1	84,8
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	53,9	41,6	4,5
Industria eta energia	48,2	48,4	3,4
Merkataritza, turismoa eta ETEak	41,2	17,6	41,3
Garraio publikoa	0,0	63,3	36,7
Azpiegiturak	46,7	48,2	5,2
Ikerketa, garapena eta berrikuntza	97,2	2,5	0,3
Lan-harremanak	100,0	0,0	0,0
Bestelako jarduketa ekonomikoak	51,7	41,3	7,0
Gobernu-organoak	35,7	25,6	38,7
Zerbitzu orokorrak	18,4	29,4	52,2
Finantza- eta tributu-administrazioa	14,1	54,5	31,4
GASTU BATERATUA, GUZTIRA	64,0	16,7	19,3

Iturria: Geuk egina

EAEko erakunde-sistemaren eskumen-banaketaren eta haren finantzaketa-sistemaren arabera, foru-aldundiek guztizko gastu bateratuan duten garrantzi erlatibo txikiena % 0,1ekoa da (Hezkuntza), eta handiena, berriz, % 63,3koa (Garraio publikoa); bestalde, balio nagusi bakar bat du (Pentsioen epigrafean baino ez, % 98,8ko ehunekoarekin).

Azkenik, lehen aipatutako hiru taldeetan sartzen ez diren gastu-politikak daude. Laugarren talde honetan gastuaren banaketa homogeenagoa da, eta 14 gastu-politika ditu:

- Zor publikoa (Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta toki-erakundeek zenbatutako gastuaren % 69,6, % 23,2 eta % 7,3, hurrenez hurren),
- Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna (% 64,6, % 5,0 eta % 30,4, hurrenez hurren),
- Ingurumena (% 16,8, % 21,4 eta % 61,8, hurrenez hurren),
- Gizarte-zerbitzuak eta gizarte-sustapena (% 33,7, % 47,2 eta % 19,1, hurrenez hurren),
- Kultura (% 39,6, % 13,0 eta % 47,4, hurrenez hurren),
- Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza (% 53,9, % 41,6 eta % 4,5, hurrenez hurren),
- Industria eta energia (% 48,2, % 48,4 eta % 3,4, hurrenez hurren),
- Merkataritza, turismoa eta ETEak (% 41,2, % 17,6 eta % 41,3, hurrenez hurren),
- Garraio publikoa (% 0,0, % 63,3 eta % 36,7, hurrenez hurren),
- Azpiegiturak (% 46,7, % 48,2 eta % 5,2, hurrenez hurren),
- Bestelako jarduketa ekonomikoak (% 51,7, % 41,3 eta % 7,0, hurrenez hurren),
- Gobernu-organoak (% 35,7, % 25,6 eta % 38,7, hurrenez hurren),
- Zerbitzu orokorrak (% 18,4, % 29,4 eta % 52,2, hurrenez hurren),
- Finantza- eta tributazio-administrazioa (% 14,1, % 54,5 eta % 31,4, hurrenez hurren).

Gastu-politiken azken talde horri erreparatuta, eta erakunde-gastua egungo eskumen-banaketaarekin, a priori, koherentea ote den aztertze aldera, komenigarria da zenbait gastu-politikak hiru erakunde-mailetan duten garrantzi erlatiboa alderatzea eta gastuak programa-taldean arabera duen erakunde-banaketa identifikatzea.

Horrela, herritarren segurtasun eta mugikortasuneko politikari esleitutako gastuari dagokionez, hiri-mugikortasunarekin loturiko gastuaren % 100 toki-erakundeek gauzatzen dute, eta gainerako programa-taldeak bi era-

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE-MAILA DESBERDINEN ESKUMEN
PROPIOEN ETA FINANTZAKETAREN AZTERKETA OROKORRA

kunde-mailaren artean banatzen dira; zehazki, horietako hiru Eusko Jaurlaritzaren eta toki-erakundearen artean (Segurtasuna eta ordena publikoa, Trafikoa eta Babes zibila), eta Sua itzaltzeko zerbitzuagatiko gastua foru-aldundien eta toki-erakundearen artean.

HERRITARREN SEGURTASUNA ETA MUGIKORTASUNA	Eusko Jaurlaritza	Foru-aldundiak	Toki-erakundeak
Gastuaren erakunde-banaketa (%)	64,6	5,0	30,4
- Segurtasuna eta ordena publikoa	74,8	-	25,2
- Trafikoa	28,6	-	71,4
- Hiri-mugikortasuna	-	-	100,0
- Babes zibila	50,2	-	49,8
- Sua itzaltzeko zerbitzua	-	53,0	47,0
Gastuaren garrantzia (maila bakoitzeko guztizko gastuaren barnean)	5,7	1,7	8,9

Guztizko gastuaren barneko adierazgarritasunari dagokionez, toki-erakundearen kasuan baino ez litzateke izango nabarmengarria ingurumen-politika, % 3,0ko garrantzi erlatiboarekin. Erakunde-gastua gauzatzeari dagokionez, toki-erakundeak nabarmentzen dira (politika horretan egindako gastuaren % 61,8), foru-aldundietatik eta Eusko Jaurlaritzatik oso urrun (% 21,4 eta % 16,8, hurrenez hurren). Ingurumenaren Babeseko programaren kasuan izan ezik (horren gastua hiru erakunde-mailen artean banatuta dago), gainerako gastua toki-erakundeek hartzen dute beren gain erabat (Hondartzak eta Parkeak eta lorategiak).

INGURUMENA	Eusko Jaurlaritza	Foru-aldundiak	Toki-erakundeak
Gastuaren erakunde-banaketa (%)	16,8	21,4	61,8
-Parkeak eta lorategiak	-	-	100,0
-Ingurumenaren babesa	32,3	41,0	26,7
-Hondartzak	-	-	100,0
Gastuaren garrantzia (maila bakoitzeko guztizko gastuaren barnean)	0,2	1,2	3,0

Gizarte-zerbitzuetako eta gizarte-sustapeneko politikan egindako gastua garrantzitsua da hiru erakunde-mailetan, baina nabarmentzekoa da foru-aldundien gastuan duen garrantzi erlatiboa (% 34,3), toki-erakundeekin eta Eusko Jaurlaritzarekin alderatuta (% 12,0 eta % 6,4, hurrenez hurren). Poli-

tika horren barnean, hiru erakunde-mailek gastu esanguratsua izan dute Gizarte-ekintzan: zehazki, erakunde-guztizkoaren ia erdia dagokie foru-aldundiei (% 48,0), ia herena Eusko Jaurlaritzari eta ia bostena toki-erakundeei (% 19,8). Gizarte-sustapenari esleituriko gastua Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien artean banatuta dago (% 56,5 eta % 43,5, hurrenez hurren), eta Lana eta lan-segurtasuna eta -osasuna deritzon epigrafeari dagokiona Eusko Jaurlaritzak zenbatu du erabat.

GIZARTE-ZERBITZUAK ETA GIZARTE-SUSTAPENA	Eusko Jaurlaritzari	Foru-aldundiak	Toki-erakundeak
Gastuaren erakunde-banaketa (%)	33,7	47,2	19,1
-Gizarte-ekintza	32,2	48,0	19,8
-Gizarte-sustapena	56,5	43,5	-
-Lana eta lan-segurtasuna eta -osasuna	100,0	-	-
Gastuaren garrantzia (maila bakoitzeko guztizko gastuaren barnean)	6,4	34,3	12,0

Kulturako politikan, halaber, hiru erakunde-mailek gastu esanguratsua izan dute; zehazki, ia erdia toki-erakundeei dagokie (% 47,4), eta herena baino gehiago Eusko Jaurlaritzari (% 39,6). Gainera, toki-erakundeetan gastu politika horrek izandako garrantzia Eusko Jaurlaritzan izandakoa halako lau da (% 9,7 eta % 2,4, hurrenez hurren). Politika horrek foru-aldundietan izandako garrantzi erlatiboa ere nabarmena da (% 3,1), nahiz eta erakunde-banaketan guztizko gastuen % 13 baino ez den.

Komunikabideen programa-taldeko gastua Eusko Jaurlaritzari dagokio erabat, eta Astialdia eta herri-jaiak eta festak betetzeko instalazioena, ostera, toki-erakundeei. Liburutegi eta agiritegietako gastua eta Museo eta Arte plastikoetako gastua foru-aldundiei eta toki-erakundeei dagozkie batez ere (% 78,5 eta % 65,2, hurrenez hurren).

Hiru erakunde-mailek gastu esanguratsua bideratu dute Euskararen arlora; izan ere, erdia Eusko Jaurlaritzari dagokio (% 50,9), % 40,1 toki-erakundeei eta % 9,0, azkenik, foru-aldundiei. Kultura-sustapeneko gastua kontuan hartuz gero, toki-erakundeei dagokie erdia baino gehiago (% 56,5), eta gainerakoa oso modu orekatuan dago banatuta Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien artean (% 22,7 eta % 20,8, hurrenez hurren). Azkenik, ondare

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE-MAILA DESBERDINEN ESKUMEN
PROPIOEN ETA FINANTZAKETAREN AZTERKETA OROKORRA

historiko-artistikoaren babesaren eta kudeaketaren arloan egindako gastua Eusko Jaurlaritzari dagokio nagusiki (% 69).

KULTURA	Eusko Jaurlaritzza	Foru-aldundiak	Toki-erakundeak
Gastuaren erakunde-banaketa (%)	39,6	13,0	47,4
-Liburutegiak eta agiritegiak	-	21,5	78,5
-Museoak eta arte plastikoak	-	34,8	65,2
-Kultura-sustapena	22,7	20,8	56,5
-Euskara	50,9	9,0	40,1
-Ondare historiko-artistikoaren babesa eta kudeaketa	69,0	21,7	9,3
-Astialdia betetzeko instalazioak	-	-	100,0
-Herri-jaiak eta festak	-	-	100,0
-Gizarte-arloko komunikabideak	100,0	-	-
Gastuaren garrantzia (maila bakoitzeko guztizko gastuaren barnean)	2,4	3,1	9,7

Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako politikan egindako erakunde-gastua Eusko Jaurlaritzari eta foru-aldundiei dagokie ia erabat (% 53,9 eta % 41,6, hurrenez hurren), baina garrantzi erlatiboari dagokionez, foru-aldundien gastu-aurrekontuan baino ez da garrantzitsua (% 2,9).

Nekazaritza eta abeltzaintzako egituren eta sistemen hobekuntzarako programako gastua foru-aldundiek finantzatzen dute nagusiki (% 96,4), eta gainerakoa, berriz, toki-erakundeek (% 3,6). Eusko Jaurlaritzak partaidetza handiena du epigrafe hauetan: Nekazaritza eta landa-garapena (% 66,9); Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako bestelako jarduketak (% 60,6); eta batez ere, Arrantza-baliabideen babesa eta garapena (% 92,9).

NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA ARRANTZA	Eusko Jaurlaritzza	Foru-aldundiak	Toki-erakundeak
Gastuaren erakunde-banaketa (%)	53,9	41,6	4,5
-Nekazaritza eta abeltzaintzako egituren eta sistemen hobekuntza	-	96,4	3,6
-Nekazaritza eta landa-garapena	66,9	27,3	5,8
-Arrantza-baliabideen babesa eta garapena	92,9	-	7,1
-Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako bestelako jarduketak	60,6	38,4	1
Gastuaren garrantzia (maila bakoitzeko guztizko gastuaren barnean)	1,0	2,9	0,3

Industria eta Energiako politikan egindako gastua Eusko Jaurlaritzari eta foru-aldundiei dagokie ia erabat (% 48,2 eta % 48,4, hurrenez hurren), baina garrantzi handiagoa izan du foru-aldundien berezko gastuaren barnean (% 2,5). Toki-erakundeek alor horretan egindako ia gastu osoa Energiako programara bideratu da (toki-erakundeek programa horrengatik gastuaren % 100 hartu dute beren gain). Industriaren epigrafean, Eusko Jaurlaritzak kuota handiena du (% 91,7), eta Meatzaritzan, berriz, eskusiboa (% 100); bestalde, foru-aldundiei dagokie Teknologia berrien eta bestelako programari esleitutako gastuaren % 86,0.

INDUSTRIA ETA ENERGIA	Eusko Jaurlaritza	Foru-aldundiak	Toki-erakundeak
Gastuaren erakunde-banaketa (%)	48,2	48,4	3,4
-Industria	91,7	3,4	4,9
-Meatzaritza	100,0	-	-
-Energia	-	-	100,0
-Teknologia berriak eta bestelakoak	14,0	86,0	-
Gastuaren garrantzia (maila bakoitzeko guztizko gastuaren barnean)	0,7	2,5	0,2

Toki-erakundeek eta Eusko Jaurlaritzak hartu dute beren gain Merkataritza, turismo eta ETEen politikaren gastuen zatirik handiena (% 41,3 eta % 41,2, hurrenez hurren). Nazioartekotzeko programa-taldearen guztizko gastua eta Merkataritzako gastuaren % 75,1 Eusko Jaurlaritzari dagozkio. Bestalde, toki-erakundeei dagokie Bestelako sektore-jarduketak epigrafearen zatirik handiena (% 89,5). Enpresa-garapeneko programaren gastua foru-aldundiei eta toki-erakundeei dagokie erabat (% 44,5 eta % 55,5, hurrenez hurren), eta hiru erakunde-mailei dagokien programa bakarra Informazio eta sustapen turistikoarena da, toki-erakundeek ekarpenik handiena egin badute ere.

MERKATARITZA, TURISMOA ETA ETEak	Eusko Jaurlaritza	Foru-aldundiak	Toki-erakundeak
Gastuaren erakunde-banaketa (%)	41,2	17,6	41,3
-Merkataritza	75,1	-	24,9
-Informazioa eta sustapen turistikoa	28,7	20,2	51,1
-Enpresa-garapena	-	44,5	55,5
-Nazioartekotzea	100	-	-
-Bestelako sektore-jarduketak	-	10,5	89,5
Gastuaren garrantzia (maila bakoitzeko guztizko gastuaren barnean)	0,6	0,9	1,9

Zalantzarik gabe, Azpiegituren politikak garrantzi handia du foru-aldundien gastu-aurrekontuaren barnean (% 15,0); izan ere, erakunde-maila horrek izan du erakunde-gastuaren % 48,2, Eusko Jaurlaritzak politika horretan egindako gastuaren (% 46,7) ia berdina. Eusko Jaurlaritzak hartu ditu bere gain Garraioaren plangintza eta antolamenduaren eta Portuen programa guztiak; Tren eta metroaren programan, halaber, gastu gehiena Eusko Jaurlaritzari dagokio (% 85,7), eta gainerakoa, foru-aldundiei. Foru-aldundiek Ingurumen-jarduketan gastu osoa eta Errepideetako gastuaren % 97,5 dute esleituta. Bestalde, Auzo-bideetako gastuaren % 100 toki-erakundeek hartu dute beren gain. Hiru erakunde-mailen partaidetza izan duen programa bakarra Ur-baliabideena izan da, baina ekarpenik handiena Eusko Jaurlaritzak egin du (% 64,6).

AZPIEGITURAK	Eusko Jaurlaritzak	Foru-aldundiak	Toki-erakundeak
Gastuaren erakunde-banaketa (%)	46,7	48,2	5,2
-Ur-baliabideak	64,6	20,7	14,7
-Errepideak	-	97,5	2,5
-Auzo-bideak	-	-	100,0
-Trena eta metroa	85,7	14,3	-
-Ingurumen-jarduketak	-	100,0	-
-Garraioaren plangintza eta antolamendua	100,0	-	-
-Portuak	100,0	-	-
-Bestelako azpiegiturak	-	16,3	83,7
Gastuaren garrantzia (maila bakoitzeko guztizko gastuaren barnean)	3,8	15,0	1,4

Garraio publikoari dagokionez, foru-aldundiek (% 63,3) eta toki-erakundeek (% 36,7) hartu dute beren gain politika horretako gastua. Foru-aldundiek izandako gastuaren garrantzi erlatiboa toki-erakundeena halako bi izan da (% 4,9 eta % 2,5, hurrenez hurren). Garraio-azpiegituren programa ia erabat hartu dute beren gain toki-erakundeek, eta Bidaiarien garraioko gastua, berriaz, foru-aldundiek eta udalek partekatzen dute (% 64,9 eta % 35,1, hurrenez hurren).

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE-MAILA DESBERDINEN ESKUMEN
PROPIOEN ETA FINANTZAKETAREN AZTERKETA OROKORRA

GARRAIO PUBLIKOA	Eusko Jaurlaritza	Foru- aldundiak	Toki- erakundeak
Gastuaren erakunde-banaketa (%)	-	63,3	36,7
-Bidaiarien garraioa	-	64,9	35,1
-Garraio-azpiegiturak	-	-	100,0
Gastuaren garrantzia (maila bakoitzeko guztizko gastuaren barnean)	-	4,9	2,5

Azkenik, eta espero zitekeen bezala, Finantza- eta tributu-administrazioako politikari esleitutako gastuak garrantzi erlatibo handiagoa du foru-aldundietan (% 5,2), toki-erakundeetan (% 2,6) eta Eusko Jaurlaritzan (% 0,4) baino. Gastuaren erakunde-banaketan ere islatzen da hori (% 54,5, % 31,4 eta % 14,1, hurrenez hurren); hala, Finantza-politikaren epigrafean baino ez du erregistratu gastua Eusko Jaurlaritzak (izan ere, gastu guzti hori Eusko Jaurlaritzarena da). Gainerako programa-taldeetako gastua foru-aldundiei eta toki-erakundeei dagokie: batzuetan, batez ere toki-erakundeei (ekonomia-eta zerga-politika eta Ondarearen kudeaketa); beste batzuetan, berriz, batez ere foru-aldundiei (tributu-sistemaren kudeaketa); zenbait kasutan, azkenik, banaketa orekatua izan da (zorraren eta diruzaintzaren kudeaketa).

FINANTZA- ETA TRIBUTU-ADMINISTRAZIOA	Eusko Jaurlaritza	Foru- aldundiak	Toki- erakundeak
Gastuaren erakunde-banaketa (%)	14,1	54,5	31,4
-Ekonomia- eta zerga-politika	-	32,1	67,9
-Tributu-sistemaren kudeaketa	-	82,4	17,6
-Ondarearen kudeaketa	-	39,0	61,0
-Zorraren eta diruzaintzaren kudeaketa	-	47,0	53,0
-Finantza-politika	100,0	-	-
Gastuaren garrantzia (maila bakoitzeko guztizko gastuaren barnean)	0,4	5,2	2,6

6. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

6. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Euskal Autonomia Erkidegoko eskumen propioen eta erakunde-mailako finantzaketaren analisi orokorraren ondorioak eta gomendioak bideratuta daude ETELen lehen xedapen iragankorreko 3. atalean xedatutakoa betetzera, eta Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak kontuan izan ditzan EAEko administrazio publikoen artean gastu publikoa egoki banatzeko garaian. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeek beharrezko finantza-nahikotasuna eta -egonkortasuna izatea bermatzeko.

Zentzu horretan, egindako analisiaren arabera, honako ondorio eta gomendioak aipa daitezke:

1) *Analisisa egiteko metodologiaren inguruan:*

- Analisi hau egiteko garaian ikusi den arazo metodologiko nagusietako bat erakunde-mailen arteko kontabilitate-irizpideen eta aurrekontuak banatzeko irizpideen homogeneizaziorik eza izan da, gastu-programak taldeka sailkatzeari dagokionez. Hortaz, alde batetik, **Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluari GOMENDATZEN ZAIO aurrekontuak egozteko eta kontuak bateratzeko irizpide homogeneoak** ezar ditzala; irizpide hauek bateragarriak izango dira egonkortasunari buruzko arauen eskakizunekin. Bestalde, informazio-ondorioetarako ezar ditzala, unean uneko informazio-beharrizanen araberrako aurrekontu-egitura garatzen duten jarraibideak, EAEko sektore publikoaren kontsolidazioa lortzeko.
- Zentzu berean, **lurralde historikoetako foru-organoei GOMENDATZEN ZAIE irizpide homogeneo horiek aintzat hartzea** onartuko dituzten arauetan, ETELen 115.3 artikuluan xedatutakoarekin bat eginda.

2) *Erakunde-artikulazioari eta eskumen-egiturari dagokionez:*

- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea indarrean sartzean, Euskal Autonomia Erkidegoaren erakunde-artikulazioa burutu da, baita Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-

mailen eskumen banaketa ere, EAEko Autonomia Estatutuan eta Autonomia Erkidegoko erakundeen eta haren lurralde historikoen foru-organoen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legean ezarritakoarekin bat etorrita.

- Testuinguru horretan, araudi sektorialak, Eusko Legebiltzarrak onartutako legeriaren bidez batez ere, azken 35 urteotan zehaztu du Euskal Autonomia Erkidegoko hiru erakunde-mailen eskumen-banaketa arlo desberdinetan. Zenbait kasutan, EAEko administrazio publiko guztiei eta EAEko botere publikoei orokorrean aplikatu behar zaizkien arauen bidez eta, beste kasu batzuetan, aplikatzeko modukoak izateaz gain, erakunde-mailei eskumen zehatz batzuk egikaritzea esleitzen dieten arauen bidez. Are gehiago, batzuetan, araudiak espresuki zehaztu du EAEko hiru erakunde-mailetako zeini dagokion eskumen-gai zehatz baten funtzioen edo ahalmenen egikaritzea.
- ETEL indarrean sartu zenetik, ordea, **EAEko erakunde komunek eta lurralde historikoetako foru-organoei ETELen 18. artikuluan jasotako eskakizunak hartu behar dituzte kontuan, udal eskumen propioak atxikitzeari dagokionez, eta, bereziki, udalerrien finantza-nahikotasuna bermatzeko beharrezko baliabideak zuzkitzeari dagokionez.**

3) EAEko erakundeen finantzaketa-sistemari dagokionez:

- Orokorrean, EAEko erakundeen finantzaketa sistema, Ekonomia Ituna kudeatzearen ondoriozko baliabideen banaketa hiru erakunde-mailen titulartasunaren mendeko eskumenak edota zerbitzuak kontutan izanda oinarritu behar da; finantzaketa horren izaera globala eta baldintzarik gabekoa delarik. Dena den, erakunde bakoitzak bere aurrekontu-politika propioa gara dezake eta bere inbertsioen zenbatekoa eta bere eskumeneko zerbitzu publikoen prestazio-maila erabaki, finantza- eta aurrekontu-autonomiaren arabera egoki iritzitako baliabideak bideratuz.
- Orain arte, LHLren arabera, Ekonomia Ituna kudeatzearen ondoriozko diru-sarrerak, estatuari ordaindu beharreko kupoa kendu ondoren,

EAEko Ogasun orokorraren eta lurralde historikoetako foru-ogasunen artean banatu dira, azken horiek lehenengoari egin beharreko ekarpenak zehaztuz. Baliabide-banaketa horri banaketa bertikala deitzen zaio eta erakunde komunei lurralde historikoen artean egindako ekarpen-banaketari banaketa horizontala esaten zaio. Toki-erakundeen finantzaketari dagokionez, elkarren segidako ekarpen legeek **gomendatu diete** foru-organoei, partekatutako arriskuaren irizpidea erabilita eta finantza-tutoretza ahalmenak egikaritzuz, ahalbide dezatela toki-erakundeek **gutxieneko parte-hartzea izatea itundutako tributuetan**.

- ETEL indarrean sartzean, modu estrukturalean osatu da toki-erakundeen finantzaketa sistema, izan ere, **lehenengoz arautu da esplizituki toki-erakundeek itundutako tributuetan duten parte-hartzea**, euren eskumenak egikaritzeko beharrezko baliabide nahikoak bermatzeko, **Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluan erakundeon ordezkarien parte hartzearen bidez eta erakundearteko organo honek udalek itundutako tributuetan gutxieneko parte-hartzea ezarriz**.
- Orain arte, Ekonomia Itunetik eratorritako baliabideetan toki-erakundeen parte hartzea zenbait tresnaren bidez (finantzaketarako foru-funtsak, obretako eta zerbitzuetako foru-planak eta abar) gauzatu da. Horiek aztertuta, **ONDORIOZTATU DA lurralde historiko bakoitzak bere toki-erakundeei erabilgarri dauden baliabideen ehuneko desberdina ematen diela, baina beti baliabideak banatzeko eta ekarpenak zehazteko indarreko metodologiak gomendatutako gutxieneko maila beteta**. Dena den, etorkizuneko Ekarpen Legeak zehaztu beharko du toki-erakundeek hiru lurraldeetako **itundutako tributuetan parte hartzeko gutxieneko ehuneko berdin-berdina**.
- Halaber, argi geratu da eskuragarri dauden baliabideak udalerrien artean **banatzeko irizpideak desberdinak direla lurralde historikotan**. Ondorioz, horretarako **Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluari GOMENDATZEN ZAIO baliabideak banatzeko etorkizuneko me-**

**todologian, zerga politikako gomendio bezala, aipatutako bana-
ketarako irizpide homogeen batzuk sar ditzan**, ETELen 118. arti-
kuluaren ezarritakoarekin bat eginda, biztanleria eta ahalegin fiskala
batez ere kontuan izanda, eta **lurralde bakoitzeko toki-erakunde-
antolakuntza berezia aintzat harturik**.

4) Diru-sarrerei dagokienez:

- 2015eko ekitaldiko aurrekontu likidazioak kontuan izanda, EAEko administrazio publikoen diru-sarreraren zifra global bateratua EAEko ekonomiak sortzen duen aberastasunaren laurdena da gutxi-
gorabehera. Erakunde-maila bakoitzak dauzkan diru-sarreraren osaera
kontuan izanda, Eusko Jaurlaritzaren diru-sarrerak bateratutako guz-
tizkoaren % 63,5 dira; hiru foru-aldundienak % 17,1 dira; eta toki-
erakundeak, berriz, % 19,4.
- EAEko sektore publikoaren diru-sarrera bateratu gehienak zergetatik
datoz eta Ekonomia Itunaren kudeaketatik datozenak hiru erakunde-
mailatan dira iturri nagusiak, baina **EGIAZTATU DA Eusko Jaurlari-
tzak eta foru-aldundiek banatu behar diren diru-sarrerekiko
mendekotasuna handiagoa daukatela toki-erakundeekin aldera-
tuz, erakunde-maila bakoitzaren gainerako diru-sarreraren pisu
erlatiboarekin bat etorrita** (diru-sarrera propioak, diru-sarrera fi-
nalistak edo zorpetzetik eratorritakoak). Hortaz, Ekonomia Itunetik
eratorritako baliabideei dagokionez, ekonomia-zikloaren aldaketek
eragin desberdina daukate hiru erakunde-mailatan.
- EAEn erakunde baliabideak banatzeko ereduarekin bat etorrita eta
2011-2015 aldiko datuak kontuan izanda, **EGIAZTATU DA EAEko
toki-erakundearen diru-sarreraren egitura eta araubide komuneko-
na desberdinak direla**, toki-tributuen garrantzia txikiagoa baita,
baina transferentzia arruntek EAEko toki-erakundearen guztizko diru-
sarreretan duten parte-hartze erlatiboa handiagoa da. Per capita ter-
minoetan, **ONDORIOZTATU DA foru-aldundiek**, beraien finantza-
tutoretza ahalmenak egikaritzuz, **lurralde historikoko udalerrri guz-
tiei bermatu dietela araubide komunaren legeriaren arabera le-
gokiena baino baliabide gehiago**, hala ere, kontuan hartu behar da

EAEko araudi sektorialak eta ETELeK, **EAEko toki-erakundeei eskumen propio gehiago ematen dizkietela araubide komunak baino.**

- Horretaz gain, **EGIAZTATU DA hiru erakunde-mailek gaitasun desberdina dutela diru-sarrera propioak sortzeko**, toki-erakundeei beraien tokiko tributuen ordainarazpen gaitasuna baitute, eta horri esker, egoki iritzitako moduan kudeatzeko ahalmena dute, euren zerga eta finantza-autonomiaz baliatuz. Beraz, aukera dute diru-sarrera gehiago edo gutxiago lortzeko, logikoki, zergakudeaketaren erabileraren oreka eta tokiko gainerako diru-sarrerekiko oreka kontuan izanda.
- Lurralde historikoetan tokiko zergak arautzen dituzten foru-arauak ikusita, eta kontuan izanda lurralde bakoitzean aplikatu beharreko zerga-kargen edo tarifen tipologia eta bost udal zergetako bakoitzak diru-bilketan duen garrantzi erlatiboa, **EGIAZTATU DA udalerrri mailan “zerga-ibiltarte” bat egon badagoela**, eta horri esker, diru gehiago bildu ahal izango luketela, Autonomia Estatutuan eta Ekonomia Itunean erakunde komunei eta foru-organoei ematen zaien tributu ahalmena hargatik eragotzi gabe. Ildo berean, tributuetatik eratorritako diru-sarrerak kontuan hartzen baditugu, **EAEko udalerrien biztanleko zerga-presioa araubide komuneko toki-erakundeen bateguz bestekoa baino txikiagoa da.**
- Diru-sarrera finalistei dagokienez, ETELeK dio finantzaketa baldintzatu-tresnak salbuespenak baino ez direla izango; hauek, autonomia erkidegoko araudiaren edo foru-araudiaren bidez, edo autonomia-erkidegoaren zein foru erakundeen berariazko diru-laguntza politika baten bidez baino ezingo dira ezarri; printzipio jakin batzuen arabera. Testuinguru horretan, EAEko toki-erakundeei jasotzen dituzten **transferentziak eta diru-laguntzak aztertuta, EGIAZTATU DA gehienak Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien eskumen propioak egikaritzearen isla direla**, batez ere, euren eskumeneko gai zehatz batzuen inguruan sustatzeko duten ahalmena egikaritzean onuradunak toki-erakundeak izanik. Eta beraz, **ONDORIOZTATU BEHAR**

DA transferentziok zein diru-laguntzok indarrean jarraitzeak ez dutela udal finantzaketaren araubidea aldatzen.

— Bestalde, ETEL indarrean sartu eta gero, **udal eskumenak finantzatzeko transferentzia baldintzatuen kasuan, honako hau ONDORIOZTATU DA:**

- a) ETELen aurreko edo ondorengo araudi sektorialak aitortutako eskumen propioen kasuan dagokien finantzaketa dute, eta ez litzaike Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien finantzaketa osagarri eman beharko.
- b) Beren irismena definitzen duen araudi sektorialik ez duten eremu materialetan egikaritzen diren eskumen propioen kasuan, toki-erakundearen kontura edo dagokion administrazioarekiko lankidetzaren bidez finantzatu ahal izango dira. Baina printzipioz, diru-laguntza deialdien bidezko finantzaketa osagarriaren aukera baztertu beharko litzateke.
- c) Eskumenen klausula orokorretik eratorritako udal jarduera, prestazio eta zerbitzuen kasuan, toki-erakundeak berak finantzatu ahal izango ditu, salbu eta lege batek kontrakoa xedatzen duenean edo diru-laguntza espezifiko baten xede direnean.

— Gorago azaldutako irizpide horiekin bat etorruta, **GOMENDATU DA berriz aztertzea udalerriei eta toki-erakundeei dagozkien eskumeneko zerbitzuetan eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta erabilera hori planifikatu eta normalizatzeko eskumenak transferentzia baldintzatu bidez finantzatzea**, eta helburu horretara bideratutako aurrekontu zuzkidura guztiak, edo batzuk, baliabideak banatzeko eredura bideratzea, baldintzarik gabeko finantzaketa gisa edo berorren betearazpen gisa, ETELen 111.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorruta.

— Bestalde, **GOMENDATU DA Eusko Jaurlaritzak Gizarte Zerbitzuen Aparteko Funtsari egindako ekarpenaren zenbatekoa baliabideak banatzeko eredura sartzea, koefiziente bertikala gutxituz;**

eta baliabideak banatzeko eta ekarpenak zehazteko etorkizuneko metodologian horrela agertzea.

- Halaber, **GOMENDATU DA**, beharrezko foroetan (erakundeen arteko organoak, eskualdeko finantza kontseiluak eta abar), **toki-erakundeen eskumen propioak egikaritzea finantza dezaketen transferentziak aztertzea**; eta **finantza-tresna egokiak ezartzea** komeni den hausnartzea, ETELen 111. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.
- Horrez gain, ETELen araubide iragankor baten helburu diren, eta ahalik eta lasterren garatu behar diren, **Gizarte Larrialdietarako Laguntzak** (zortzigarren xedapen iragankorra) eta udal titulartasunaren menpeko **Musika Irakasteko Zentroak** eta **udal euskaltegiak** (zazpigarren xedapen iragankorra) finantzatzen dituzten transferentziak, bitartean, **euren araubide berezien arabera arautuko dira**.
- Zorrari dagokionez, **EGIAZTATU DA zorpetzea** kontu estrukturala dela erakunde-maila guztietan, baina **esanguratsuagoa da Eusko Jaurlaritzan eta foru-aldundietan**. Zorpetzea, finantzatzeko modu legez, gutxiago erabiltzen da EAEko toki-erakundeetan, araubide komuneke toki-erakundeekin konparatzen badugu. **Zor bizi metatuak** garapen oso desberdina izan du erakunde-mailen arabera: 2007-2015 aldian **hirukoiztu egin da Eusko Jaurlaritzaren kasuan, eta bi-koiztu, foru-aldundien kasuan; toki-erakundeen kasuan, ordea, mailari eutsi zaio**, gai hori arautzen duten foru-arauetan xedatutako zorpetze-mailen mugak betetzeko. Horrez gain, aurrekontuen egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko araubideak jarritako muga zorrotza kontuan izanda, **2 urteko epean, Eusko Jaurlaritzak ezingo du zorpetzen jarraitu gastuak finantzatzeko** eta zoren epe-mugak ordaintzeko baino ezingo du erabili.

5) Gastuei dagokienez:

- 2015ean, EAEko administrazioen gastuaren zifra bateratua 15.605,9 milioi euro da, eta horietatik, 9.972,8 milioi Eusko Jaurlaritzari dagoz-
kio, 2.736,8 milioi, foru-aldundiei, eta 2.896,2 milioi, berriz, toki-
erakundeei. Sailkapen ekonomikoari dagokionez, **EGIAZTATU DA
erakunde-maila bakoitzaren gastu egitura desberdina dela, era-
kunde-maila guztietan gastu arruntak direla nagusi eta finantza-
gastuek garrantzi erlatibo desberdina dutela.**
- 2015ean, EAEko administrazio publikoen diru-sarrerek, zorpetzetik
datozenak kontuan hartu gabe, gastuen % 99,2 estaltzen dute, zorra-
ren eta berorren interesak amortizatzeko gastuak izan ezik. Hots, de-
fizit osoa % 2,9 da, eta hori ordaintzeko, zorpetze garbia 437,2 milioi
eurotan handitu da. **EGIAZTATU DA 2015ean Eusko Jaurlaritzak
zorpetzetik eratortzen ez diren gastuen ia % 6 (interesak barne)
finantzatu behar zuela, foru-aldundiek, % 3; aldiz, toki-erakunde
guztien finantzaketa-gaitasuna % 6,6 da.**
- Erakunde-maila bakoitzaren finantza-autonomiaren mailari dago-
kionez, **EGIAZTATU DA banatzeko diren diru-sarrerek Eusko
Jaurlaritzaren gastuen (zorpetzetik ez datozen gastuak) % 92,5
finantzatzen dutela; foru-aldundien eta toki-erakundeen kasuan,
% 86,1 eta % 49,5 da, hurrenez hurren. Horren arrazoia hiru era-
kunde-mailetan diru-sarrera propioen garrantzia desberdina izatean
datza.**
- Gastu-politiken araberako sailkapenari dagokionez, **EGIAZTATU DA
gastu-politika bakoitzak hiru erakunde-mailetan garrantzia des-
berdina duela.** Eusko Jaurlaritzan, osasun- eta hezkuntza-politikak
gastuen erdiak baino gehiago dira. Foru-aldundientzat, gizarte-
zerbitzuekin eta gizarte-sustapenarekin lotutako politika-gastuaren
herena baino gehiago da. Toki-erakundeek gasturik gehiena erkide-
goaren ongizatera, zerbitzu orokorrak, gizarte-zerbitzuak eta gizarte-
sustapenekoak, etxebizitza eta hirigintza, segurtasuna eta herritarren
mugikortasuna, kultura eta kirolak bideratzen dute.

— Egindako gastu-sailkapena kontuan izanda (esklusiboak, maioritari-
oak eta erakunde-mailen artean banatutakoak) **oro har, ONDORIOZ-
TATU DA erakunde-maila bakoitzaren programa-taldekako gas-
tua neurri handi batean bat datorrela EAEko Autonomia Estatu-
tuak, Lurralde Historikoen Legeak eta araudi sektorialak orain
arte ezarritako eskumen banaketarekin.**

**Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Le-
gearen lehenengo xedapen iragankorraren 3 atalean ezarritakoa
kontuan izanda, hauxe da ONDORIOA:**

**EAEko toki-erakunde bakoitzaren finantza-gaitasuna oso desber-
dina da, baina erakunde-maila hau osotasunean hartuta, finantza-
keta egokia dute euren eskumenak garatzeko. Halaber, EAEko
erakunde-mailek egoki erantzuten diete euren eskumen propioei,
eta orokorrean, gastuaren banaketa zuzen dago islatuta.**

I.ERANSKINA: EUSKAL AUTONOMI ESTATUTUAN AURREIKUSITAKO EAEKO ESKUMENETAN ERAGINA DUTEN LEGE MAILAKO INDARREAN DAGOEN ARAUDIA

<p style="text-align: center;">EAEko ESKUMENAK (EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUA)</p>	<p style="text-align: center;">ARAUDI SEKTORIALA</p>
<p>3. art. (LLHH)</p>	
<p>Euskal Herria osatzen duen Herrialde Historikoetako bakoitzak, beti ere berorren baitan, autogobernuko bere antolakera eta instituzio propioak gorde ditzake edota, bestela, berrezar eta egunera.</p>	<p>27/1983 LEGEA, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremani buruzkoa.</p>
<p>4. art. (Egoitza)</p>	
<p>Euskal Biltzarreak emango duen legearen bitartez eta Komunitate Autonomoaren lurraldearen barruan egingo da Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren Erakunde komuneko egoitzaren hautaketa.</p>	<p>1/1980 LEGEA, maiatzaren 23koa, Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko Erakundearen egoitza-ri buruzkoa.</p>
<p>6. art. (Euskera)</p>	
<p>1. Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.</p> <p>2. Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunek Euskal Herriko egoera sozio linguistikoaren ñabardurak kontutan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, beroien ofizialtasuna erregulatuz, eta beroien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte.</p> <p>3. Hizkuntza dela-eta, ez da inor gutzietsiko.</p> <p>4. Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia izango da erakunde aholku-</p>	<p>10/1982 LEGEA, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa.</p> <p>29/1983 LEGEA, azaroaren 25ekoa, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzeako Erakunde Sortaraztekoa eta Euskaltegiak Araupetzezkoa.</p> <p>3/2007 LEGEA, apirilaren 20koa, Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute sortzeko eta arautzekoa.</p>

<p>emale.</p> <p>5. Euskara beste euskal lurralde eta komunitate batzutako ondarea ere izanik, erakunde akademiko eta kulturazkoek beroiekin izan ditzaketan harreman eta loturez kanpo, Euskal Herriko Komunitate Autonomoak eskatu ahalko dio espainol Gobernuari lurralde eta komunitate horiek kokaturik daudeneko Estatuekin itunak eta komenioak egin ditzala -edo eta hala behar izanez gero Gorte Jeneralei horretarako eskabidea ager dezan, berauek hura onartzeko-, horretara euskara zaindu eta bultzatzen.</p>	
<p>7. art. (...)</p>	
<p>1. Estatuto honetaz balia ahal izateko, ondoko hauek izango dute euskaldunen kondizio politikoa: Estatuko lege orokorren arauera, Komunitate Autonomoaren lurraldeko edozein udaletan egoitza administratiboa duten guztiek.</p> <p>2. Atzerrian bizi direnek eta gauza bera beroien ondokoek hala eskatzen baldin badute, Euskal Herrian bizi diren egoiliarrek dituzten eskubide berberak izango dituzte, baldin eta horien azken egoitza administratiboa Euskal Herrian izan bada, eta españatar naziotasunari eutsi badiote.</p>	<p>8/1994 LEGEA, maiatzaren 27koa, Euskal Autonomi Erkidegoaz kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanetarako.</p>
<p>9. art. (Eskubideak eta betebeharrak)</p>	
<p>1. Euskal Herriko hiritarren oinarritzko eskubideak eta betebeharrak Konstituzioan finkaturik dauden berberak dira.</p> <p>2. Euskal botere publikoek, beroiei dagozkien alorretan:</p> <p>a) Hiritarren oinarritzko eskubide eta betebeharren erabilpen egokia zaindu eta bermatuko dute.</p>	<p>20/1997 LEGEA, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna Sustatzekoa.</p> <p>10/2000 LEGEA, abenduaren 27koa, Gizarte Eskubideen Agiriarena.</p> <p>2/2003 LEGEA, maiatzaren 7koa, izatezko bikoteak arautzeko.</p> <p>2/2004 LEGEA, otsailaren 25ekoa, datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa.</p>

<p>b) Bizitzeko eta lan egiteko kondizioen hobekuntza ekar dezakeen politika bultzatuko dute bereziki.</p> <p>c) Enpleguaren gehikuntza eta ekonomiaren egonkortasuna suztatzen lagun dezaketen neurriak hartuko dituzte.</p> <p>d) Gizabanakoaren eta berori sartuko den taldeen askatasuna eta berdintasuna zinezkoa eta egiazkoa izan daitezen, diratekeen oztopoak erauzteko eta aldeko kondizioei eragiteko neurriak hartuko dituzte.</p> <p>e) Euskal Herriko politika, ekonomia, kultura eta gizarte alorretako bizitzan hiritar guztien partehartzea erraztuko dute.</p>	<p>14/2007 LEGEA, abenduaren 28koa, Herrialde Txiroetuekiko Justizia eta Elkartasunerako Kartari buruzkoa.</p> <p>4/2008 LEGEA, ekainaren 19koa, terrorismoaren biktimei errekonozimendua eta ordaina emateari buruzkoa.</p> <p>14/2012 LEGEA, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.</p> <p>4/2014 LEGEA, azaroaren 27koa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzekoa.</p> <p>7/2015 LEGEA, ekainaren 30ekoa, gurasoen banantze edo haustura kasuetako familia harremanei buruzkoa.</p> <p>12/2016 LEGEA, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa.</p>
<p><i>Eskumen eskusiboak (10. art.)</i></p>	
<p>1. Udal barrutien mugaketak, Estatuto honen 37. artikuluan erabakitzen denaren arauera, herrialde historikoei dagozkien ahalmenei kalterik egiteke.</p>	<p>3/1980 LEGEA, abenduaren 18koa, "Bilbo Haundi"-ko Arduralaritza-Bazkunaren ezabapenari buruzkoa.</p>
<p>2. Autogobernatzeko erakundeen antolamendu, erregimen eta funtzionamendua, beti ere Estatuto honen arauen barruan.</p>	<p>8/1983 LEGEA, apirilaren 14koa Euskadiren Ereserki Ofizialari buruzkoa.</p> <p>1/1988 LEGEA, otsailaren 5ekoa, Herri Kontuen Euskal Epaitegiarena.</p> <p>9/2004 LEGEA, azaroaren 24koa, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzkoa.</p>

	<p>6/2010 LEGEA, abenduaren 23koa, Euskadiko publizitate eta komunikazio instituzionalari buruzkoa.</p> <p>4/2012 LEGEA, otsailaren 23koa, Lan Harremanen Kontseiluari buruzkoa.</p> <p>8/2012 LEGEA, maiatzaren 17koa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearena.</p> <p>7/2016 LEGEA, ekainaren 2koa, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzekoa.</p>
<p>3. Euskal Biltzarrea, Junta Nagusiak eta Diputazio Foralekin zerikusirik duten hauteskundeetarako barnelegegintza, Estatuto honetan seinalatzen denari jarraituz eta 37. artikuluan erabakitzen denaren arauera, Herrialde Historikoei dagozkien ahalmenei kalte egiteke.</p>	
<p>4. Erregimen lokala eta Euskadiko eta bertako Administrazio Lokaleko funtzionarien Estatutoa, Konstituzioaren 149-1-18 artikuluan jartzen denari kalterik egiteke.</p>	<p>3/1980 LEGEA, abenduaren 18koa, "Bilbo Haundi"-ko Arduralaritza-Bazkunaren ezabapenari buruzkoa.</p> <p>2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.</p> <p>16/1983 LEGEA, uztailaren 27koa, "Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeaz".</p> <p>1/1986 LEGEGINTZA/DEKRETUA, maiatzaren 13koa Euskal Herriko Autonomia-Administrazioan bere zerbitzuak egin zituen langilegoaren lanbide eta gozamen eskubideei buruzko Eraberritutako Idazkera onartzekoa.</p> <p>6/1989 LEGEA, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.</p> <p>2/1992 LEGEA, maiatzaren 8koa, Lan-Harrenanetarako Batzordearen zerbitzupeko langilegoa antolatzeko dena.</p>

	1/2004 LEGEA, otsailaren 25ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak Antolatzekoa.
5. Euskal Herria osatzen duten Herrialde Historikoen Zuzenbide Zibil Foral eta berezi -idatzia nahiz ohizkoaren- kontserbazio, aldatze eta bilakaera, bai eta beraren indarraren lurralde-barrutiaren finkapena ere.	2/2003 LEGEA, maiatzaren 7koa, izatezko bikoteak arautzekoa. 5/2015 LEGEA, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa.
6. Euskal Herriko Zuzenbide sustantiboaren berezitasunetik eta beronen antolamendutik datozen arau prozesalak eta prozedura administratibo eta ekonomiko-administratiboak.	2/1998 LEGEA, otsailaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa. 8/2003 LEGEA, abenduaren 22koa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena.
7. Ondasun publikoak eta ondarezkoak, berauen titulartasuna Komunitate Autonomoari dagokionean, bai eta beraren konpetentzigaien zerbitzalgo publikoak ere.	2/2007 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, azaroaren 6koa, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzeko dena.
8. Mendi-basoak, oihanen erabilera eta zerbitzuak, abelbideak eta bazkalarrak, Konstituzioaren 149-1-23. artikuluari kalterik egiteke.	
9. Nekazaritza eta abelazkuntza ekonomiaren antolaketa orokorraren arauera.	7/1992 LEGEA, abenduaren 21ekoa, Alde Ureztagarrii, Hobekuntzarako Eskualde-Planei eta Eraldatzeko Plan Orokorrei buruzko alderdi batzuk araupetzen dituena. 2/1996 LEGEA, maiatzaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Elikagaien Profesioarteko Erakundeei buruzkoa. 10/1998 LEGEA, apirilaren 8koa, Landa Ingurunearen Garapeneko. 5/2004 LEGEA, maiatzaren 7koa, Mahastizaintza eta Ardogintza Antolatzekoa.

	<p>10/2006 LEGEA, abenduaren 29koa, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoari buruzkoa.</p> <p>17/2008 LEGEA, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa.</p> <p>8/2015 LEGEA, urriaren 15koa, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzkoa.</p>
10. Barne-uretako arrantza, itsaski-bilketa eta arrain hazkuntza, ehiza eta ibaiaintziretako arrantza.	<p>1/1989 LEGEA, apirilaren 13koa, ehizeko eta ibai-arrantzuko arduralaritza-hauspen jakin batzuren zermugapena aldatu eta zigorren zenbatekoa haundiagotzen duena.</p> <p>6/1998 LEGEA, martxoaren 13koa, itsas arrantzari buruzkoa.</p> <p>2/2011 LEGEA, martxoaren 17koa, Ehizarena.</p>
11. Ur erabilerak, kanale eta ureztaketak, urak osoki Euskadin kurri daitezenean, energi produkzioa, banaketa eta garraiatzeko instalakuntzak, garrarioa euskal lurraldetik kanpora irteten ez denean eta beraien erabilera beste probintzia edo Komunitate Autonomori kalterik egiten ez dionean: metalurak, urberoak eta lurpekoak. Hori guztiori Konstituzioaren 149-1-25 artikuluari kalte egiteke.	<p>7/1992 LEGEA, abenduaren 21koa, Alde Ureztagarriari, Hobekuntzarako Eskualde-Planei eta Eraldatzeko Plan Orokorrei buruzko alderdi batzuk araupetzen dituena.</p> <p>1/2006 LEGEA, ekainaren 23koa, Urarena.</p>
12. Laguntza soziala.	<p>10/2000 LEGEA, abenduaren 27koa, Gizarte Eskubideen Agiriarena.</p> <p>2/2003 LEGEA, maiatzaren 7koa, izatezko bikoteak arautzekoa.</p> <p>10/2007 LEGEA, ekainaren 29koa, Ahalmen Urrituentzako Laguntza Txakurrei buruzkoa.</p> <p>1/2008 LEGEA, otsailaren 8koa, Familia Bitartekaritzakoa.</p>

	<p>4/2008 LEGEA, ekainaren 19koa, terrorismoaren biktimei errekonozimendua eta ordaina emateari buruzkoa.</p> <p>12/2008 LEGEA, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.</p> <p>13/2008 LEGEA, abenduaren 12koa, Familiei Laguntzekoa.</p> <p>18/2008 LEGEA, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa.</p> <p>1/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa.</p> <p>12/2016 LEGEA, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa.</p>
<p>13. Irakaskuntzari, kulturari, arte, ongintza, ardura sozialari eta antzekoei laguntzeko diren Fundazio eta Elkartek berauek beren funtzioak ia erabat Euskal Herrian betetzen dituztenean.</p>	<p>17/1998 LEGEA, ekainaren 25koa, Boluntarioei buruzkoa.</p> <p>7/2007 LEGEA, ekainaren 22koa, Euskadiko Elkarteei buruzkoa.</p> <p>9/2016 LEGEA, ekainaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoa.</p> <p>6/2016 LEGEA, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa.</p>
<p>14. Adinera heldugabeen babes eta tutoregorako, gartzelatzeko eta gizartean berrintegratzeko erakunde eta etxeen antolaketa, erregimena eta funtzionamendua, gai zibil, gaztigu eta gartzelazkoez legegintza orokorrak dioten arauera.</p>	<p>2/2003 LEGEA, maiatzaren 7koa, izatezko bikoteak arautzekoa.</p> <p>3/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Ba-</p>

	bestekoa.
15. Farmazi antolaketa Konstituzioaren 149-1-16 artikulua arauera, bai eta higiezia ere, Estatu honen 18. artikuluan jarria kontutan harturik.	7/1993 LEGEA, abenduaren 21ekoa, OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea sortzekoa. 11/1994 LEGEA, ekainaren 17koa, Euskal Autonomi Elkarteko Ordenazio Farmazeutikorako dena.
16. Zientzien eta tekniken ikerpena, Estatuarekin koordinatuki.	
17. Kultura, Konstituzioaren 149.2. artikuluan erabakiari kalterik egiteke.	3/2007 LEGEA, apirilaren 20koa, Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute sortzeko eta arautzekoa.
18. Arte Ederrak irakasteko eta berauek bultzatzeko daudekeen Erakundeak. Eskulangintza.	
19. Kultur, histori, arte, monumentu, arkeologi eta zientzi ondareak, esportazio eta expoliazioaren kontra, esandako ondare horien alde Estatuak ezarriko dituen arauak eta beharkiak Komunitate Autonomoak bere gain hartuko dituelarik.	7/1990 LEGEA, uztailaren 3koa, Euskal Kultur Ondareari Buruzkoa.
20. Artxiboak, Bibliotekak eta Museoak, Estatuak berorien titulartasunik ez duenean.	7/1990 LEGEA, uztailaren 3koa, Euskal Kultur Ondareari Buruzkoa. 7/2006 LEGEA, abenduaren 1ekoa, Euskadiko Museoei buruzkoa. 11/2007 LEGEA, urriaren 26koa, Euskadiko Liburutegiei buruzkoa.
21. Nekazal eta Jabeko Ganbarak, Arrantzaleen Kofradiak, Merkatalgo, Industri eta Nabigazio Ganbarak, atzerriarekiko merkatalgoan Estatuaren kompetenziari kalterik egiteke.	6/1990 LEGEA, ekainaren 15ekoa, Nekazaritza-Bazkundeei buruzkoa. 16/1998 LEGEA, ekainaren 25ekoa, arrantzaleen kofradiei buruzkoa. 13/2007 LEGEA, abenduaren 27koa, Nekazaritza Ganberak azkentzekoa.
22. Kolegio Profesionalak eta profesio titiludunen betetzea, Konstituzioa-	18/1997 LEGEA, azaroaren 21ekoa, titiludun lanbideei eta profesionalen

<p>ren 36. eta 139. artikuluetan erabakiari kalterik egiteke. Estatuaren legeen arauera notariak izendatzea.</p>	<p>elkargo eta kontseiluei buruzkoa.</p> <p>19/1997 LEGEA, azaroaren 21ekoa, Euskadiko Podologoek Elkargoa sortzekoa.</p> <p>3/2000 LEGEA, ekainaren 29koa, Informatikako Ingeniarien Euskadiko Elkargo Ofiziala sortzekoa.</p> <p>1/2001 LEGEA, martxoaren 16koa, Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala sortzekoa.</p> <p>7/2003 LEGEA, abenduaren 22koa, Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa sortzekoa.</p> <p>4/2006 LEGEA, azaroaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Logopedien Elkargoa sortzekoari buruzkoa.</p> <p>10/2008 LEGEA, urriaren 10ekoa, Euskadiko Tarapeuta Okupazionalen Lanbide Elkargoa eratzekoa.</p> <p>14/2008 LEGEA, abenduaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Dietista-Nutrizionisten Elkargo Ofiziala sortzekoa.</p> <p>17/2012 LEGEA, ekainaren 28koa, Kazetarien Euskal Elkargoa sortzekoa.</p> <p>18/2012 LEGEA, ekainaren 28koa, Euskadiko Ekonomialarien eta Merkataritza Tituludunen Elkargoak bateratzekoa.</p>
<p>23. Kooperatibak, Seguru Sozialesan sartu gabe dauden Mutualitate eta Posituak, beti ere merkatal legegintza orokorrak diotenaren arauera.</p>	<p>4/1993 LEGEA, ekainaren 24koa, Euskadiko Kooperatibena.</p> <p>6/2008 LEGEA, ekainaren 25ekoa, Euskadiko Kooperatiba Sozietate Txikiei buruzkoa.</p>

	5/2012 LEGEA, otsailaren 23koa, Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Erakundeena.
24. Euskadiko sektore publiko propioa, Estatuto honetako beste arau batzuk hura ukitzen ez duten neurrian.	5/1981 LEGEA, ekainaren 10ekoa, "Industriaren Suztapen eta Eraldaketarako Baltzua Sortarazteaz". 9/1982 LEGEA, azaroaren 24koa, Enerjiaren Euskal Erakundearen sortaraziz.
25. Ekonomiaren bultzapen eta aurrerabidea eta Euskal Herriko ekintza ekonomikoaren plangintza, ekonomiaren antolaketa orokorraren arauera.	5/1981 LEGEA, ekainaren 10ekoa, "Industriaren Suztapen eta Eraldaketarako Baltzua Sortarazteaz". 16/2012 LEGEA, ekainaren 28koa, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzekoa.
26. Kreditu korporatibo, publiko eta lurraldezkorako Erakundeak, eta Aurrezki Kutxak, Estatuak kreditu eta bankaren ordenamenduaz ezarriko dituen oinarriak eta monetar politika orokorraren barrutia errespetatuz.	11/2012 LEGEA, ekainaren 14koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrezki Kutxena.
27. Barne merkatalgoa, prezioen politika orokorraren, Estatu barruan ondasunen joanetorri librearen eta konkurrentziaren aldeko legegintzari kalterik egiteke. Feriak eta barneko merkatuak. Jatorrizko izena eta iragarbidea Estatuarekin koordinatuki.	7/1994 LEGEA, maiatzaren 27koa, merkataritza-jarduerari buruzkoa. 1/2012 LEGEA, otsailaren 2koa, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa.
28. Kontsumatzaile eta erabiltzailearen defentsa goiko apartatuan mugatzen den bezala.	6/2003 LEGEA, abenduaren 22koa, Kontsumatzaile eta Bezeroen Estatu-tuari buruzkoa. 9/2007 LEGEA, ekainaren 29koa, Kontsumatzaile-Kontsumoko Euskal Institutua sortzekoa.
29. Merkatalgo Burtsa eta gainerantzeko merkantziak eta baloreak kontratatzeke zentroak antolatu eta erregulatzea, merkatal legeen arauera.	
30. Industria, segurtasun, garrantzi militar eta osasun arrazoiengatik eta lege berezipean diratekeen industrien ezarkuntza, zabalpen eta lekualda-	5/1981 LEGEA, ekainaren 10ekoa, "Industriaren Suztapen eta Eraldaketarako Baltzua Sortarazteaz".

<p>tzea izan ezik, ez eta funtzio hauetarako legegintza espezifik behar duten guztiak ere, eta atzerritar teknologiaren transferentzia egiteko alde aurretiko kontratoak behar dituztenak ere ez. Industria sektoreen berrestrukturaketan Estatuak ezarriko dituen planak Aurrera eraman eta betetzea Euskal Herriari dagokio.</p>	<p>rako Baltzua Sortarazteaz". 8/2004 LEGEA, azaroaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Industria-koa.</p>
<p>31. Lurralde, kostea, hirigintza eta etxebizitzaren antolaketa.</p>	<p>8/1987 LEGEA, azaroaren 20koa, Nahitaezko Jabegokenketarako Lurralde Epaimahaiak sortarazteari buruzkoa. 4/1990 LEGEA, maiatzaren 31koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolatzeari buruzkoa. 2/2006 LEGEA, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa. 3/2015 LEGEA, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.</p>
<p>32. Trenbideak, lehor, itsaso, ibai eta kablezko garraioak, portuak, heliportuak, aireportuak eta Euskal Herriko Meteorologi Zerbitzua. Konstituzionaren 149-1-20 artikulua erabakiari kalterik egiteke. Kontratatzeko zentroak eta garraio arazoei dagokienez kargarako bukalekuak ere bai.</p>	<p>3/1981 LEGEA, otsailaren 12koa, "Merkatalgaien. Bidezko Lorraketarako Garraiakizun-Akuratategiei" buruzkoa. 2/2000 LEGEA, ekainaren 29koa, Bidaiariak Herri Barruan eta Herriz Kanpo kotxez garraiatzeko Zerbitzu Publikoa Arautzen duena. 5/2003 LEGEA, abenduaren 15koa, Euskadiko Garraio Agintaritzarena. 4/2004 LEGEA, martxoaren 18koa, Errepideko Bidaiari Garraioarena. 6/2004 LEGEA, maiatzaren 21ekoa, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari buruzkoa.</p>
<p>33. Interes orokorraren legezko kalifikapenik ez duten Lan Publikoak, edo eta berauen betetzeak beste lurralderik ukituko ez dutenak.</p>	
<p>34. Kamio-bideei dagozkienetan, Konstituzioaren 148. artikulua 1 zen-</p>	<p>2/1989 LEGEA, maiatzaren 30ekoa, Euskal Herriko Errepideen Egitamu</p>

<p>bakiaren 5. apartatuan bildurik dauden kompetentziez gainera, Herrialde Historikoetako Diputazio Foralek osorik gordeko dituzte beren baitan dituzten erregimen juridiko eta kompetentziak, edo eta, hala nahi izanez gero, Estatutaren 3. artikulua arauera berrartuko dituztenak.</p>	<p>Nagusia araupetzekoa. 5/2003 LEGEA, abenduaren 15koa, Euskadiko Garraio Agintaritzarena.</p>
<p>35. Kasino, joko eta apustuak, Apuestas Mutuas Deportivas Benéficas deritzenak izan ezik.</p>	<p>4/1991 LEGEA, azaroaren 8koa, Euskal Herriko Autonomi Elkartean joko arautzekoa.</p>
<p>36. Turismo eta Kirolak. Aisia eta Atsedena.</p>	<p>13/2016 LEGEA, uztailaren 28koa, Turismoarena. 14/1998 LEGEA, ekainaren 11koa, Euskadiko Kirolarena. 12/2012 LEGEA, ekainaren 21ekoa, Kiroleko Dopinaren aurkakoa.</p>
<p>37. Euskal Herriko Estatistika, beraren helburu eta kompetentzietarako.</p>	<p>4/1986 LEGEA, apirilaren 23koa, Euskadiko Autonomia Elkartearen Estatistikari buruzkoa.</p>
<p>38. Ikusgarriak.</p>	<p>10/2015 LEGEA, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena.</p>
<p>39. Komunitatearen aurrerabidea. Emakume kondizionaren arazoa. Haur, gazte eta hirugarren adinekoen aldeko politika.</p>	<p>6/1986 LEGEA, maiatzaren 27koa, Consejo de la Juventud de Euskadi-Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari buruzkoa. 2/1988 LEGEA, otsailaren 5ekoa, Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea sortarazteari buruzkoa. 17/1998 LEGEA, ekainaren 25ekoa, Boluntarioei buruzkoa. 4/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako. 1/2007 LEGEA, otsailaren 22koa, Garapenerako Lankidetzari buruzkoa. 5/2008 LEGEA, ekainaren 19koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal</p>

	<p>Agentzia sortu era arautzen duena.</p> <p>7/2015 LEGEA, ekainaren 30ekoa, gurasoen banantze edo haustura kasuetako familia harremani buruzkoa.</p> <p>8/2015 LEGEA, urriaren 15ekoa, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzkoa.</p> <p>6/2016 LEGEA, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzkoa.</p>
<p><i>Araudia garatzeko eta betearazteko eskumenak (11. art.)</i></p>	
<p>-Ingurugiroa eta ekologia.</p>	<p>5/1989 LEGEA, uztailaren 6koa, Urdaibaiko Biosfera-Gebenaldea Babestu eta Antolatzeari buruzkoa.</p> <p>6/1993 LEGEA, urriaren 29koa, animaliak babestekoa.</p> <p>3/1998 LEGEA, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra.</p> <p>1/2014 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duena.</p> <p>4/2015 LEGEA, ekainaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa.</p>

	6/2015 LEGEA, ekainaren 30ekoa, hidrokarburo ez-konbentzionalak erazuzteko prozesuan eta haustura hidrauliko edo «fracking»ean ingurumena babesteko neurri osagarriei buruzkoa.
-Ezinbesteko desjabetzea, kontratu eta kontzesio administratiboak, guztiok berari dagozkion kompetentzietan, eta Euskal Herriko Administrazioaren erantzunkizun-sistema.	3/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzekoa.
- Euskal Herriko arrantza-sektorearen antolaketa.	6/1998 LEGEA, martxoaren 13koa, itsas arrantzari buruzkoa.
- Kreditu, banka eta aseguroen antolaketa.	
- Oinarrizko baliabideak edo beharrezko zerbitzuak sektore publikoari erreserbatzea, monopoliozkoak direnean bereziki, bai eta gehiengoaren interesak hala eskatzen duenean enpresetan, eskua izatea ere.	
- Meatze eta energiarekiko erregimena. Baliabide geotermikoak.	9/1982 LEGEA, azaroaren 24koa, Enerjiaren Euskal Erakundea sortaraziz.
Betearazteko eskumenak (12. art.)	
1. Gartzelei buruzko legegintza.	
2. Lanari buruzko legegintza, lan harremani dagozkienetan Estatuak gaur egun dituen ahalmen eta kompetentziak bere gain hartuz, bai eta, Estatuaren goi inspektioarekin batera, lanari buruzko legeak betearazteko haren zerbitzuak eratu, zuzendu eta babesteko ahalmena ere, langileen kualifikazioa eta hezkuntza osoa bultzatzea daitezkeen lan-baldintzak gizartearen aurrerabide eta aitzinamenduari egokitzen saiatuz.	7/1993 LEGEA, abenduaren 21ekoa, OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea sortzekoa. 10/2000 LEGEA, abenduaren 27koa, Gizarte Eskubideen Agiriarena. 3/2011 LEGEA, urriaren 13koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzkoa.
3. Jabegoaren Erregistratzaileen, Kanbio eta Burtsako Agenteen eta Merkatal Korredoreen izendapena. Eta hala behar balitz, berauei dagozkien mugen finkaketan esku izatea.	

4. Jabego intelektual eta industriazkoa.	
5. Pisuak eta neurriak; metalen kontrastea.	
6. Euskal Herrian egingo diren nazioarteko feriak.	
7. Komunitate Autonomoaren lurralde barrutiko Estatuaren sektore publikoa, hura, egoki zaizkion kasu eta egitekoetan eskuhartzaile izanik.	
8. Gehiengoaren interesekotzat jotako portu eta aireportuak, Estatuak berorien zuzenkako gestioa beretzat erreserbatzen ez duenean.	
9. Merkantzia eta bidaztien garraioaren ordenamendua, hasiera eta amaia Komunitate Autonomoaren lurralde barrutian denean, garraio hori Konstituzioaren 149, artikulua 1, apartatuaren 21, zenbakiak dioenez, titularitasun estatalaren azpiegituraren bidezkoa izan arren, Estatuak bere gain hartuko duen zuzenkako beterezteari kalterik egiteke.	2/2000 LEGEA, ekainaren 29koa, Bidaiariak Herri Barruan eta Herriz Kanpo kotxez garraiatzeko Zerbitzu Publikoa Arautzen duena. 5/2003 LEGEA, abenduaren 15koa, Euskadiko Garraio Agintaritzarena. 4/2004 LEGEA, martxoaren 18koa, Errepideko Bidaiari Garraioarena.
10. Itsas salbamendua eta Euskal kostari dagozkion Estatuaren uretan industri isuri eta gai kutsakorren arazoa.	
Justizia-administrazioko gaietan eskumenak (13. art.)	
Aginte Judizialaren eta Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiaren lege organikoetan Gobernuari aitortu, gorde eta eman dakizkion ahalmenak.	
15. art. (Arartekoa)	
Euskal Herriari dagokio, Parlamentuak emandako legeaz, eta Konstituzioaren 54. artikuluan ezartzen den erakundeari dagokionez, antzeko organo bat sortu eta eratzea, berorren bidez harekin koordinatuz aipaturiko artikuluan diren funtzioak eta Euskal Biltzarreak gomenda diezazkiokeen beste edonolakoak ere bete ditzan.	3/1985 LEGEA, otsailaren 27koa, Arartekoa Erakundea sortu eta arautzen duena.

<i>Irakaskuntza-arloko eskumenak (16. art.)</i>	
<p>Konstituzioaren lehen Erabaki Gehigarrian erabakitzen dena aplikatzeko, irakaskuntza, zabalera, maila, gradu, era eta espezialitate guztietan, Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren konpetentziapean dago, Konstituzioaren 27. artikulua eta berori zehaztuko duten Lege Organikoei, haren 149-1-30. artikulua Estatuari ematen dizkion ahalmenei eta guztiori betetzeko eta bermatzeko behar den goi inspektzioari kalterik egiteke.</p>	<p>13/1988 LEGEA, urriaren 28koa, Euskadiko Eskola-Kontseiluei buruzkoa.</p> <p>1/1993 LEGEA, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa.</p> <p>2/1993 LEGEA, otsailaren 19koa, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Unibertsitateko kanpoko Irakaskuntzako Irakasleen Kidegoei buruzkoa.</p> <p>4/1997 LEGEA, maiatzaren 30ekoa, Mondragon Unibertsitatea aitortzen duena.</p> <p>9/1998 LEGEA, apirilaren 3koa, Donostiako erdiko mailako Musika Kontserbatorioa (Donostia-San Sebastián) eta "Jesús Guridi" erdiko mailako Musika Kontserbatorioa (Vitoria-Gasteiz) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren menpeko ikastetxeen sare publikoan sartzekoa.</p> <p>3/2002 LEGEA, martxoaren 27koa, ikastolak legez normalizatu aurretik ikastetxe horietan irakasten aritutakoak aintzat hartzeari eta ordaina emateari buruzkoa.</p> <p>3/2004 LEGEA, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena.</p> <p>15/2008 LEGEA, abenduaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan zenbait irakasle-kidego sortzekoa.</p> <p>13/2012 LEGEA, ekainaren 28koa, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzkoa.</p> <p>1/2103 LEGEA, urriaren 10ekoa, Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzkoa.</p>
<i>Polizia-arloko eskumenak (17. art.)</i>	

<p>1. Konstituzioaren lehen Erabaki Gehigarrian aurrakusten denez, erregimen forala gaurkotzeko prozesuaren bitartez, Euskadiko Erakundeei, Estatu honetan zehazten den moduan, zera dagokie, pertsonak eta ondasunak babesteko eta lurralde autonomoaren barruan Ordenu Publikoa gordetzeko Polizia Autonomoaren erregimena, Estatuaren. Segurtasun-Indarren eta Gorputzen eskuetan, komunitatez kanpotik edo gaintik gertatuko diren polizi zerbitzuak geratzen direlarik, hala nola portuak, aireportuak, kostak, mugak eta aduanak zaintzea, lurralde nazionalean sar-irteten diren espainol zein atzerriaren kontrola, erbestasun, extradizio eta expulzioaren erregimen orokorra, emigrazio eta inmigratio, pasaporteak, nortasun-dokumentu nazionala, arma eta lehegailuak, Estatuaren agiri fiskala, kontrabandoa eta Estatuari egindako iruzur fiskala.</p> <p>2. Euskal Polizia Autonomoaren Aginte Gorena Euskadiko Gobernuari dagokio, Diputazio Foralek eta Gorporazio Lokalek izan ditzaketen eskubideei kalterik egiteke.</p> <p>3. Polizia Judiziala eta funtzio hauek beteko dituzten gorputzak, Justizi Administrazioaren zerbitzurako eta beronen begipean eratuko dira, beti ere lege prozesaletan datozen neurrien arauera.</p> <p>4. Polizia Autonomo eta Estatuaren Gorputz eta Segurtasun-Indarren koordinaketarako, Segurtasunerako Batzarrea eratuko da, Estatuaren eta Komunitate Autonomoaren ordezkari korpuru berdinez osatua.</p> <p>5. Hasteko, Euskal Herriko Polizia Autonomoak ondokoek osatuko dituzte:</p> <p>a) Arabako Diputazio Foraleko Miñoien Gorputzak, oraindik dirauenak.</p> <p>b) Bizkaiko eta Gipuzkoako Diputazioen menpean egongo diren Miñoien eta</p>	<p>4/1992 LEGEA, uztailaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzkoa.</p> <p>15/2012 LEGEA, ekainaren 28koa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema antolatzeakoa.</p> <p>1/2017 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, apirilaren 27koa, Larrialdien Kudeaketari buruzko Legearen testu bategina onesten duena.</p>
--	---

<p>Mikeleteen Gorputzek, prezeptu honen bidez berriro eraikitzen direnak.</p> <p>Geroago, Euskal Herriko erakundeek goiko apartatu horietan aipatu direnak bateratzea erabaki dezakete, edo eta, hartu dituzten kompetentziak zuzen betetzeko eraketa berria egitea.</p> <p>Guztiori, ordezkaritza eta ohizko eginbideei dagozkienetan, Miñoi eta Mikeleteen iraupenari kalterik egiteke.</p> <p>6. Goiko zenbakietan jarri direnak erabaki arren, Komunitate Autonomoan ordenu publikoa gordetzeko, Estatuaren Segurtasunerako Gorputz eta Indarrek hurrengo kasuotan esku izan dezakete:</p> <p>a) Euskadiko Gobernuak horrela eska diezaienean, haien esku hartzea haren eskabidez berriro utziz.</p> <p>b) Beren kabuz, Estatuaren interes orokorra larriki konprometaturik aurkitzen dela iruditzen zaienean, artikuluko honetako 4. zenbakian aipatzen den Segurtasunerako Batzarrearen onarpena beharrezkoa izango delarik. Parte hartzeko behar gorria balitz Konstituzioak zuzenik gomendatzen dizkien funtzio eta egitekoak betetzeko. Estatuaren Segurtasun-Gorputz eta Indarrez esku har lezakete, horren erantzule bakarra Gobernua izanik, beti ere Gorte Jeneralei guzti horren berri emanez. Gorte Jeneralak, prozedura konstituzionalaren bidez, berei dagozkien kompetentziaz baliatu ahalko dira.</p> <p>7. Alarma, salbuespen eta setio egoera aldarrika balitez, Euskal Herriko polizi indar guztiak agintari zibil edo militar egokiaren zuzenkako agindupean jarriko lirakeke, gaiok erregelatzen dituen legegintzaren arauera.</p>	
<p><i>Osasunaren eta Gizarte Segurantzaren arloko eskumenak (18. art.)</i></p>	

<p>1. Barneko Osasuna dela eta Euskal Herriari dagokio Estatuko oinarritzko legea lege berriz aurrera eramatea eta betetzea.</p> <p>2. Seguru Soziala dela eta, Euskal Herriari dagokio:</p> <p>a) Estatuko oinarritzko legea berriz aurrera eramatea eta betetzea, berorren erregimen ekonomikoa itxuratzen duten arauak salbu.</p> <p>b) Seguru Sozialaren erregimen ekonomikoaren gestioa.</p> <p>3. Berebat dagokio Euskal Herriari farmazi produktuez Estatuaren legeak bete eraztea.</p> <p>4. Xede horiek lortzeko, bere barrutian, Komunitate Autonomoak organitzatu eta administratu ahaliko ditu goain aipaturikoez zerikusirik duketen zerbitzu guztiak; Osasun eta Seguru Sozialari dagozkienetan instituzio, erakunde eta fundazioei bere babesa emango dielarik, artikulua honetan aurkitzen diren funtzioak eta konpetentziak betetzen diren ala ez jakiteko goren-gorenko inspektzioa Estatuaren eskutan egongo delarik.</p> <p>5. Osasun eta Seguru Sozial gaitan hartuko dituzten konpetentziak erabiltean, Euskal Botere Publikoak interesatu guztien partizipaketa demokratikora bilduko dira, eta baita langileen sindikatoenetara eta enpresariaren asoziazioenetara ere, Legeak zertuko duenaren arauera.</p>	<p>7/1982 LEGEA, ekainaren 30ekoa, Eskola Osasunari buruzkoa.</p> <p>7/1993 LEGEA, abenduaren 21ekoa, OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea sortzekoa.</p> <p>8/1997 LEGEA, ekainaren 26koa, Euskadiko antolamendu sanitarioarena.</p> <p>7/2002 LEGEA, abenduaren 12koa, osasun arloko aurretiazko borondate-ena.</p> <p>2/2003 LEGEA, maiatzaren 7koa, izatezko bikoteak arautzekoa.</p> <p>14/2012 LEGEA, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.</p> <p>1/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa.</p> <p>11/2016 LEGEA, uztailaren 8koa, bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzkoa.</p> <p>12/2016 LEGEA, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa.</p>
<p><i>Giza komunikabide-arloko eskumenak (19. art.)</i></p>	
<p>1. Euskal Herriari dagokio giza komunikabideei dagozkienetan Estatuko oinarritzko arauen legeria aurrera eramatea, Konstituzioaren 20. artikuluan agintzen dena beti ere errespetatuko delarik.</p> <p>2. Titulartasun estatala duten komunikabideei aplikatu behar zaien arautegi</p>	<p>5/1982 LEGEA, maiatzaren 20koa, Euskal-Irrati Telebista Herri-Erakundea sortzekoa.</p>

<p>bereziari dagokionez, goiko parrafoan aipatu diren gaien bururapena Estatuarenakin koordinatuko da.</p> <p>3. Artikulu honetako lehen parrafoan esaten den bezala, Euskal Herriak erregula, sor eta atxiki ditzake bere telebista, irrati eta prentsa propioa, eta, oro har, bere helburuak lortzeko behar dituen giza komunikabide guztiak.</p>	<p>9/1985 LEGEA, abenduaren 4koa, R.T.V.E.-ren Euskadiko Aholku-Batzordea araupetzekoa.</p>
<p><i>Transferitu edo eskuordetuen eskumenak (20. art.)</i></p>	
<p>1. Euskal Biltzarreak eskaturik, Estatuak Konstituzioari jarraiki Lege Organikoz haren eskutan utziko edo ordezkatu dituen beste puntu guztietan Euskal Herriak legegintzazko eta exekuziozko onpetentziak izango ditu.</p> <p>2. Euskal Herriko Komunitate Autonomoak Konstituzioko 150-1. artikulua- ren arauera delegatzen zaion legeria egokia diktatzeko ahalmena izango du, delako agindu horretan seinalatzen den lege barrutia Gorte Nagusiek onar dezatenean.</p> <p>3. Estatutoaren bidez bere esku utzi diren gaiak ukitzen dituzten tratu eta komenioak burutuko ditu Euskal Herriak. Ezin dezake inolako akordio edo komeniok uki Euskal Herriaren atribuipean eta kompetentziarik, Konstituzi- oko 152-2 artikuluan seinalatzen den prozeduraz egiten ez bada behintzat, berron 93. artikuluan aipatzen diren tratatuak salbu.</p> <p>4. Bere kompetentzia soil ez diren gaietan, Estatuak Euskal Herriko Komuni- tate Autonomoari ematen dizkion exekuzio funtzioetan sartzen da adminis- tratzeko eskubidea halaber, zerbitzuei dagozkien antolaketaren barne arau- tegiak diktatzekoa ere.</p> <p>5. Akordioak eta komenioak, berebat aduanetako lege proiektuak elabora- tzeko garaian, Euskal Herriarentzat interes berezia badute, Euskal Gober- nuari guztiorren berri emango zaio.</p>	<p>2/1986 LEGEA, otsailaren 19koa, Europako Elkarleen Lege-erapidetza Eus- kal Herriko Autonomia Elkarterako onartzeari buruzko oinarriak jartzekoa.</p>

<p>6. Baldin eta bestela ezertxo ere esaten ez bada, aurreko artikuluetako kompetentzia guztiak eta Estatuto honetako beste zenbait, Euskal Herriko lurralde esparruari dagozkio.</p>	
<p>26. art. (Legebiltzarra)</p>	
<p>1. Euskal Biltzarrea osatuko duten ordezkariak zenbaki berdinez hautatuak izango dira Herrialde Historiko bakoitzetik hauteskunde orokor, lokabe, zuzen eta sekretoaren bidez.</p> <p>2. Hauteskunde barrutia Herrialde Historikoari berari dagokiona da.</p> <p>3. Herrialde Historiko bakoitzean hauteskundeak egiteko erabiliko den irizpidea errepresentazio proportzionalarena izango da.</p> <p>4. Euskal Biltzarrea lau urtez behin hautatuko da.</p> <p>5. Euskal Herriko Hauteskunde Lege batek erregulatuko du bere kideen hautapena eta bere barrutian halako postu eta kargurako postuan edo karguan egoteko norbait ez-hautagarri eta ez-konpatible izateko arrazoiak seinalatuko du.</p> <p>6. Euskal Biltzarreko kideak ukiezinak izango dira beren kargugintzan azalduko dituzten boza eta iritzia medio.</p> <p>Horien aginpideak dirauen bitartean, Komunitate Autonomoaren esparruan egin delituengatik, ezingo da beroiek atxilotzerik nahiz gordetzerik izango, delitu nabarien kasuan ez bada, hobenduri diren, preso hartu, auzitan sartu eta juzkatu behar diren ala ez erabakitzea Euskal Herriko Auzitegi Gorenari dagokiolarik. Euskal Herriko esparrutik kanpora, beroiek izan dezaketen erantzukizun penala Auzitegi Goreneko Penal Aretoan eska daiteke.</p>	<p>5/1990 LEGEA, ekainaren 15ekoa, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzkoa.</p> <p>2/1981 LEGEA, otsailaren 12koa, Eusko Legebiltzarkideen ukiezin eta iareitasun-eskubideen aitortpenari buruzkoa.</p>

<p>27. art. (Legebiltzarra)</p>	
<p>1. Biltzarreak, bere bazkideen artetik, Lehendakaria, Mahaia aukeratuko ditu, eta Diputazio iraunkor batek Plenoan eta Batzordeetan ihardungo du. Biltzarreak bere barne araudia zehaztu eta finkatuko du, bazkideen gehiengo absolutuz onartu beharko delarik. Biltzarreak bere aintzin-kontua onartuko du eta bere pertsonalaren Estatutoa.</p> <p>2. Bilerak egiteko denboraldi arruntak urtean gutxienez zortzi hilabete iraungo du.</p> <p>3. Ganbarak bilera bereziak egin ditzake, baldin eta Gobernuak, Diputazio Iraunkorrak nahiz bazkideen herenak hala eskatzen badute. Bilera berezi-tara deitzeko, eguneko gai zerrenda eman beharko da eta hura agortu ondoren bukatutzat emango dira.</p> <p>4. Legegintzaren inizatiba honako hauei dagokie: Biltzarreko bazkideei, Gobernuari eta Estatuto honetako 37. artikuluan aipatzen diren erakunde errepresentatiboei, legeak agintzen duen gisan. Biltzarreko bazkideek eskubidea izango dute, bai Plenoan bai Batzordeetan, galderak, eskariak, interpelazioak eta mozioak egiteko, arautegian erabakiko denaren arauera. Lege proposamendua egiteko herri inizatiba, Euskal Biltzarreak tramitatu beharko duenean honek berak erregulatuko du lege bidez, Konstituzioko 83. artikuluan aurrikusten den Lege Organikoan finkatuko denaren arauera.</p> <p>5. Euskal Gobernuak lehendakariak aldarrikatuko ditu Biltzarrearen legeak eta berronek aginduko du beraien argitalpena «Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean» legeak onartu eta hamabost egun barru, bai «Boletín Oficial del Estado»-n ere. Indarrean noiz sartuko diren jakiteko, «Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean» agitara eman zeneko eguna izango da kontutan.</p>	<p>10/2016 LEGEA, ekainaren 30ekoa, Legegintzako Herri Ekimena arautzeari buruzkoa.</p>

28. art. (Legebiltzarra)	
<p>Gainera, Euskal Biltzarreari dagokio:</p> <p>a) Euskal Herriko ordezkari izango diren senadoreak izendatzea, Konstituzioaren 69.5 artikulua dioenez, horretarako Euskal Biltzarreak berak emango duen lege batez seinalatuko duen prozeduraren arauera.</p> <p>b) Estatuko Gobernuari legegai bat eskatzea edota Kongresoko mahaiari lege proposamen bat bidaltzea Euskal Biltzarreko bazkideek Ganbara horren aurrean delegatuz proposamena defenda dezaten.</p> <p>c) Inkonstituzionalitatearen errekurtsioa jartzea.</p>	<p>4/1981 LEGEA, martxoaren 18koa, Euskadiren izeneko senatarien izendapenari buruzkoa.</p>
30. art. (Gobernua)	
<p>Gobernuaren atribuzioak eta bere organizazioa, Lehendakari bategan eta Kontseilariengan oinarriturik, halaber beronen bazkideen Estatutua, Biltzarreak erregulatuko ditu.</p>	<p>7/1981 Legea, ekainaren 30ekoa, Jaurlaritzari buruzkoa.</p> <p>14/1988 LEGEA, urriaren 28koa, Goren-Kargudunen Lansariei buruzkoa.</p> <p>1/2014 LEGEA, ekainaren 26koa, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen.</p>
33. art. (Gobernua)	
<p>1. Gobernuko Lehendakaria Euskal Biltzarreak hautatuko du bere bazkideen artetik, Erregeak izendatuko duelarik.</p> <p>2. Lehendakariak hautatu eta bereziko ditu Gobernuko bazkideak, berauen ihardunbidea zuzenduz. Halaber berak du Euskal Herriko ordezkari goren eta Estatuaren ordezkari arrunta lurralde honetan.</p> <p>3. Euskal Biltzarrearen lege batez erabakiko da lehendakaria hautatzeko modua, beraren atribuzioak, baita Gobernuaren eta Biltzarrearen arteko harremanak ere.</p>	<p>7/1981 Legea, ekainaren 30ekoa, Jaurlaritzari buruzkoa.</p>
34. art. (Justizia Auzitegi Nagusia)	

<p>1. Euskal Herriko Justizi Administrazioaren antolaketa, zeinak gailurrean Auzitegi Nagusi bat izango baitu Komunitate Autonomo osoan kompetentzia izango duena, berorren aurrean agortuko direlarik bata bestearen ondoko prozesu eskabideak, Botere Judizialaren Lege Organikoan datorrenaren arauera egituratuko da.</p> <p>Konstituzioko 152. artikuluan erabakitzen denari jarraiki Komunitate Autonomoak probintziak baino ingurune txikiagoa duten barruti judizialak eratzen parte hartuko du, bai beroien hiriburua seinalatzen ere, dena-den horren muga finkatuz.</p>	<p>1/1990 LEGEA, apirilaren 6koa, Euskal Autonomi Elkarteko Epailaritzabarrutietako Hiriburuak Erabakitzeari Buruzkoa.</p>
<p>37. art. (LLHH)</p>	
<p>1. Herrialde Historikoen organo foralak horietako bakoitzaren erregimen juridiko propioaren arauera antolatuko dira.</p> <p>2. Estatuto honetan erabakitakoak ez darama berez Herrialde Historiko bakoitzaren erregimen foral bereziaren izaeraren eta erregimen pribati-boen kompetentzien edukiaren aldakuntzarik.</p> <p>3. Nolanahi ere, kompetentzia eskusiboak izango dituzte, bakoitzak bere lurraldean, ondoko gai hauei dagokienez:</p> <p>a) Beren instituzio propioen antolamendu, erregimen eta ihardunbidea</p> <p>b) Beren presuposten prestaketa eta onarpena.</p> <p>c) Probintziako neurrien barruan dauden esparru supramunizipaleko lurraldeen mugaketa.</p> <p>d) Probintzia eta Udaletako ondasunen erregimena, nahiz daitezten publikoak edo patrimonialak, propioak edo komunalak.</p> <p>e) Udaletako hauteskunde erregimena.</p> <p>f) Estatuto honetan seinalatuko diren guztiak edo beroien eskutan utziko direnak.</p> <p>4. Beren esku izango dute, baita ere, beren lurralde barrutian, Euskal Biltzarreak zehaztutako gaien aurrerabidea eta burutzea.</p> <p>5. Lurralde Historikoen ordezkartza organoak hautatzerakoan, hautes-</p>	<p>27/1983 LEGEA, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremani buruzkoa.</p>

<p>kunde orokor, lokabe, zuzen, sekreto eta proportziozko ordezkartzazko irizpideak erabiliko dira, lurralde bakoitzeko zona guztien ordezkartza egokia emango duten hauteskunde esparruak antolatuz.</p>	<p>1/1987 LEGEA, martxoaren 27koa, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Konda- daira-Lurraldeetako Batzar Nagusietarako Hauteskunderi buruzkoa.</p>
<p>39. art. (Arbitro Batzordea)</p>	
<p>Komunitate Autonomoaren eta Herrialde Historiko bakoitzaren instituzioen artean sor daitezkeen liskarrak Euskal Gobernuak eta interesaturik dagoen lurraldeko Diputazio Foralak erdibana izendatutako ordezkariak osaturiko eta Euskal Herriko Justizi Auzitegi Goreneko presidentek presiditutako arbitro batzorde baten erabakiari menpetuko zaizkio, Euskal Biltzarrearen lege batek erabakiriko prozeduraren arauera.</p>	<p>13/1994 LEGEA, ekainaren 30ekoa, Ebazpen Batzordea arautzen duena.</p>
<p>40. art. (Hazienda)</p>	
<p>Berari dagozkion eginbehar eta finantziaketak egokienik buru ditzan Euskal Herriak bere Hazienda Autonomia izango du.</p>	<p>1/1997 LEGEGINTZA DEKRETUA, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Na- gusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.</p>

	<p>2/2017 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.</p>
<p>41. art. (Ekonomia Ituna)</p>	
<p>1. Estatu eta Euskal Herriaren arteko zerga mailako harremanak, aintzinako erara, kontzertu ekonomiko eta Komenio sistemaz erregulatuak izango dira.</p> <p>2. Kontzertu Erregimenaren edukiak ondoko printzipio eta oinarriak errespetatuko ditu eta beroiei egokituko zaie:</p> <p>a) Herrialde Historikoetako instituzio bidezkoek, bere esparruan, zerga erregimena mantendu, ezarri eta erregulatu ahal izango dute, Estatuaren egitura orokor inpositiboari, kontzertu berean Estatuarekin koordinazio, fiskal armonizazio eta kolaborazioa izateko agertzen diren araei eta Komunitate Autonomoaren barruan helburu berdinak lortzeko euskal Biltzarreak diktatuko dituen kasu eginez. Kontzertua Legez onartuko da.</p> <p>b) Zerga guztien exakzio, gestio, likidazio, bileketa eta inspektzioa, Aduanaren Errentan sartzen direnak eta gaurregun Monopolio Fiskalen bidez biltzen direnak izan ezik, Herrialde Historiko bakoitzean, bertako Diputazio Foraleak egingo dute, guztiori Estatuarekin behar den kolaborazioaren eta beronen goi-goiko inspektzioaren kaltetan izan gabe.</p> <p>c) Herrialde Historikoetako erakunde konpetenteek gisako akordioak hartuko dituzte Estatuak lurralde komunari aplikatzea erabakiko dituen exzeptzio eta koiuntural jitezko arau fiskalak bakoitzak bere lurraldean aplikatuz, haietan hainbat denbora egingo dutelarik zutik hemengoetan.</p> <p>d) Euskal Herriak Estatuari egingo dion aportazioa kopuru oso bat izango da, eta komunitate autonomoak bere gain hartzen ez dituen Estatuak hartutako kargen kontribuzio gisa lurralde bakoitzak emandako gopuruez osatuko da.</p> <p>e) Aipaturiko kopuru osoa osatzen duten lurralde bakoitzari dagozkion kopuruak izendatzeko eta erabakitzen diren epeetan berritzeko, batzorde</p>	<p>3/1989 LEGEA, maiatzaren 30ekoa, Zergapideen Elkaregokitasun, Erakidetasun eta Lankidetasuneko.</p>

<p>mixto bat osatuko da, zein alde batetik Diputazio Foral bakoitzeko ordezkari batez eta Euskal Gobernuko beste hainbestez eta, bestetik, Estatu Administrazioiko beste hainbeste ordezkari osatuko baita. Horrela adostutako kupoa lege bidez onartuko da Itunean zehaztuko den aldizkakotasunez, Itunean bertan finkatu dadin jardunbideaz urtero eguneratzea gorabehera.</p> <p>f) 138. eta 156. artikuluetan aipatzen den solidaritate printzipioaren arauera aplikatu da Kontzertu erregimena.</p>	
<p>42. art. (Hazienda)</p>	
<p>Euskal Herriko Hazienda Orokorren sarrerak honela izango dira:</p> <p>a) Herrialde Historikoak Euskal Herriko presupostu gastuetarako egindako kontribuzioaren adierazgarri bezala Diputazio Foralek emandako emaitzak. Euskal Biltzarreko lege batek erabakiko ditu banaketa berdintasunerako irizpide eta Herrialde Historiko bakoitzaren aportazioak erabaki eta emateko erabiliko den prozedura.</p> <p>b) Euskal Biltzarreak erabakiko dituen komunitate Autonomoaren zerga propioen etekinak, Komunitate Autonomoen finantzaketaz Konstituzioko 157. artikuluan eta Lege Organikoan esaten denaren arauera.</p> <p>c) Territorioen arteko Konpentsazio Fondotik egindako transferentziak eta Estatuko presupostu orokorren kargura eta kontura beste zenbait emaitza.</p> <p>d) Bere patrimoniotik sorturiko etekinak eta eskubide pribatuzko sarrerak.</p> <p>e) Kreditu operazioen eta Zor emisioen produktua.</p> <p>f) Konstituzioan eta Estatuto honetan erabakitakoaren arauera antola daitekeen beste edozein sarrera.</p>	<p>6/1992 LEGEA, urriaren 16koa, Bingo Jokuaren gaineko Zergari eta zori-pekoko Jokuak egiteko bide ematen duten makinez eta gailu automatikoez baliatuz egiten diren jokuen gaineko Tasaren errekarario buruzkoa dena.</p> <p>1/2007 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, irailaren 11koa, Euskal Autonomia erkidegoko administrazioaren tasa eta prezio publikoei buruzko legearen testu bategina onartzeko dena.</p>
<p>43. art. (Ondarea)</p>	

<p>1. Euskal Komunitate Autonomoaren jabegoarenak izango dira aurrerantzen Komunitate honek bere gain hartu dituen zerbitzu eta konpetentziekin zerikusirik duten Estatuaren edo eta beste organismo publikoen eskubi-deak eta ondasunak.</p> <p>2. Euskal Biltzarreak erabakiko du eskubide eta ondasun horien jabegoa edo erabilpena Euskal Herriko zein organori utziko zaion.</p> <p>3. Euskal Biltzarrearen lege batek erregulatuko du Euskal Herriko ondarearen administrazio, defentsa eta kontserbazioa.</p>	<p>2/2007 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, azaroaren 6koa, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzeko dena.</p>
<p>44. art. (Aurrekontuak)</p>	
<p>Euskal Herriko presupostu orokorrek bere barne hartuko dituzte aktibitate publiko orokorraren diru sarrera eta gestuak; Euskal Gobernuak elaboratuko ditu eta Euskal Biltzarreak onartuko berak ezartzen dituen arauen arauera.</p>	<p>5/1997 LEGEA, maiatzaren 30ekoa, gastu bereizietarako kredituak nola erabili eta kontrolatu arautzen duena.</p> <p>1/2011 LEGEGINTZA DEKRETUA, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu araubidearen arloan indarrean diren lege xedapenen testu bategina onartzeko dena eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu araubidea arautzen duena.</p>
<p>45. art. (Zor Publikoa)</p>	
<p>1. Euskal Herriko Komunitate Autonomoak inbertsio gastuak finantzatzeko zor publikoaren agiriak eman ditzake.</p> <p>2. Emisioen kopurua eta ezaugarriak politika kreditiziaren antolaketa orokorraren arauerakoak izango dira eta Estatuaz kolaboratuz egingo.</p> <p>3. Emango diren tituluak, ondorio guztietarako, funts publiko bezala joko dira.</p>	<p>8/1996 LEGEA, azaroaren 8koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Finantzena.</p>

**II.ERANSKINA. LHL-N AURREIKUSITAKO LURRALDE HISTORIKOEN ESKUMENETAN ERAGINA DUTEN LEGE
MAILAKO INDARREAN DAGOEN ARAUDIA**

<p style="text-align: center;">LURRALDE HISTORIKOEN ESKUMENAK (LURRALDE HISTORIKOEN LEGEA)</p>	<p style="text-align: center;">ARAUDI SEKTORIALA</p>
<p><i>Lurralde Historikoen eskumen eskusiboak (7.a) art. LHL</i></p>	
<p>Bere Foruzko Ihardutze-Erakundeen erakuntza, jaurpideak eta iharduna.</p>	<p>1/1987 LEGEA, martxoaren 27koa, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Kondaira-Lurraldeetako Batzar Nagusietarako Hauteskundeei buruzkoa.</p>
<p>Udal eta maila apalagoko Toki-erakundeetako hauteskunde-jaurpideak.</p>	
<p>Udal barrutien eta udalez gainerikako mugapena, Kondaira-Lurraldeez gainerikakoak izan ez daitezela.</p>	
<p>Bere Diruegitamua eta Kontuak gertatzea eta ontzat ematea, eta bai mailu eta dirubidetza-eragiketarako ere, Lege honen II Idazpuruari darizkion modutan.</p>	
<p>Herrilan eta Zerbitzuen Foru-Egitamua idaztea eta ontzat ematea. Toki-Erakundeekiko teknikazko laguntza eta aholkularitza.</p>	
<p>Autonomia-Estatutoaren 41garren Atalak esaten dituenak eta, orohar, Ekonomia-Itunearen Legeak edo zergalaritza-alorreko beste arau edo manuren batzuk emanda izan ditzaten guztiak.</p>	<p>3/1989 LEGEA, maiatzaren 30ekoa, Zergapideen Elkaregokitasun, Erakidetasun eta Lankidetasuneko.</p> <p>6/1992 LEGEA, urriaren 16koa, Bingo Jokuaren gaineko Zergari eta zori-pekoko Jokuak egiteko bide ematen duten makinez eta gailu automatikoez baliatuz egiten diren jokuen gaineko Tasaren errekarario buruzkoa dena.</p>
<p>Probintziaren eta udalen ondasunen araubidea, bai jabetza publikokoak zein ondarekoak eta herri-lurrak.</p>	<p>17/2008 LEGEA, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa.</p> <p>1/2014 LELEGINTZAKO DEKRETUA, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen du-</p>

	<p>ena.</p> <p>4/2015 LEGEA, ekainaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa.</p> <p>6/2015 LEGEA, ekainaren 30ekoa, hidrokarburo ez-konbentzionalak erazuteko prozesuan eta haustura hidrauliko edo «fracking»ean ingurumena babesteko neurri osagarriei buruzkoa.</p>
<p>Errepide eta bideekiko egitamuketa, egitasmoak, egitea, hoiei eustea, aldatzea, hioen dirubideak, erabilpena eta ustiaketa.</p> <p>Autonomia-Elkarteko errepide-sareen arteko behar bezalako egokitasuna bermatzeko, Kondaira-Lurraldeek, bere bidesaretan, Euskal Herri Osorako Erakundeek onartutako Orotariko Errepide-Egitamuan jarri daitezten teknikazko eta bide-seinaleentzako arauak jarriko dituzte indarrean, eta Erresumako Errepide-sarearen jarraipen izan edo elkarteaz besteko beste Herri-Erakundeenei edo Kondaira-Lurraldeetakoei heurrei atxiki dakizkienetan berriz, esandako Orotariko Errepide-Egitamu horretan jarri daitezten aintzin-neurriak, helburuak, lehentasunak eta hobekuntzak egingo dituzte guxtienez.</p> <p>Autonomia-Elkartearen, Erresumaren, Elkarteaz besteko beste Herri-Erakunde batzuen edo Kondaira-Lurraldeek egitamuetako taiuketetan Kondaira-Lurraldeak edo hioen mugakideak har ditzaten elkartzepide berrak egitea oharteman dedinean, egitamu hoiek bakoitzaren ahalmen eta agintepideen arauera elkarri egokituko zaizkio.</p> <p>Hori guzti hori, Autonomia-Estatutoaren 10.34 Atalean agintzen denaren kaltetan gabe.</p>	<p>2/1989 LEGEA, maiatzaren 30ekoa, Euskal Herriko Errepideen Egitamu Nagusia araupetzeko.</p> <p>10/1998 LEGEA, apirilaren 8koa, Landa Ingurunearen Garapeneko.</p>
<p>Mendiak, oihan-ustiaketa eta zerbitzuak, abereentzako bideak eta alaguneak, Autonomia-Estatutoaren 10.8 atalak dioenez; oihan zaintza eta nekazaritza eta oihan-lurrei bere onean eustea eta hobetzea.</p>	<p>2/1996 LEGEA, maiatzaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Elikagaien Profesioarteko Erakundeei buruzkoa.</p>

	<p>3/1998 LEGEA, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra.</p> <p>10/1998 LEGEA, apirilaren 8koa, Landa Ingurunearen Garapeneko.</p> <p>17/2008 LEGEA, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa.</p> <p>1/2014 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, apirilaren 15koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duena.</p> <p>4/2015 LEGEA, ekainaren 25koa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa.</p> <p>6/2015 LEGEA, ekainaren 30koa, hidrokarburo ez-konbentzionalak erazteko prozesuan eta haustura hidrauliko edo «fracking»ean ingurumena babesteko neurri osagarriei buruzkoa.</p> <p>8/2015 LEGEA, urriaren 15koa, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzkoa.</p>
<p>Herri-lanak egiteak beste lurralde historiko batzuei eragiten ez badie edo Eusko Jaurlaritzak ez baditu interes orokorrekotzat jo.</p> <p>Aurrekoa gorabehera, Euskal Autonomia Erkidegoaren interes orokorrekotzat joko dira Eusko Legebiltzararraren Uraren Legeak definitzen dituen obra hidraulikoak. Uraren Euskal Agentziari dagokio interes orokorrekotzat jo diren obra hidraulikoak proiektatzea, egitea eta kudeatzea; baita lege honek ematen dion beste edozein eginkizun betetzea ere, obra horiek dirrela-eta.</p>	<p>1/2006 LEGEA, ekainaren 23koa, Urarena.</p>

<p>Ospea eta tradizioa direla edo Foru-Diputazio bakoitzaren menpeko diren Foral, Miño eta Mikelete-Indar edo Sailen jaurpideak, Eusko Jaurlaritzari Autonomiazko Ertzaintzaren goren-agintari denez dagozkion eskubideen kaltetan gabe.</p>	<p>4/1992 LEGEA, uztailaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzkoa.</p>
<p>Kondaira-Lurraldearen jabetzapeko Agiri-gordetegi, Liburutegi, eta Arte Ederrei eta Eskulangintzari datxezkien Erakustetxe eta Erakundeak.</p>	
<p>Kondaira-Lurraldearentzat interesgarritasuna izan dezaten kultura-sailak sortaraztea eta hoiei eustea.</p>	
<p><i>Lurralde Historikoen araudia garatzeko eta betearazteko eskumenak (7. b) art. LHL)</i></p>	
<p>Landare-osasuna; nekazaritza erreformatu eta garatzea; nekazaritza zabaldu, sustatu eta gaitzea; mahasgintza eta ardogintza; landareak ekoiztea, haziak eta mintegi-landareak izan ezik.</p> <p>Arlo honetan, Uraren Euskal Agentziari dagokio Erkidegoko Uraren Legeak ur-horniketa, saneamendu, arazketa eta ureztatze gaietan ematen dizkion eginkizunak betetzea; baita ureztatzearen araubide juridikoa arautuko duen dekretua Eusko Jaurlaritzari proposatzea ere, legeak ezartzen duen gutxienerako edukia jasota.</p>	<p>7/1992 LEGEA, abenduaren 21ekoa, Alde Ureztagarriari, Hobekuntzarako Eskualde-Planei eta Eraldatzeko Plan Orokorrei buruzko alderdi batzuk araupetzen dituena.</p> <p>2/1996 LEGEA, maiatzaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Elikagaien Profesioarteko Erakundeei buruzkoa.</p> <p>3/1998 LEGEA, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra.</p> <p>10/1998 LEGEA, apirilaren 8koa, Landa Ingurunearen Garapeneko.</p> <p>5/2004 LEGEA, maiatzaren 7koa, Mahastizaintza eta Ardogintza Antolatze-koa.</p> <p>1/2006 LEGEA, ekainaren 23koa, Urarena.</p> <p>17/2008 LEGEA, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa.</p>

	8/2015 LEGEA, urriaren 15ekoa, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzkoa.
Abere-ustiaketa eta osasunketa.	6/1993 LEGEA, urriaren 29koa, animaliak babestekoa. 2/1996 LEGEA, maiatzaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Elikagaien Profesioarteko Erakundeei buruzkoa. 17/2008 LEGEA, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa. 8/2015 LEGEA, urriaren 15ekoa, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzkoa.
Ur gozotako arrainez eta ehizaz baliatzeko jaurpideak.	1/1989 LEGEA, apirilaren 13koa, ehizeko eta ibai-arrantzuko ardularitza-hauspen jakin batzuren zermugapena aldatu eta zigorren zenbatekoa haundiagotzen duena. 2/1996 LEGEA, maiatzaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Elikagaien Profesioarteko Erakundeei buruzkoa. 3/1998 LEGEA, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra. 17/2008 LEGEA, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa. 2/2011 LEGEA, martxoaren 17koa, Ehizarena. 1/2014 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen du-

	ena.
Ur kontinental publikoen eta horien berezko ibilguen, ur-bazterren eta zortasunen zaintza. Eusko Legebiltzarraren Uraren Legeak arautzen duenaren arabera egingo da zaintza hori.	3/1998 LEGEA, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra. 1/2006 LEGEA, ekainaren 23koa, Urarena. 6/2015 LEGEA, ekainaren 30koa, hidrokarburo ez-konbentzionalak erauz-teko prozesuan eta haustura hidrauliko edo «fracking»ean ingurumena babesteko neurri osagarriei buruzkoa.
Kondairazko, Artezko, Monumentozko eta Arkeologiazko Ondareari bere onean eustea, hori hobetzea, birregokitzea edo, hala behar izanez gero, bilaketak egitea.	7/1990 LEGEA, uztailaren 3koa, Euskal Kultur Ondareari Buruzkoa.
Kirolaren suztapena. Eskola-kirolentzako eta guztien kirolarentzako egitarauak.	14/1998 LEGEA, ekainaren 11koa, Euskadiko Kirolarena.
<i>Lurralde Historikoen betearazteko eskumenak (7.c) art. LHL)</i>	
Gizarte-sorozpidetza, Euskal Herri Osorako Erakundeek artez ihardutzearen kaltetan gabe.	10/2007 LEGEA, ekainaren 29koa, Ahalmen Urrituentzako Laguntza Txakurri buruzkoa. 1/2008 LEGEA, otsailaren 8koa, Familia Bitartekaritzakoa. 12/2008 LEGEA, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. 13/2008 LEGEA, abenduaren 12koa, Familiei Laguntzekoa. 18/2008 LEGEA, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa.
Elkarte-hazkuntza, emakumea. Haurrekiko, gazteekiko, zahartzaroarekiko,	20/1997 LEGEA, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna Sustatzekoa.

<p>atseden eta egurasketarekiko politika, Euskal Herri Osoaren Erakundeek alor hoietan artez ihardutzearen kaltetan gabe.</p>	<p>17/1998 LEGEA, ekainaren 25ekoa, Boluntarioei buruzkoa.</p> <p>3/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babestekoa.</p> <p>4/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako.</p> <p>1/2007 LEGEA, otsailaren 22koa, Garapenerako Lankidetzari buruzkoa.</p> <p>1/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa.</p> <p>6/2016 LEGEA, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa.</p>
<p>Babespeko berezko tokiei buruzko Arduralaritzza.</p>	<p>5/1989 LEGEA, uztailaren 6koa, Urdaibaiko Biosfera-Gebenaldea Babestu eta Antolatzeari buruzkoa.</p> <p>1/2014 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duena.</p>
<p>Suteen aurkako zaingoa.</p>	<p>15/2012 LEGEA, ekainaren 28koa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema antolatzekoa.</p> <p>1/2017 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, apirilaren 27koa, Larrialdien Kudeaketari buruzko Legearen testu bategina onesten duena.</p>
<p>Goragoko maila duen planeamenduko xedapenak garatzeko xedez burutu eta xedapen horiek hartzen duten eremuaren barruan, Kondaira-Lurraldeei</p>	<p>4/1990 LEGEA, maiatzaren 31koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolatzeari buruzkoa.</p>

<p>dagokie lurraldea eta hirigintza antolatzeko instrumentuei buruzko iniziatibak izan, horiek idatzi, burutu, kudeatu, fiskalizatu, informatu eta onartzeko ahalmena, hirigintza arloari dagozkionetan. Eta hori, beste izaiki publiko eta hirigintza-organu batzuek legez izan ditzaten eskuduntzen kaltean gabe.</p> <p>Lurraldea antolatzeko instrumentuetan jasotzen diren xedapenak joko dira goragoko maila duten planeamenduztat. Instrumentu horiek onartu arte, Euskal Autonomi Elkartea Antolatzeko Batzordeak eman ditzan irizpideek beteko dute egiteko hori, honako alde hauei dagozkienetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - etxebizitza, industri eta zerbitzu eremuen garapena zenbatzea. - azpiegiturak, ekipamenduak, errekurtsu naturalak, ihardunak eta arloak, horien antolaketa, ekintza horien xedea kontutan hartuta, Kondaira Lurraldeen eskuduntzapekoa izan ez dadin kasuetan. <p>Ondorioz, honako hau dagokie Kondaira-Lurraldeei: hirigintza antolatzeko instrumentu guztiei onarpena ematea hain zuzen. Ez dira horretan sartzen lurraldea edo hirigintza antolatzeko instrumentuak garatzen dituzten eta Euskal Autonomi Osorako diren Instituzioei izendatutako eskuduntza sektorialak burutzeko landutako plan bereziak.</p>	<p>20/1997 LEGEA, abenduaren 4koa, Irigarritasuna Sustatzekoa.</p> <p>2/2006 LEGEA, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.</p>
<p>Halaber, etxebizitzatarako hiri-lurretan jarri daitezkeen Ekintza Nekagarri, Osasunkaitz, Kaltegarri edo Arriskugarrien zermugapenerako, hoientzako onbideratze-neurriak emateko, ikuskaritzarako eta zigortzeko ahalmena, Kondaira-Lurralde edo Elkartean besteko Herri-Izaiki bakar bat baino hartu ez dezatenaren baldintzapean, eta Legeak Udal-Erakundeei ematen dizkien agintepideen kaltetan gabe.</p>	<p>3/1998 LEGEA, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra.</p> <p>6/2015 LEGEA, ekainaren 30ekoa, hidrokarburo ez-konbentzionalak erazteko prozesuan eta haustura hidrauliko edo «fracking»ean ingurumena babesteko neurri osagarriari buruzkoa.</p>

<p><i>Lurralde Historikoen estatistika arloko eskumenak (9. art. LHL)</i></p>	
<p>Foru-Diputazioek, Lege honetan heurei aitortutako egiteko eta agintepidetarako izan eta Autonomia-Elkartearen Estadistika-Egitamuan sartu gabeko estadistikak egin ahal izango dituzte, Autonomia-Elkartearen legepidetan jarri daitezzen arauak beteaz.</p> <p>Halaber, Elkarte Osorako interesgarri izan daitezzen estadistikak barne izango dituen Autonomia-Elkarteko Estadistika-Egitamua gertatzen bere iritzia eman ez eskuhartu, eta bakoitzak bere lurraldean egitamu horren barruko estadistikak, Egitamua berak edo hori eginbideratzeko urtekako estadistika-egitasmoek jarri ditzaten modutan egiteratzea bere gain hartuko dute.</p>	<p>4/1986 LEGEA, apirilaren 23koa, Euskadiko Autonomia Elkartearen Estatistikari buruzkoa.</p>
<p><i>Lurralde Historikoen errepideko garraiobide mekanikoen arloko eskumenak (10. art. LHL)</i></p>	
<p>Errepidetatikako Ibilgailuzko Garraioen alorreango Legegintza, Arauen bi-dezko Egiterapena, Goren-ikuskaritza, Egitamugintza eta Antolakidetzak Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeei dagozkie. Kondaira-Lurraldeek, bere mugartean, eta indarrean dauden Erresumarekingo Ituneen arauera, Arabak orain dituen ahalmenak heurak eta nolako berdinez erabiliko dituzte.</p>	<p>20/1997 LEGEA, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna Sustatzeko.</p> <p>2/2000 LEGEA, ekainaren 29koa, Bidaiariak Herri Barruan eta Herriz Kanpo kotxez garraiatzeko Zerbitzu Publikoa Arautzen duena.</p> <p>4/2004 LEGEA, martxoaren 18koa, Errepideko Bidaiari Garraioarena.</p>

III.ERANSKINA. LHL-N AURREIKUSITAKO LURRALDE HISTORIKOEN ESKUMENETAN ERAGINA DUTEN FORU-ARAU MAILAKO INDARREAN DAGOEN ARAUDIA

<p>LURRALDE HISTORIKOEN ESKUMENAK (LURRALDE HISTORIKOEN LEGEA)</p>	<p>ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ARAUDIA</p>
<p><i>Lurralde Historikoen eskumen eskusiboak (7.a) art. LHL</i> Bere Foruzko Ihardutze-Erakundeen erakuntza, jaurpideak eta iharduna.</p>	<p>7/1983 FORU ARAUA, martxoaren 7koa, Arabako Lurralde Historikoko antolaketa instituzionalarena.</p> <p>15/1986 FORU ARAUA, uztailaren 4koa, Arabako Biltzar Nagusien aurreko herri-ekimen araugilea arautzen duena.</p> <p>15/1987 FORU ARAUA, urriaren 30ekoa, Ekonomia Jardueren eta Foru Zerbitzu Publiko deszentralizatuen Kudeaketari buruzkoa.</p> <p>61/1989 FORU ARAUA, azaroaren 20koa, Arabako Lurralde Historikoaren izendapen ofizialarena.</p> <p>52/1992 FORU ARAUA, abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege erregimenari buruzkoa.</p> <p>14/1993 FORU ARAUA, maiatzaren 5koa, ikurrinari, Arabako lurralde historikoaren armariari eta foru aldundiaren komunikazio-logotipoari buruzkoa.</p> <p>17/1993 FORU ARAUA, maiatzaren 30ekoa, Arabako Foru Aldundiaren zigortze erregimena arautzen duena.</p> <p>10/1995 FORU ARAUA, martxoaren 20koa, Arabako foru administrazioaren administrazio isiltasunaren jaurbideari buruzkoa.</p>

	<p>4/2000 FORU ARAUA, otsailaren 21ekoa, Arabako Foru Aldundiko, organismo autonomoetako eta foru sozietate publikoetako goi karguen eta behin-behineko langileen erregimena arautzen duena.</p> <p>13/2006 FORU ARAUA, azaroaren 20koa, Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofiziala Arautzekoari buruzkoa.</p> <p>7/2008 FORU ARAUA, otsailaren 18koa, Arabako Foru Aldundiko Jardueren erregistroa eta ondasun eta interesen erregistroa arautzen duena.</p> <p>17/2013 FORU ARAUA, apirilaren 22koa, Arabako Biltzar Nagusien Funtzionamendu Araudiari buruzkoa.</p> <p>1/2017 FORU ARAUA, otsailaren 8koa, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunarena, herritarren parte-hartzearena eta gobernu onarena.</p>
<p>Udal eta maila apalagoko Toki-erakundeetako hauteskunde-jaurpideak.</p>	<p>1984 FORU ARAUA, uztailaren 30ekoa, Arabako Lurralde Historikoaren Kontzejuen Errejidoreak eta Batzarkideak hautatzekoa.</p>
<p>Udal barrutien eta udalez gaineratutako mugapena, Kondaira-Lurraldeez gaineratutakoak izan ez daitezela.</p>	<p>62/1989 FORU ARAUA, azaroaren 20koa, Arabako Udal eta Kontzejuen Zerbitzu anaiarten eraketa-prozedura, lege erregimena eta funtzionamenduari buruzkoa.</p> <p>63/1989 FORU ARAUA, azaroaren 20koa, Kuadrillei buruzkoa.</p> <p>11/1995 FORU ARAUA, martxoaren 20koa, Arabako Lurralde Historikoko Herri Batzarrei buruzkoa.</p> <p>4/2011 FORU ARAUA, otsailaren 21ekoa, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen mugak, izena, hiriburua eta ezaugarriak arautzen dituena.</p>

<p>Bere Diruegitamuak eta Kontuak gertatzea eta ontzat ematea, eta bai mailu eta dirubidetza-eragiketarak ere, Lege honen II Idazpuruari darizkion modutan.</p>	<p>64/1989 FORU ARAUA, azaroaren 20koa Tasa eta Prezio Publikoei buruzkoa.</p> <p>53/1992 FORU ARAUA, abenduaren 18koa, Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontu Erregimenari buruzkoa.</p> <p>11/2016 FORU ARAUA, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzena.</p>
<p>Herrilan eta Zerbitzuen Foru-Egitamua idaztea eta ontzat ematea. Toki-Erakundeekiko teknikazko laguntza eta aholkularitza.</p>	<p>14/1997 FORU ARAUA, apirilaren 24koa, Obra eta zerbitzuetako foru-plana eta Arabako Foru Aldundiaren toki-erakundeen obra eta zerbitzuetan laguntzeko bestelako tresnak arautzekoa.</p> <p>21/2013 FORU ARAUA, ekainaren 27koa, Auzo Harremanak sustatzeko ekimenetarako eta Arabako Toki Erakundeetan Obra Txikiak gauzatzeko laguntza programak arautzen dituenak.</p> <p>39/2013 FORU ARAUA, abenduaren 13koa, zeinak Arabako toki erakundeen obra eta zerbitzuen foru planean sartzen diren obrak finantzatzeko aparteko funtsa (OFAF) arautzen baitu.</p> <p>9/2017 FORU ARAUA, apirilaren 12koa, Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duena (2018-2023).</p>
<p>Toki-Erakundeekiko teknikazko laguntza eta aholkularitza. Autonomia-Estatutoaren 41garren Atalak esaten dituenak eta, orohar, Ekonomia-</p>	<p>41/1989 FORU ARAUA, uztailaren 19koa, Toki Ogasunak Arautzen dituenak.</p>

<p>Itunearen Legeakedo zergalaritza alorreko beste arau edo manurenbatzuk emanda izan ditzaten guztiak⁵⁴.</p>	<p>42/1989 FORU ARAUA, uztailaren 19koa, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzkoa.</p> <p>43/1989 FORU ARAUA, uztailaren 19koa, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzkoa.</p> <p>44/1989 FORU ARAUA, uztailaren 19koa, Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzkoa.</p> <p>45/1989 FORU ARAUA, uztailaren 19koa, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzkoa.</p> <p>46/1989 FORU ARAUA, uztailaren 19koa, Hiri-lurren balioaren gehikuntza- ren gaineko Zergari buruzkoa.</p>
<p>Probintziaren eta udalen ondasunen araubidea, bai jabetza publikokoak zein ondarekoak eta herri-lurrak.</p>	<p>5/1998 FORU ARAUA, otsailaren 23koa, Arabako Lurralde Historikoen ondareari buruzkoa.</p>
<p>Errepide eta bideekiko egitamuketa, egitasmoak, egitea, hoiei eustea, aldaztea, hoi- en dirubideak, erabilpena eta ustiaketa.</p>	<p>20/1990 FORU ARAUA, ekainaren 25koa, Arabako Lurralde Historikoko errepideei buruzkoa.</p> <p>6/1995 FORU ARAUA, otsailaren 13koa, Araba Lurralde Historikoko Landabideen Erabilera, Artapen eta Zaintzarakoa.</p> <p>1/2012 FORU ARAUA, urtarrilaren 23koa, Arabako Lurralde Historikoko ibilbide berdeei buruzkoa.</p>

⁵⁴ Une honetan indarrean dauden tokiko zergen arloan ezarritako Arau-xedapenak baino ez dira aipatzen.

	4/2010 FORU ARAUA, martxoaren 8koa, Arabako Lurralde Historiko bizikleta bideei buruzkoa.
Mendiak, oihan-ustiaketa eta zerbitzuak, abereentzako bideak eta alaguneak, Autonomia-Estatutoaren 10.8 atalak dioenez; oihan zaintza eta nekazaritza eta oihan-lurrei bere onean eustea eta hobetzea.	11/2007 FORU ARAUA, martxoaren 26koa, Mendiei buruzkoa.
Herri-lanak egiteak beste lurralde historiko batzuei eragiten ez badie edo Eusko Jaurlaritzak ez baditu interes orokorrekotzat jo.	
Ospea eta tradizioa direla edo Foru-Diputazio bakoitzaren menpeko diren Foral, Miño eta Mikelete-Indar edo Sailen jaurpideak, Eusko Jaurlaritzari Autonomiazko Ertzaintzaren goren-agintari denez dagozkion eskubideen kaltetan gabe.	
Kondaira-Lurraldearen jabetzapeko Agiri-gordetegi, Liburutegi, eta Arte Ederrei eta Eskulangintzari datxezkien Erakustetxe eta Erakundeak.	
Kondaira-Lurraldearentzat interesgarritasuna izan dezaten kultura-sailak sortaraztea eta hoiei eustea.	
<i>Lurralde Historikoen araudia garatzeko eta betearazteko eskumenak (7. b) art. LHL)</i>	
Landare-osasuna; nekazaritza erreformatu eta garatzea; nekazaritza zabaldu, sustatu eta gaitzea; mahasgintza eta ardogintza; landareak ekoiztea, haziak eta mintegi-landareak izan ezik.	
Abere-ustiaketa eta osasunketa.	
Ur gozotako arrainez eta ehizaz baliatzeko jaurpideak.	8/2004 FORU ARAUA, ekainaren 14koa, Arabako Lurralde Historikoaren ehizari buruzkoa.
